

eman ta zabal zazu



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea
Facultad de Ciencias Sociales y de la Comunicación



KAZETARITZA GRADUA
IKASTURTEA 2014-2015

JUDENFRAGE-TIK
ISRAELGO ESTATUAREN SORRERARA

EGILEA: Arrate Iruskieta, Asier
ZUZENDARIA: Zabaltza Pérez-Nievas, Xabier

2015eko irailaren 18a

Aurkibidea

1. SARRERA	3
2. MARKO TEORIKOA	6
I. <i>Die Judenfrage</i>	6
I.1. Herri juduaren historia	8
I.2. Biblia juduen historian	9
I.3. Greziarren eta erromatarren eragina	10
I.4. <i>Fellahim</i> -en teoria: islamera konbertitutako juduak	12
I.5. Judaismoaren zabalkundea	13
I.6. Kristautasunaren nagusitasuna eta antijudaismoaren hasiera	15
II. Emantzipazio judua eta antisemitismoaren agerpena	17
II.1. Antisemitismoaren hastapenak	17
II.2. Gobernu judu sekretua eta konplotaren teoria	19
II.3. Siongo jakintsuen protokoloak	20
II.4. Arioak, judu alderraia eta “arrazaren” teoriak	22
II.5. Faktore ekonomikoa	23
II.6. Antisemitismoaren ondorio politiko eta sozialak	24
III. Sionismoa	27
III.1. Inperialismo britainiarra eta sionismo kristaua	29
III.2. Balfour-en deklarazioa	31
III.3. Ikuspegi ezberdinak sionismoaren baitan	33
III.4. Herzl eta sionismo politikoa	33
III.5. <i>Hibbat Zion</i> eta sionismo praktikoa	34
III.6. <i>Mizrahiak</i> eta sionismo erlijiosoa	35
III.7. Kolonien eraketa eta sionismo politikoaren ahalduntzea	36
III.8. Sionismo sozialista	37
III.9. Sionismo errebisionista	39
IV. Mandatu Britainiarretik Israelgo Estatuaren sorrerara	42
IV.1. 1936ko altxamendua eta <i>Liburu zuria</i>	44
IV.2. Britainiarren azken urteak eta Nazio Batuen Misioa Palestinan	45
IV.3. 1948ko gerra: <i>Nakbah</i> eta independentziaren artean	47
3. AMAIERA/ONDORIOAK	50
BIBLIOGRAFIA	56

1. SARRERA

Esku artean duzuen gradu amaierako ikerketa urte beteko lanaren, eta Ekialde Hurbilean dudan interesaren emaitza da. Kazetaritza ikaslea izanik, historiako gai bat aukeratzea ez da kasualitatea izan. Berez, aspalditik txunditu nau Ekialde Hurbilak izan dituen gora behera sozial eta politikoak historian zehar. Palestinar eta israeldarren arteko gatazka da agian horren eredu ezagunena, ez soilik Ekialde Hurbilean, baita mundu osoan ere. Bere iraupenak, konplexutasunak, eta inguruko nazioetan duen eraginak bereizten du gainontzekoetatik. Hala ere, ezaguna den gatazka bat izanik, iruditzen zait hedabideek gaiari ematen dioten trataera azalekoa izateaz gain, okerra izaten dela. Horregatik hedabideek eskaintzen duten informaziotik aldendu, eta iturri anitzetik edanez ikuspegi sakonagoa eta osoagoa landu nahi izan dut. Proiektuaren hasierako helburua gaur egun dagoen gatazkaren aurrekarien analisi sakon bat egitea zen Palestina bezala ezagutzen den, eta gaur egun Israelgo Estatu, Zisjordania, Ekialdeko Jerusalem eta Gaza hartzen dituen eremuaren baitan. Horretarako, historia eta aurrekariak erabili ditut kontakizun ahalik eta argigarriena osatzeko. Argigarriena, izan ere atzera egin, eta urrunetik bi aldeak parean jarriz objektiboa izatea iritzi eta ikuspegi bat garatu gabe, ezinezkotzat ikusten nuelako hasieratik. Mota honetako gatazka luze eta gogorrean zaila izaten delako politika eta ideologiaren zurrunbiloak ez irenstea.

Gradu amaierako lan honen helburua beraz, arabiar eta israeldarren arteko gatazkaren jatorri eta arrazoiak bilatu eta ulertzea izan da. Gatazka gehienetan bezala, bi dira aurrez aurre dauden taldeak: arabiarak eta israeldarrak kasu honetan. Biek Palestina bezala ezagutzen den eskualdearen jabe “legitimoak” direla aldarrikatzen dute. Ondorioz, egoera ulertze aldera, bi aldeen historia, mugimendu politikoak eta gatazkan egindakoak aztertzea zen nire helburua. Ikerketarekin hasi nintzen momentuan, ordea, ohartu nintzen aurrean nuen zeregina handiegia zela. Informazio eta liburu kopuruaz gain, bi ikuspegi ere baziren. Bakoitza bere historia eta kronologia propioarekin. Hots, bi aldeen ikerketa sakon batek gradu amaierako lanaren mugak gaindituko zituela, eta laburtu ezker azalean geratuko nintzela. Ondorioz, lan honetan bi aldeen azterketa egin beharrean, israeldarren kasuan jarri dut arreta berezia.

Uste dut azterketa sakonagoa egiteko aukera emateaz gain, juduek eta batez ere sionistek izandako prozesua, orokorrean gizartean ezezaguna den ikuspegi batetik aztertzekeo baliagarria izango zela. Herri juduaren historia lantzen hasi nintzenean, ohartu bainintzen zeinen mugatua den juduak Palestinan ezartzera bultzatu zituzten faktoreen ezagutza. Lan franko, eta aditu asko dago gaur egungo Palestinaren inguruan idatzi duena, ostera gutxitan agertzen da egoera horretara bultzatu dituzten arrazoiak. Izan ere, askorentzat arabiar eta israeldarren arteko gatazka 1948an hasi zen, baina juduek historian zehar, zehazki Europan XIX. mendetik aurrera bizitakoak, sakonki eragin zuen “juduen etxea” izan behar zuen estatuaren agerpenean. Bestalde, juduen historiaren inguruan ohartu nintzen informazio egon badago ere, ezjakintasuna handia da, eta estereotipo zein kondairak ohikoak dira. Horregatik, erabakia hartu nuen, aztertzekeo juduak Palestinan ezartzera zerk bultzatu zituen, hauen historiak nola eragin zuen horretan, eta kanpoko agenteek izan zuten garrantzia. Ez neukan, eta ez daukat esperantzarik palestinarren historia gutxietsi edo desagerrarazteko –bitxia bada ere, hori da sionismoak egin zuena-. Are gehiago, gatazka bat ulertzekeo bi bertsioak ezagutzea ezinbestekoa da. Kasu honetan baina, lan honek ez du ematen biak sakon lantzekeo, eta hori egin ezean, nik neuk kritikatuak azaleko azalpen bat bihurtuko zen zuen aurrean duzuen ikerketa hau.

Ikerketa juduen ikuspegitik landuko nuela argi izan nuenean, komunitate erlijioso zabal eta oparo hori Palestinan ezartzeko proiektuarekin lotzen zuen ikergai bat

behar nuen. Izan ere, komunitate erlijioso horren baitan, Palestinan estatu judu bat ezartzearen ideia gutxi batzuen aukera izan zen hasiera batean, nahiz eta gaur egun babes zabalagoa izan munduko juduen artean. Hori horrela sionismoak behar zuen izan ikergaia. Mugimendu nazionalista hori izan baitzen judu komunitatearen baitan, garaiko egoera sozio-politikoez baliatuz juduentzako estatu bat sortzeko prozesua abian jarri zuena. Beste zenbait mugimendu izan ziren Europako judu komunitateetan, baina sionismoa izan zen Israelgo Estatu gaur egun existitzearen arrazoi nagusia. Mugimendu honen azterketa beraz, ezinbestekoa da gatazka honetan juduen ikuspegia ulertzeko. Sionismoa ardatz izateak bestalde, pendulu baten antzera, juduen historian atzera eta aurrera egiteko aukera eskaini dit. Atzera eginez, Israelgo Estatuaren sorrerara bultzatu duten gertakariak aztertzeko gai izan naiz, Israelgo Estatuaren legitimotasuna aldarrikatzeko erabili dituzten aurrekari historikoak ulertzeko bidea izanik. Atzera egin dut historian, sionistek eraikitako historiografia nazionala alderatzeko Ekialde Hurbileko antzinaroko gertakariekin. Baita Bibliaren izaera eta bere istorioen jatorria ulertzeko ere. Berez, sionistentzat historiako edozein pasarteren balio bera baitu. Beti ere, beraien helburu nazionala lortzea –Israelgo Estatuaren sorrera eta legezkotzea- ahalbidetzen badu. Historiografia nazional hori zein den, eta nola moldatu duten ulertzeko ikerketa honen lehen atalean juduen historia aztertu dut. Antzinarotik XIX. mende arteko tartea aukeratu dut; sionismoa sortu arte hain zuzen ere. Izan ere, denbora tarte horretan herri juduak bizitako zenbait gertakari erabili zituen sionismoak bere diskurtsoa eratzeko. Gertakari horiek juduen erbestea, lurrarekiko lotura eta herri bakarraren ideia indartzeko erabili ziren.

Atzera egin dudana bezala, sionismoa sortu eta hurrengo urteetan mugimenduak izandako eboluzioa ere aztertu dut. Ikerketaren bigarren zatian, behin oinarri historikoa aztertuta, helburua sionismoak erabilitako diskurtsoak ikertzea izan da. Izan ere, sionismoaren pentsalari ezberdinen ikuspegiak historiografia nazionalarekin txertatzean, bakoitzak mugimenduari forma propioa eman zion. Ikuspegi horien alderaketak sionismoaren baitan gai sozial eta politikoetan zuten jarrera erakustez gain (arabiarrekiko, nazioarteko potentziekiko, lanarekiko, gizarte antolaketarekiko...), sionisten arteko desberdintasunak azalertzeko baliagarria izan da. Azkenik, aurreko guztia Israelgo Estatuan nola gauzatzen zen ulertzeko, sionistek bultzatutako lehen emigrazioetatik 1948ko gerra arteko kronologia landu dut. Abstraktua zen mugimendu nazionalista baten proiektua, erreal bihurtzean abiatu baitzen gaur egun israeldar eta arabiarren arteko liskarrak bezala ezagutzen den gatazka.

Sionismoa da beraz ikerketa honen erdigunea. Arrazoia sinplea da: mugimendu politiko bezala lortutakoa ikaragarria da. Gertakari politiko eta sozial izugarria izan baitzen Palestinan ezartzeko ekimena aurrera eramatea. Ez hori bakarrik, Israelgo Estatuaren agerpenak gaur egun arte Ekialde Hurbileko politika baldintzatu du. Zaila da imajinatzea horrelako prozesurik aurrera eramane zitekeela. Hasiera batean indarrak ez zuen mugimendu batek, gutxika, judu komunitatea bereganatu erakarri zuen, eta naziotasun sentimendua garatu zuen komunitate horretan inongo lurrik izan gabe. Are gehiago, mundu osoko juduengan ideia bera txertatzeko gai izan zen. Historian zehar sortu diren nazio-estatu guztien kasuekin alderatuz, hauek eremu geografiko bat oinarri eratu ziren. Independentzia, elkartzeko, zein bereganatze guztietan parte ziren agenteak gutxi gora behera zehaztutako lurralde batean bizi ziren. Israelgo Estatuaren kasuan ordea, sorrera batez ari gara; sionistek, mendeetan zehar bakarrik lotura sentimentalak izan zituzteneko lurralde batean, beraien egunerokoa eragin zuten hainbat faktorek bultzatuta, estatu berri bat eraiki zuten hutsetik. Ordu arte juduen presentzia Ekialde Hurbilean komunitate erlijioso oso txiki batzuetara mugatzen zen. Beraz, mugimendu nazionalista batek abiatutako prozesu bat da, baina arlo askotan kolonialismo

europarraren zantzuak ditu. Ondorioz, prozesu berdingabea bihurtu da Israelen sorrera, eta ikerketa ezinbestekoa gatazkaren izaera ulertzeko.

Laburbilduz, antzinarotik sinesmen judua zuten komunitateen historia ezagutu beharra dago ulertzeko gaur egun sionistek Palestinarekiko aldarrikatzen dituzten eskubideen jatorria, eta ondorioz Israelgo Estatuaren historiografia nazionalaren “egiazkotasuna” frogatzeko. Bestalde, sionismoa ardatz, aurrera egin behar da denboran mugimendu honek abiatutako prozesua ulertzeko. 1897an Lehen Kongresu Sionista ospatzen denetik, 1948an Israelgo Estatuaren eratu arte, prozesu politiko luze bat abiatzen da, eta historiografia nazionalak sionismoaren ikuspegia zehaztu zuen antzera, prozesu honek sionismoaren jarrera moldatu zuen, eta azkenik Israelgo Estatuaren izaera zehaztu zuen.

Azkenik, eta ikerketan murgildu aurretik, eskerrak eman nahi dizkiot nire gradu amaierako lanaren zuzendariari, Xabier Zabaltzari. Bere laguntza gabe, uste dut lan hau mahaigaineratu dudan moduan egitea ezinezkoa izango zela. Gai ezezagun bat aukeratu, eta azalpen azaleko bat egin beharrian, bere zuzendaritzak gai horren barneko atal ezezagun batean murgildu eta sakontzen lagundu dit. Izan ere, behar izan dudan guztietan hor izan da. Bai telefonoaren, posta elektronikoaren edo tutoretzen bidez. Unean uneko zalantzekin lagundu izana oso garrantzitsua izan da lana bide onetik eramateko. Era berean, arabiar eta israeldarren arteko liskarren inguruko bibliografi zabalean, informazio egokia aukeratzen lagundu dit. Azkenik, bion interesa gaiarekiko, eta batez ere bere ezagutza zabaltzeko nahia dela eta, prozesu osoa giro bikainean joan da.

2. MARKO TEORIKOA

I. Die Judenfrage

Arabiar eta israeldarren arteko gatazkan, ezinbestean juduez hitz egin beharra dago. Baina, nor ote da judua? Nazio bateko kidea, talde erlijioso batekoa, “arraza” bat? Galdera horri erantzuteko garai eta toki bakoitzean juduak identifikatzeko arau edo usadio ezberdinak erabili dira. Errabinoitzak osatzen duen buruzagitza erlijiosoarentzat, esaterako, judutasuna amaren partetik jasotzen da. Erregimen Naziarentzat, ostera, arbaso juduak zituena zen judua, nahiz eta sinestuna ez izan. Bi kasu horiek juduak talde bezala definitzeko batasun faltaren erakusle dira, baita historian zehar juduak banatu eta isolatzeko nahiarena ere. Identitate judua batzuetan ezarria zen, Europan Erdi Aroan esaterako, eta besteetan juduek beraien bultzatua. Edonola ere, definizio eza hori dela eta, juduek lortu dute beste komunitate erlijioso batzuek izan ez duten estatus berezia. Beraien inguruan sortu dira mito, kondaira eta teoria ugari, batez ere Europan. Ondorioz, juduak milaka urtez bereizi gabeko herri bat diren ideia indartu zen, ez jentilen artean soilik baita XIX. mendean sortutako mugimendu politiko eta elkarte juduetan ere. Herentzia horrek Palestinako lurretan bizi zirenen oinordeko zuzenak diren ideia ekarri zuen, eta gaur egun dagoen gatazkaren oinarria bihurtu da.

Juduak beraz, talde erlijioso bat baino, herri bat diren ideia sortzeko, erlijiotik harago dauden faktoreen beharra dago. Juduen kasuan hiru izan dira nagusiak: ekonomia, “arraza” eta botere erlijioso-etnikoa¹. Ekonomiarena aski ezaguna da, eta gaur egun ere gure kulturaren parte bihurtu da juduak finantzari eta mailegu emaile apartak diren ideia. Erdi Aroan hasi zen joera hau. Kristautasunak lukurreria debekatzen zuen, eta ondorioz juduak ziren bakarrak maileguak eman eta interesak eskatu ahal zituztenak. Horrek maila ekonomikoan gora egiteko aukera eskaintzeaz gain, gainontzeko herritarren mesfidantza eta gorrotoa eragin zuen; juduak negozioarekin eta finantzekin zuzenean erlazionatuz. Hala ere, estereotipotik harago, judu guztiak ekonomian iaioak diren ideia ez da zuzena. Rothschild bezalako bankari dinastiak XIX. mendetik gaur egun arte iraun badu ere, Europan bizi ziren judu gehienak, garai hartako Polonia eta Ekialdeko Europako *yiddish* komunitateak esaterako, ez ziren finantza munduan aritu eta gehienak egoera ekonomiko apalean bizi ziren.

“Arrazaren” ideia ere oso indartsua izan zen. Faktore hau, antisemitismoa bezala ezagutu zen mugimendu arrazistaren oinarria da. Antisemitentzat juduak ez dira europar “arrazaren” parte, horren azpiko “arraza” batena baizik. Antisemitismoaren helburua, erlijio bereizketa baztertu zenean, juduak *goy*-etatik banatzeko modu berri bat bilatzea zen. XIX. mendean aukera paregabea izan zuten nazionalismoen sorreran “arrazaren” eta jatorriaren teoriak garatu zituztenean. Laster frogatu zen ordea, sasi-zientzia berri hori erabat okerra zela. Juduen artean aniztasun genetikoak izugarria da. Ez dago bereizgarri fisiko edo biologikorik bestengandik desberdintzen dituen. Teoria “arrazialak” ekarri zituen sarraskien ondorioz, batez ere Bigarren Mundu Gerran, alboratu egin da. Orain etnia edo herri juduaz hitz egiten da. Bai juduei arraza deritzenek eta bai herri edo etnia deritzenek ideia berbera defendatzen dute: munduko judu guztiak duela bi mila urte Palestinako lurretan bizi zirenen ondorengo zuzenak

¹ Talde identitatea ez zuten bakarrik juduek sortu, ostera, Erdi Aroan, herrialde kristauetan, komunitate itxietan bizitzera derrigortuta zeudenez herri bereizi bat osatzen zuten ideia zabaldu zen. Hortik abiatu zen talde erlijioso bat baino zerbait gehiago diren ideia, eta judua nor den inguruko eztabida. DE LANGE, Nicholas: *El pueblo judío*, Folio, Bartzelona, 2011 [2008], 78. or.

direla, eta mendeetan erbestean bizi izan direla. Sionismoak ere ideia berbera defendatzen du. Israelgo Estatuaren izatea justifikatzeko, juduak jatorria Palestinan duen, eta bi mila urtez aldaketa gabe mantendu den herria direla aldarrikatzen du.

Azkenik, bazegoen faktore bat besteak baino baliagarriagoa suertatu zena: entitate nazional bat osatzen zutela zentzu etniko eta erlijiosoan. Ideia hau errabinoen agintean oinarritzen zen. Askorentzat, juduek komunitate itxiak osatzen zituzten heinean, eta horien aginte erlijioso zein judiziala errabinoen esku zegoenez, hauek nolabaiteko gobernu bat osatzen zuten. Estatu bat estatu baten barruan. Zentzu batean hori egia bazen ere, egoera hori kristauak ezarritako bazterketaren ondorio zen, eta ez beraiek bilatutako independentzia politiko batena. Juduak ghettoetan bizi ziren, eta bizitza arruntetik baztertuta egotean komunitateko jakintsuengan bilatu zuten agintea, errabinoengan hain zuten. Bestalde, errabinoen boterea komunitate bakoitzera mugatzen zen, eta ez zegoen aginte bateratu edo nazional bat musulmanen kalifa edo katolikoen aita santuaren pareko². Zaila da beraz faktore nagusi horietan (“arrazan”, etnial, erlijioan eta abarretan) judu guztiak batzen dituen zerbait aurkitzea. Edonola ere, juduek Europako gizarteetan asimilatzekeo prozesuaren porrotaren ostean nortasun eta identitate nazionalaren ideia bereganatu zuten, eta XIX. mende amaieran mugimendu nazionalista propioak sortu zituzten. Bundismoa eta sionismoa, biak XIX. mendeko azken urteetan sortuak. Lehenak estatu gabeko nazio judu bat aldarrikatzen zuten, hizkuntza eta kultura *yiddish*-arekin. Bigarrenak juduek gehiengoak ziren estatu bat sortzeko beharra. Sionismoa izan zen bere helburua lortu zuena eta *aliyah* (emigratio juduak Palestinara) ezberdinen bitartez Palestinan komunitate judu bat ezartzea lortu zuten. Beranduago Israelgo Estatuaren ernamuina izango zena.

Juduen artean nazio bat bihurtzen duten ezaugarriak aurkitu ezin bazen, agian estatu judu baten sorrerak hori guztia alda zezakeen. Zoritxarrez, nortasun eta identitatearen inguruko eztabaida ez zen bukatu Israelgo Estatuaren sorrerarekin 1948an. Juduentzako estatu baten agerpenak ere ez zuten lortu juduek nazio bakar eta berdinen parte izatea. Definizioz Israelgo Estatu munduko judu guztien etxea da, nahi duena bertara joan eta eskubide osoko herritar bihurtu daiteke. Hala ere, munduan zehar bizi diren judu gehienek nahiago izan dute beraien jatorrizko herrialdeetan bizi³. Nahiz eta, ideologikoki, eta askotan ekonomikoki ere Israelgo Estatu babestu. Bestalde, Israelen bertan ere banaketa handia dago sekularren eta erlijiosoaren artean. Israelgo Estatuan juduak, laiko zein erlijioso, judu eta israeldar sentitzen dira. Hala ere, estatuaren ikuskera zeharo ezberdina dute bi aldeek. Desberdintasun nagusia beraz, erlijioari egunerokoan ematen dioten garrantzia da. Kontraesan hori posible da sekularrengan, alde batetik Biblia Israelgo historiografiaren parte nagusi bihurtu delako, eta bestetik ospakizun eta gainerako gertakari erlijiosoak israeldarren kulturaren parte direlako. Pentsamolde ezberdineko juduen artean banaketaz gain, Israelen gutxiengoak gizartearen zati esanguratsua osatzen dute, %25 inguru. Juduez gain musulmanak, kristauak eta druzoak bizi dira. Nahiz eta, Israelgo herritarrak izanik legalki juduen eskubide berberak dituzten, errealitatea zeharo ezberdina da. Esanguratsua da esaterako soldaduskaren kasua. Israelen soldaduska israeldarren bizitzaren parte oso garrantzitsua da. Gazte guztiek armadatik pasatu behar dute -gizonek hiru urtez eta emakumeek bat-.

² Errabinoen boterea tokian tokikoa zen, eta aginte bateratu horren erdigunea *Talmud*-a zen. Erdi Aroan ghettoetan errabinoen boterea handia zen, baina Aro Modernoan botere hori galduz joan ziren. Beraien agintea gai erlijiosoetara mugatu zen, eta ortodoxiaren aurkako mugimenduak agertu ziren. DE LANGE, *op. cit.*, 97. or.

³ Munduan 13 milioi judu daude gutxienez; horietatik 6 milioi Israelen bizi dira, eta 5,7 milioi AEBetan. Frantziak, Kanadak eta Erresuma Batuak jarraitzen diete. Gainontzeko herrialdetan judu populazioa ez da heltzen milioi erdira.

Ostean erreserbara igarotzen dira. Zerbitzu militarra egiteagatik onurak jasotzen dituzte, eta lana lortzea errazago zaie. Israelgo musulmanak ordea, ez dituzte deitzen zerbitzu militarra egiteko. Israelgo Estatuak, judu guztien etxetzat hartu bada ere, ez da herri judu bateratu baten erakusle, ez eta juduak bakarrik bizi diren estatu bat ere.

Historiako gertakari sozial, politiko eta ekonomikoek zaildu egin dute judua nor den definitzea. Sionismoa ez da nahiko judu guztiak batzeko, ez eta erlijioa gaur egun ere. Talde horietako baten parte ez izateak ez du esan nahi pertsona bat judua ez denik. Hala ere, biek eskaintzen dute aukera bizi judu bat aurrera eramateko. Zalantza, ezjakintasun eta duda guzti hauen aurrean historia da gaur egun juduen jatorria ulertzeko bidea. Israelgo Estatuaren agerpena ulertzeko ere ezinbesteko da historian murgiltzea. Alde batetik palestinarrena, eskualdetik pasatutako inperio eta erreinuen historiaren bitartez ezagutzen dena, eta bestetik juduena, gorabehera handikoa eta Palestinan abiatu zena, baina, Europar garatu eta eragin handia izan zuena.

1.1. Herri juduaren historia

Historian zehar juduak mundu osotik barreiatutako herri bezala ezagun izan dira. K.a. 587an babiloniarrek Judako Erreinua konkistatu zutenetik 1948 arte, ez dute estatu propiorik izan gaurko Ekialde Hurbilean. Tartean, Hasmonearren dinastiak (k.a. 134 - k.a. 63) autonomia eta botere handia lortu zuen, baina beti Seleukotar eta Erromatar Inperioen kontrolpean. Izan ziren, gainera, juduek boterea izan zuten ustezko beste estatu batzuk k.o. I mendetik aurrera; Yemengo hego-ekialdeko Himyar Erreinua, Afrika iparraldeko erreinu berebereak eta Itsaso Beltzaren eta Don ibaiaren artean aurkitzen zen Khazariako Erreinua, baina denak gaurko Israel/Palestatatik aparte. Erreinu horien guztien agerpena judaismoaren zabalkundearen ondorio zuzena izan ziren, eta proselitoen erresumak bezala ezagutzen dira. Bertako herritarrak eta eliteak, kasuan kasu, judaismora konbertitu ziren. Erreinu horien inguruko informazioa oso urria da ordea, eta erlijioaren zabalkundearen erakusle diren heinean Palestinatik kanporatutako herri judu banaezin eta bakarraren ideiaen aurkakoak dira. Hori dela eta, XX. mendetik aurrera ikerketak alde batera utzi ziren⁴.

Garaiaren eta egoeraren arabera juduek egoera ezberdinak bizi izan dituzte, baina kasu gehienetan gutxiengoa izan dira, eta askotan jazarpen handia jasan dute. Herrialde ezberdinetan bizitako esperientzien ondorioz hizkuntza, ohitura eta usadio ezberdinak garatu dituzte. Esan daiteke beraz, juduak bizi diren estatuaren historiaren parte direla. Hala ere, munduko judu guztiak batzen dituen historia komun bat ere badute. Historia horri hasiera bat jartzea ordea, zaila da. K.a 332an Alexandro Handiak Palestina konkistatu, eta eragin heleniarra zabaldu zuen arte informazio falta handia dago. Biblia da ondorioz herri juduaren erreferentzia nagusia. Ondoren etorritakoek ere, historialari heleniarrak barne, berori erabili zuten erreferentzia gisa, eta gaur egun ere Israelgo Estatuaren hezkuntza sistemaren, eta historiografia ofizialaren ardatza da. Biblia ordea, ez da historia liburua; bertan batzen diren istorioek oinarri historikoa izan dezakete, baina, funtsean k.a VII mendetik aurrera egindako moldaketak dira. Helburu nagusia, yahwismoa –geroko judaismoaren aurrekaria- indartu, eta bultzatzea zen. Gaur egun ere tresna bilakatu da, juduek, jainkoak aukeratutako herria direla justifikatuz, Palestinako lurren gaineko jabetza aldarrikatzeko.

⁴ Sionismoak, hasiera bateko interesa alde batera lagata, baztertu egin zuen erreinu horien azterketa, juduen batasun etnografikorik ez zela erakusten zuelako. Era berean askhenaziak Palestinatik Erromara, eta hortik Europa Erdialdera emigratu zuten teoria ezeztatzen zuen. SAND, Shlomo: *La invención del pueblo judío*, Akal, Madril, 2011 [2008]. 268. or.

I.2. Biblia juduen historian

Biblia juduen historiaren oinarri nagusietako bat da. Garai heleniarraren aurretik zegoen informazio iturri nagusia izateaz gain, XIX. mendetik aurrera herri juduaren historia osatzeko erabili da. Ez dago argi noiz osatu zen gaur egun ezagutzen dugun Biblia. Ustez, parte gehienak k.a. VII. mendean Jerusalemen, Judako Erreinuko hiriburuan, idatzi ziren; beste batzuk zaharragoak dira, eta beste batzuk berriagoak. Biblia bilduma bezala osatzearen helburua judaismoaren doktrina berriak zabaldu, eta erlijioa indartzea zen⁵. Nazionalismoen agerpenakerin, Bibliak erlijiotik mundu sekularrera egin zuen jauzi. Nazionalismo guztien hastapenetan gertatu den bezala, juduek jatorri komun bat bilatu beharra zuten; mito, kondaira, gertakari historikoak, eta horietatik judu guztiak batzen dituen *continuum* bat sortu. Bibliak eskaini zien lehen historialari juduei aukera hori. Zehazki, Heinrich Graetz (1817-1891) izan zen lehena. 1853 eta 1875 urteen artean argitaratu zuen *Geschichte der Juden* liburua. Sionismoaren oinarri izango zen lan honek etenik gabeko kontakizun bat sortu zuen hebrearrek Kanaan konkistatu zutenetik XIX. mende arte. Ondorioz, sionismoak Palestinako lurren gaineko eskubide historikoak aldarrikatzeko behar zuen justifikazio historikoan bihurtu zen Graetzen liburua. Izan ere, Antzinaroan juduak Ekialde Hurbilean presente egon badira ere, erlijio baten jarraitzaileak izanik hauen historia ez da mugatu eremu geografiko zehatz batera. Ondorioz, mundu osoan barreiatutako talde erlijioso batek lur eremu baten gaineko aldarrikapenak izatea zaila da. Horregatik, nazionalitate guztiek bezala, lur eremu bati lotutako historia nazionala ezinbestekoa zen.

Hasiera data bat jartzea zaila bada ere, hebrearrek Kanaan izeneko lurretan bizi zirela ziurra da. Eufrates eta Nilo ibaiaren arteko eremuan bizi ziren tribuak izan ziren yahwismoa⁶ jarraitu zuten lehenak. Hasiera bateko tribu hebrearren sinesmenak gaur egungo judaismotik urrun aurkitzen ziren. Garabidean zegoen erlijioa izanik, inguruko tribu eta herrien sinesmenak maiz nahasten ziren. Eskualde osoan ez zegoen aginte indartsurik eta bi potentzien eraginpean bizi ziren: Asiria eta Egipto. Bi erreinu osatu ziren garai horretan: Israel eta Juda. Lehena iparraldean, bietatik boteretsuena; Bestea Hegoaldean, Jerusalem hiriburu zuen eta Israelgo Erreina bano ahulagoa zena. Bi erreinuen k.a. 721 urte arte iraun zuten, asiriarrek Israelgo Erreina konkistatu zuten arte. Hegoaldean aurkitzen zen Judako Erreinuak aurrera jarraitu zuen beste 150 urte, baina, bere ahulezia zela eta, asiriarren boterearen itzalpean gobernatu zuen. Konkistaren ostean Judako eliteek eta erreinuko agintariek, Egipto eta Babiloniako inperioetatik urrundu eta burujabetza aldarrikatzeko gaur egun ezagutzen dugun Biblia osatu zuten. Mendeetan zehar bildutako istorio eta kondaira ezberdinak batu zituzten. Helburua Jerusalemeko monarkiaren handitasuna zen, eta hori lortzeko bidea herri juduaren garrantzi historikoaren aldarrikapena izan zen. Gaur egun gertatzen den bezala, agintarien helburu nagusia Kanaaneko lurraren jabetza azpimarratzea zen Bibliaren bitartez. Horrekin batera eskualdeko gainontzeko tribuetatik banatzea nahitaezkoa zen,

⁵ Istorio gehienak aurreko mendeetakoak baziren ere, VII. mendeko Judako Erreinuko egoera sozio-politikora begira idatzi ziren. Horrek ez du esan nahi antzinako Israelek ez zuela historiarik, baizik eta zehazki garai horretan kontakizun horiek bilduma batean batuak eta moldatuak izan zirela. FINKELSTEIN, Israel eta SILBERMAN, Neil Asher: *La Biblia desenterrada*, Siglo XXI, Madril, 2003 [2001], 26. or.

⁶ Israelgo eta Judako erreinuetan Babiloniako erbestera joan arte zuten sinesmena. Hasieran, Yahweh jainko nagusia bazen ere, erlijioa ez zen monoteista. Beste jainko batzuen gurtza ere onartzen zuen. K.a. 586 arte iraun zuen, gutxienez, orduetik aurrera erlijioa monoteista bihurtzen hasi zen.

herri aukeratua bezala aurkeztuz beraien burua. Exodoa izan zen pentsamolde horren oinarri eta lehen istorioa.

Datu arkeologikoetan kontuan izanda ordea, Exodoak ez du oinarri historikorik. Datu gehienek ez dute bat egiten. Aipatzen diren, toki, herri, eta abarrak k.a. VII. mendekoak dira, ez Exodoa gertatu zenekoa⁷. Horrek erakusten du istorioak osagarri historikoak baditu ere, beranduago idatzitakoa dela. Ziurrenik k.a. VII. mendean. Kanaanek konkistarekin beste horrenbeste gertatzen da. Seguruenik lehen hebrearrek Iparraldeko mendietan ezarritako komunitateak osatzen zituzten. Mediterraneoan izandako gertakari sozio-politikoaren ondorioz –Egiptoren ahultzea, Kanaaneko hiri-estatuaren suntsiketa, desertuko herrien erasoak- komunitate hebrear txiki hauek elkartzen hasi ziren babes bila, hebrearren lehen erreinuen agerpena ekarriz. Hori horrela izanik, arkeologiak frogatzen duena, Bibliak dioenaren aurkakoa da. Israel ez zen sortu hebrearrek Kanaaneko hiri-estatuak suntsitu zituztelako, baizik eta Kanaaneko hiri-estatuaren berezko indargaltzearen ondorioz. Hebrearrek ez ziren Egiptotik ihesi joandako herri bat, Kanaaneko artzain komunitate batzuetako kideak baino⁸. Hori horrela, sionismoak baliatzen dituen bi istorio nagusien erabilera alegorikoa deuseztatzen da. Alde batetik, Exodoa eta Europatik Palestinarako immigrazioaren artean egiten duten alderaketa. Bestetik, Kanaaneko konkista eta 1948ko gerrako zein 1967ko Sei Eguneko Gerrako konkisten arteko alderaketa.

Formula behin eta berriz errepikatzen da Testamendu Zaharreko liburu guztietan. Istorioetako elementuak errealak dira, baina, beranduagokoak dira, ia beti k.a. VII mendekoak. Istorio hauek historiaren parte bihurtzeak interes politikoa zuen, eta erabilera ezberdinak izan ditu garai bakoitzean. Idatzi ziren garaian, Judan eta Israelgo Erreinuak izanikoan bizi ziren hebrearren batasuna lortzea zen. Gaur egun ordea, Israelgo historiografia ofizialarentzat, Palestinako gainerako biztanle guztietatik banatzeaz gain, lurraren jabetza aldarrikatzeko balio dio. Esan bezala, Exodoaren eta Kanaaneko konkistaren istorioak oso esanguratsu bihurtu dira sionistentzat. Kontakizun horietan oinarrituz, sionistek uste dute Europatik ihesi joan direla promestutako lurrera, hau bereganatu eta juduentzako estatu bat sortzeko. Baziren ordea beste gertakari batzuk ere, etorkizuneko historiografia juduan zeresan handia izango zutenak.

I.3. Greziarren eta erromatarren eragina

Bibliako erbestea eta hurrengo mendeetan juduen bizitzak aldaketa gutxi jasan zituen. Juduek beraien erritu eta ohiturak mantentzeaz gain, autogobernu mugatua lortu zuten unean uneko agintarien kontrolpean. Aldaketa garrantzitsuena k.a. 140. urtean jazo zen. Judako Erreinuak, denbora laburrez izan bazen ere, independentzia berreskuratu zuen Hasmonearren eskutik. Urteak aurrera egin ahala, Hasmonearren erresuma indartuz joan zen, eta inguruko herrien konkista abiatu zuen. Konkistatutako herritarrak indarrez judaizatu zituzten, eta aurka egiten zieten hiriak suntsitu. K.a. 76. urterako Hasmonearren erreinuak, Juda eta Israelgo erreinuen gehiengo zabalkundera iristea lortu

⁷ Egipton “Israel” hitza Merneptha faraioren estelan aipatzen da lehen aldiz k.a. XIII. mendean. Exodoari dagokionez, ez dago garaiko dokumentu egiptoarrik hebrearren ihesaldia aipatzen duenik. Ez eta Sinaiko penintsulan garai hartako aurkikuntza arkeologikorik ere. Exodoan aipatzen diren hiriak –Eilat, Tel Arad, Qadhesh-Barnea- errealak dira baina garai hartan ez ziren existitzen edo garrantzi gutxi zuten. Judako Erreinuaren garaietan ordea, istorioa idatzi zenean, agertzen diren hiri eta tokiak berebiziko garrantzia zuten. FINKELSTEIN eta SILBERMAN, *op. cit.*, 55. or.

⁸ *Id.*, 133. or.

zuen⁹. Salomon eta Daviden erreinuak -juduentzat eta sionistentzat, juduek inoiz izan dituzten erreinu handienak- ostera ez ziren izan, seguruena, Hasmonearren erreinua baino zabalagoak. Are gehiago, Salomon existitu zenik ez da ziurra, eta Daviden erreinua ustez Jerusalem eta inguruko lurretara mugatzen zen. Hasmonearen erresumak, halaber, gutxi iraun zuen eta k.a. 63an erromatarrek Ponpeioren agindupean Jerusalem konkistatu zuten. Hasmonearren erresumak garrantzia izan du sionismoaren pentsalarien artean. Batez ere, juduen burujabetza eta boterearen erakusle bezala erabili zutelako. Hala ere, sionistek ez dute inoiz alderatu David eta Salomonen erreinuekin, izan ere bi pertsonaia hauen istorioak Bibliakoak diren heinean baliagarriagoak ziren “juduen nazioaren” mugak ezartzeko, justifikazio “sakratua” indartsuagoa zelako. Zer esanik ere, zabalkundearen inguruan. Ezinezkoa zen hamabi tribuen eta herri bakarraren ideia apurtzen zuen zerbait historiografia sionistan sartzea.

Hurrengo 700 urteetan, erromatarrek eta bizantziarrek agindu zuten, zuzen edo zeharka, Palestinako lurretan. Orokorrean garrantzi gutxiko kontuen gain erabakitzen utzi zieten agintari juduei, eta agintariak erromatarrek aukeratzen zituzten. Arazorik egon ezkerko armada erabiltzen zuten *Pax Romana* mantentze aldera. Erromatarren kontrolpean baina, herri juduaren historiografiaren bi gertakari oso garrantzitsu gauzatu ziren. Biak altxamenduak izan ziren, eta horien ondorioek eragin handia izan zuten bai garaiko Judeako biztanleentzat eta baita etorkizuneko Palestinako biztanleentzat ere. Lehen k.o. 66. urtekoa izan zen, eta bigarrena k.o. 132. urtekoa, Simon Bar Kokhbaren altxamendua bezala ezaguna. Lehen altxamenduak porrot egin ostean armada erromatarrek Jerusalemgo tenplua suntsitu zuen, ekintza hori historia juduko mugarri bihurtuz. Are gehiago, tenpluaren suntsiketa Israelgo Estatuaren sorrerako adierazpenean aipatzen da, eta sionistentzat gertakari horrengatik dira kanporatutako herri bat, beraien jatorrizko naziora bueltatzeko zain. Bar Kokhbaren iraultzaren porrotaren ostean bestalde, erromatarrek Judea izena Palestinagatik aldatu zuten, eta probintziak zuen autonomia txikia galdu zuen. Hala ere, bi gertakari horiei lotuta, erbestea da beste ideia esanguratsua. Historiografia juduaren esanetan bi altxamenduen ostean erromatarrek Judeako judu guztiak kanporatu zituzten. Judean bizi ziren judu guztiak inperiotik sakabanatu zituzten, eta Jainkoak emaniko lurrarekiko lotura galdu zuten. Lotura hori burutu duena sionismoa da, Israelgo Estatuaren sorrerarekin. Kanporaketa da, lurralde bat kolonizatu dutela esan beharrean, beraien “etxera” bueltatu direla esateko arrazoiak. Baita Palestinan populazio judurik ez egotearen azalpena ere. Gaur egungo datuek ordea kontrakoa erakusten dute: erromatarrek ez zituzten juduak modu masibo batean kanporatu¹⁰. Gatazka gogorra izateaz gain, tenpluaren suntsiketa bertako biztanleentzat golpe latza izan zen, baina urte batzuen buruan herri eta hiri asko normaltasunera bueltatu ziren.

Kanporatutako herriaren ideia zabaltzearen arrazoi nagusia beraz, beraien lurrera itzulera, herri juduaren berezitasuna eta lurrarekiko lotura aldarrikatzea zen. Juduak aberri gabeko herri bat bihurtuz, Palestinara noiz bueltatuko zain. Errabinoek erbestea erlijioaren eta juduen bizitzaren oinarri bihurtu zuten. Horien ustez, juduak Mesiasen etorreraren zain egon beharra zuten, eta ordu arte erbestean bizitzera behartuta zeuden, fisikoki zein espirituali. Hori da XIX. mende amaiera arte Palestinarako emigrazioa ez

⁹ Erreinu honek lortu zuen zabalkunde handiena. Gaur egungo Israel, Zisjordania, Ekialdeko Jerusalem barne, Gaza, Jordania eta Siriako hegoaldea hartzen zituen. Sionista errebisionistek aldarrikatzen duten Eretz Yisraelek erreinu honen mugak izango zituen.

¹⁰ Ezinezkoa zen Bigarren Tenpluaren suntsiketaren ostean erabateko kanporaketa bat izatea, 36 urte beranduago altxamendu bat izan bazen. Ez eta bigarren kanporaketa bat egotea k.o. I mendean, juduen kultura erlijiosoa bere garai oparoenetako batean murgildu baitzen. SAND, *op. cit.*, 160. or.

bultzatu izanaren arrazoia. Horren ordez, garai hartako juduen emigrazio gune nagusiak Espainia, Mediterraneoko hiriak, Italia, Europa Erdialdea, zein Hego-mendebaldeko Asia ziren. Kristautasunak ere juduen erbestearen ideia zabaldu zuen, jainkoaren zigorra zela aldarrikatuz. Sionistek herri kanporatuaren ideiarekin jarraitu zuten. Gerora, kanporaketaren istorioak sortutako zalantzak argitzeko historialari sionistek, Yitzhak Baer (1888-1980) eta Ben-Zion Dinur (1884-1973) bezalakoek, kanporaketa horren kronologia lausotu zuten. Onartu zuten ez zela erabateko kanporaketarik izan iraultzen ostean, baina, bai autonomia galera. Kanporaketa ordea, 70etik VII. mende artekoa zela uste zuten, musulmanen etorrerarekin batera. Horrek hala ere, kontraesanak sortu zituen sionisten proiektuaren justifikazioan. Izan ere, juduak ez zituzten kanporatu Bigarren Tenpluaren suntsiketaren ostean. Israelgo Estatuaren sorrerako hitzaldian ordea, juduen kanporaketaren ideia azpimarratzen da, eta nola Israelgo lurrera bueltatzeko zain izan diren:

After being forcibly exiled from their land, the people kept faith with it throughout their Dispersion and never ceased to pray and hope for their return to it and for the restoration in it of their political freedom¹¹.

Kontraesanak zirela eta, eta ebidentzia arkeologikoa gero eta ugariagoak, erbestearen historia ez zen berriz sakonean landu. Bi puntu zituzten argi sionisten historiografia nazionalean: Bigarren Tenpluaren suntsiketaren ostean hasi zela kanporaketa, eta juduak behartuak izan zirela alde egitera. Teoria horri esker, kanporatutako herriaren ideia indartu zen, eta horren ondorioz erlijio juduak hurrengo urteetan izandako zabalkundea, zein Palestinako juduak islamera bihurtu zireneko teoriak, alboratu egin ziren historiografia ofizialetik. Sionismoak, haatik, hasiera batean teoria horiek babestu zituen. Palestinako orduko biztanleekin elkarbizitza posible egiten eta estatuaren parte bihurtzeko. Gerora ordea konturatu ziren buruzagi sionistak erbestean bizi izan den herri bereziaren ideiarekin aurka egiten zutela bai zabalkundearen teoriak, zein islamera konbertitutako juduen teoriak.

1.4. *Fellahim*-en teoria: islamera konbertitutako juduak

Sionistek eta Israelgo historiografia ofizialak juduen kanporaketaren teoria defendatu du. Ondorioz, gai gatazkatsua bihurtu da *Eretz Yisraelen* bizi diren “juduen teoria”. Ez *aliyah*-ren batean Israelera joan eta bertan bizi diren juduena, islamera bihurtu ziren Palestinako biztanleena baino. Yitzhak Baer eta Ben-Zion Dinur historialari sionisten esanetan, musulmanen agerpenak bultzatu zituen juduak erbestera VII. mendean. Juduak gehiengo baziren ere, VII. mendea baino lehen jazotako aldaketa politikoek eragina izan zuten Palestinako demografian. K.o. 324. urtean, Palestina protektoratu kristau bihurtu zen, eta ondorioz hainbat judu kristautasunera konbertitu ziren. Nizeako kontzilioan esaterako parte hartzaile ugari zeuden Jerusalem, Gaza, Ashod, edota Lod bezalako hirietatik joanak. Hala ere, kristautasunaren zabalkundeak ez zuen judaismoa Palestinatik desagerrarazi. Beherakada nagusia arabiarren agerpenarekin izan zen, baina, ez Palestinaren suntsipenaren ondorioz. Beherakadaren arrazoi nagusia musulmanen jarrera irekia zela esan daiteke. Islamak erlijio monoteista guztiak onartzen zituen, betiere tributu bat ordaindu ezker. Ez hori bakarrik, judu askoren iritzi, arabiarrek Bizantziar Inperioko zapalkuntzatik libratuko zituzten. Hori gutxi balitz, erlijioen arteko antzekotasunak konbertsioak erraztu zituen, eta musulmana izateak

¹¹ Israel. Ministry of Foreign Affairs: *Declaration of Stablishment of State of Israel*. 1948ko maiatzaren 14a. *Official Gazette*.

tributuak ordaintzetik libratzen zituen. Arrazoi horiengatik pentsatzekoa da judu asko islamera konbertitu zirela. Nolanahi ere, ez daude datu nahiko eta errabinoek zein historialari juduek gaia alde batera utzi zuten. Froga bakarra, Bizantziar Inperioko garaiarekin alderatuz, arabiarren kontrolpean sinagogen eraikuntzan izandako jaitsiera izan daiteke. Hori dela eta, suposatzekoa da judaismotik islamera konbertsio geldoa eta neuriduna gertatu zela.

Prozesu horren ondorioz, hasierako pentsalari sionisten ustetan “herri” beraren parte ziren pertsonak Palestinan jarraitzen zuten; juduak ez baziren ere, Abrahamen ondorengoak zirela uste zuten. 1967an Abraham Polak irakaslea teoria honi aurre egiten saiatu zen. Bere ustetan Palestina nahasmen handiko lurraldea zen, baina, seguru zegoen bertan bizi ziren *fellahim*-ak –nekazariak- antzinako nekazari juduen ondorengoak zirela. Askok landu zuten ideia hau -Israel Belkidek, Ber Borochov-ek, David Ben Gurion-ek eta Yitzhak Ben Zvik besteak beste- Hauen ustez *fellahim*-ak erlijio judutik aldendu baziren ere, Abrahamen ondorengoak izaten jarraitzen zuten, eta beraz sionisten zeregina zen hauek berriz judaismora erakartzea:

Sostener que después de la conquista de Jerusalén por Tito y del fracaso de la rebelión de Bar Kokhba los judíos dejaron de cultivar la tierra de Eretz Israel es demostrar una completa ignorancia sobre la historia y la literatura contemporánea de Israel [...]. Al agricultor judío, como a cualquier otro agricultor, no se le arrancaba tan fácilmente de un suelo que había regado con sus sudor y con el sudor de sus antepasados [...]. A pesar de la represión y del sufrimiento, la población rural permaneció sin cambios¹².

Teoria honen helburua integrazioa lortzea zen, lehenengo emigratu zuten juduen eta auzokide arabiarren artean. *Fellahim*-en teoria erabat deuseztatu zen 1936-39ko altxamendu arabiarraren ostean. Sionistak laster jabetu ziren integrazioa ezinezkoa zela, eta teoria horrekin jarraituz gero eskubide historiko lar eskaintzen zizkietela arabiarrei. Beste behin, erbestearen eta kanporaketaren ideia indartu zuten, jada ez zuen garrantzirik noiz izan zen kanporaketa, garrantzitsua erbeste horren ideia eta horrek zekartzan lurralde eta jabetza eskubideak ziren¹³.

1.5. Judaismoaren zabalkundea

Kanporatuak izan zirelakoaz gain, judu tradizioaren beste mito nagusia herri aukeratua eta bakarrarena da. Historiografia ofizialen arabera, Judeatik kanporatu zutenetik, herri judua erbestean aldagaitz mantendu da, eta ondorioz, Kanaan konkistatu zutenen ondorengo zuzenak dira judu guztiak. Hala ere, k.a. azken urteetan eta k.o. lehenetan erlijioaren zabalkundea handia gertatu zen. Judaismoaren zabalkundea Hasmonearren dinastiarekin hasi zen k.a. II.mendean, eta puntu gorena, ustez, Khazariako Erreinuan – Don ibaiaren eta Itsaso Beltzaren artean aurkitzen zen erreinua- lortu zuen, k.o. VIII. mendean.¹⁴ Judaismoak erlijio monoteista bezala berezkoa zuen- erlijio politeisten jarrera irekiagoaren aldean- bere egia inguruko herriei zabaltzea. Bi arrazoi nagusi zeuden zabalkunderako: dinastia Hasmonearraren boterea, eta kultura heleniarraren eragina. Hasmonearrak Palestinan dinastia bezala ezartzean, lehen aldiz erlijio judua

¹² Ben-Zion Dinur: *Israel in exile* (1958) in SAND, *op. cit.*, 184. or.

¹³ SAND, *op. cit.*, 196-200 or.

¹⁴ IV. mendetik XIII. mende arte iraun zuen Khazariako erreinua. Itsaso Beltzaren eta Kaspiar Itsasoaren arteko eremua kontrolatzen zuen. Iparraldean Kiev arte iristen zen, eta hegoaldean Krimea arte. Erreinua Hasmonearren dinastian abiatutako prosetizazioaren ondorioz jasotako migrazioetatik bihurtu zen judutasunera. SAND, *op. cit.*, 230. or.

erreinu edo gobernu baten parte bihurtu zen. Agintaria, erregea edo *etnarka* kasu honetan, buru erlijioso bihurtu zen, eta beste hainbatek bezala bere botere militar zein politikoaz baliatu zen lurralde berriak eskuratu eta erlijio judua ezartzeko. Hasmonearren erreinuak, hainbat herri bizilagun batu zituen erlijio beraren baitan, judutasuna Ekialde Hurbiletik zabalduz¹⁵.

Zabalkundearen beste arrazoi nagusia kultura heleniarraren eragina izan zen. Judaismoaren eta helenismoaren sinbiosiak, judaismoa erlijio dinamikoagoa bihurtu zuen. Zabalkunde honen testigu bihurtu zen Filon Judua (K.a. 25-K.o. 50) filosofoa. Bere idatzietan behin eta berriz lantzen da proselitismoaren gaia. Judaismoak garai artako gune helenistiko guztietatik zabaldu zen, indar eta zabalkunde handia lortuz: Alexandria, Antiokia, Tesalonika, Damasko... Horren ondorioz, erlijioak hasierako tribu edo eremu zehatz baten muga gainditu, eta unibertsal bihurtu zen. Zabalkundetik aurrera, juduek ez zuten hizkuntza ezta kultura bakarra, nahiz eta denak sentitu judu¹⁶. Historialari erromatarrek jabetu ziren eboluzioaz: “No sé cómo se llegó a darles este título [judíos], pero también se aplica a todo el resto de la humanidad, aunque sea una raza foránea, que adopta sus costumbres”¹⁷.

Helenismoa bultzatzailea izan bazen, Erromako Inperioak prozesua borobildu zuen. Inperioarekin distantziak laburtu egin ziren, eta kultura zein erlijioen arteko nahastea ohiko bihurtu zen. Momentu gorenean juduek inperioaren %7 eta %8 artean osatzen zuten, eta judu hitza Judeako biztanleentzat baino gehiago erlijio hori osatzen zuten guztientzat erabiltzen zen. Zabalkunde juduak, kristauak bezala indar handia izan zuen k.o. lehen mendean. Hala ere, oso garrantzitsua da kontuan hartzea hasierako urte horietan zaila zela kristauen eta juduen artean desberdintzea. Politeismoa beherantz zihoan, eta asko ziren erlijio berrira konbertitu zirenak, nahiz eta kasu honetan ere ezinezkoa zen konbertso kristau eta juduen artean desberdintzea. Aipagarria da bestaldetik, goi mailako erromatarretan artean erlijio monoteisten zabalkunde emakumeen eskutik jazo zela, eta Erroman hasi zen zabalkundeari esker, judaismoa Europa osora igaro zela¹⁸. Proselitismoak eta judaismoaren zabalkundeak IV. mende arte iraun zuen. Behin kristautasuna Inperio Erromatarreko erlijio bihurtuta, zabalkundeak behera egin zuen, eta erlijio berriaren azpian, judaismoa jazarpen handiko garai batera igaro zen¹⁹.

Zabalkundearen ideiak, beste behin, sionismoak erabili nahi zuen erbesteko herri bereziaren teoria deuseztatzen zuen. Aipatutako erreinu eta inperio horien garaietan judaismoak, kristautasunak egin zuen bezala, jarraitzaile berriak lortu bazituen European bizi ziren judu askoren arbasoak ez ziren Palestinan bizi. Europako judu horiek izango ziren XIX. mende amaiera eta XX. zehar sionismoak bultzatuta beraien arbasoen lurraldera bueltatuko zirenak.

¹⁵ SAND, *op. cit.*, 177. or.

¹⁶ SAND, *op. cit.*, 184. or.

¹⁷ Dion Casio: *Historia Romana* in SAND, *op. cit.*, 184. or.

¹⁸ SAND, *op. cit.*, 190. or.

¹⁹ Konstantino I.a enperadorearen agindupean legeak onartu ziren prosetetizazioa geratzeko. Era berean juduei esklabo kristauak izatea debekatu zieten. Inperioko politika berriak, kristauen aldekoak, judu kopurua jaitsi zuten Mediterraneoko lurretan. DE LANGE, *op. cit.*, 20. or.

I.6. Kristautasunaren nagusitasuna eta antijudaismoaren hasiera

Kristautasuna erromatar inperioko erlijio ofizial bihurtzeak, garai berri baten hasiera suposatu zuen juduentzat. Jazarpenaren garaia hasi zen. Orduetik aurrera, Europan bizi ziren juduek bazterkeria sistematikoa jasan zuten ia herrialde eta garai guztietan. Edonola ere, bazterketa horrek fase ezberdinak igaro zituen. Lehenik erlijioan soilik oinarritutako bazterketa zen. Judaismoaren jarraitzaileak ziren pertsegituak, eta sinesmen hori zutelako desberdintzen zuten. Bazterkeria eta gorrotoa baina, eraldatuz joan zen. XVIII. mendetik aurrera erlijioaren eragina beherantz egitearekin batera, bazterketa zehazten zuten irizpide erlijiosoak ere indarra galdu zuten. Orduan, banaketa izaeran, “esentzia juduan”, “arrazan” bilatu zen. Eboluzioa gertatu zen juduen bazterketan. Baina, horrek sortzen zuen biolentzia mantendu egin zen. Hasieratik amaiera arte bortitza izan zen Europako jentilen jarrera juduenganako. Ondorioz, tresna eta aitzakia nagusietako bat bihurtu zen sionistak juduak gehiengoa ziren estatu baten beharrianaz mintzatu zirenean.

Zehazki, IV. mendetik aurrera areagotu zen juduen aurkako jazarpena Europan. Antijudaismoaren hasiera izan zen: juduenganako gorrotoa erlijioan oinarrituta, ez geroan asmatuko zen ustezko arraza batean oinarrituta. Kristaumentzat juduak Jesusen hiltzaileak ziren, eta beraz sinesmen hori jarraitzen zutenak kristauen etsaiak. Asko ziren juduei leporatu zizkieten ekintzak: umeen hilketa erritualak, hostien profanazioa, putzuen pozoitzea, izurriteak... Kristauek uste zuten judutasunaren jarraitzaile guztiek ekintza horiek burutzen zituztela. Elizak bultzatuta, eta agintariek babestuta hizkera oso gogorra erabili zen juduen aurka, askotan indarkeria fisiko bihurtu zena: sinagoga eta liburuen suntsiketa esaterako. Legeak idatzi ziren juduak armadatik eta gobernutik kanpo mantentzeko, epaiak kristauen aurka ekintzengatik. Askok ihes egin zuten Erromatar Inperioren mugetara eta beste batzuek ahal zuten bezala jarraitu zuten²⁰. Inperioren desagertzeak juduen biziraupena bermatu zuen.

Nolanahi ere, VII. menderako erreinu kristau berriek Inperioren bide bera jarraitu zuten. Bataiatze behartuak agindu ziren Bizantzion, Frantzian eta Gaztelan. Kanporaketak gertatu ziren Ingalaterran 1290an, Frantzian 1394an eta Gaztela-Aragoietan 1492an. Gainontzeko estatuetan isolatu egin zituzten, eta lehen ghettoak agertu ziren. Superstizio handia zegoen Erdi Aro osoan zehar juduen inguruan, batez ere, predikatzaile eta elizgizonek zabaldua. Behe mailako elizgizonak ziren gorroto horren bultzatzaile nagusiak, agintari zibilak askotan neurri horien aurka baitzeuden. Orokorrean politika kristauaren helburua, juduak kontrolatuta eta bereizita mantentzea zen. Baziren aldeak Europako estaturen artean. Toki seguruenak Italia, batez ere Napoliko Erreina, eta Ekialdeko Europa ziren. Polonian esaterako, errege familiaren eta nobleen babes zabala izan zuten. Hala ere, horrek ez zituen libratu unean uneko eraso eta diskriminaziotik.

Antijudaismoa, baina, ez zetzan ez eta hurrik eman ere bakarrik bereizkerian. Urbano II.a aita santuak deitutako Lehen Gurutzadan (1095), esaterako, Frantzia eta Alemaniako milaka judu akabatu zituzten. Juduek ez zuten nola babestu, armak edukitzea debekatzen baitzieten, eta horren aurrean tokiko agintarien babesera jotzea baino beste aukerarik ez zuten. Kristauen ideia ez zen ordea, juduak ahalik eta lasterren suntsitzea. Horren ordez, isolamendu eta higadura politika baten alde egin zuten: karga fiskalak, sinagoga berriak eraikitzeko debekuak, esklaboak edukitzeko debekua... Gaztela-Aragoietan eta Portugalen esaterako konbertsioak ere ez ziren nahiko izan. Marranoak –kristautasunera konbertitutako juduak- Espainiako Inkisizioak jazarri

²⁰ Afrika Iparraldera, gaur egungo Irakera eta Asia Txikira ihes egin zuten judu gehienek. DE LANGE, *op. cit.*, 35. or.

zituen XVIII. mende arte; nahiz eta kristauak izan, Inkisizioaren ustetan oraindik judaismoaren jarraitzaile izaten segitzen zuten²¹. Azken kasua judu konbertso baten aurkakoa 1818an izan zen Kordoban.

Lehenago aipatu bezala, garai horretako mugek eta bazterkeriak, juduak mailegu-emaile bihurtzera behartu zituen. Armadatik zein erakundeetatik kanpo, eta lurren jabe izatea debekatuta, hori zen egin zezaketen aktibitate bakarra. Horren ondorioz, herritarren gorrotoa areagotuz. Juduekiko jazarpenak XIX. mende arte iraun zuen. Une horretatik aurrera, antisemitismoak ordezkatu zuen antijudaismoa, “arraza” erlijioagatik ordezkatzuz²². Antisemitismoak bere egin zituen antijudaismoan juduen inguruan sortutako ideia eta mito ugari-. Banaketa teologikoaren amaiera juduen emantzipazioarekin iritsi zen. Emantzipazioak ordea, juduenganako jazarpen mota berri bat ekarri zuen, antisemitismoa, are gogorragoa eta ondorio larriagoak izan zituena. Baina, antijudaismoa bezala antisemitismoa Europako fenomeno izan zen. Ekonomia, “arraza” edo botere ezkutuak bezalako arrazonamenduak erabili baziren ere, horren guztiaren atzean tradizio erlijiosoa zegoen. Europan garatu zen banaketa forma berriak kultura kristauan sortu eta bultzatutako aurreiritzi, beldur eta gorrotoaren ondorio izan zen.

²¹ Benzion Netanyahu (1910-2012) historialariaren ustetan, Inkisizioak marranoen aurka abiatzen zituen “odol garbitasuneko” prozesuak, lehen adibidea izan ziren antijudaismotik antisemitismora pasatu zena. Netanyahuren aburuz, judu konbertsoek kristau izan nahi zuten, eta beraz “arraza” zen hauen aurka egiteko arrazoia, ez erlijioa. EPSTEIN, Barret: “Benzion Netanyahu’s History” in *Tablet Magazine*, 2010eko uztailaren 6a.

²² DE LANGE, *op. cit.*, 34-38 or.

II. Emantzipazio judua eta antisemitismoaren agerpena

Erdi Arotik aro modernorako trantsizioan aldaketa ugari izan ziren Europan. Nagusia erlijioaren eta estatuaren arteko banaketa izan zen. Eliza jada ez zen agintearen jabe, estatuak bere burua gobernatzen zuten. Gizartea sistema estamental zurrun batetik gizarte antolaketa berri batera pasatzen hasi zen. Estatuak ez ziren erregeen jabetzak, eta pertsonak mendekoak izatetik estatuko herritarrak izatera pasatu ziren. Zentzu horretan juduak bere sinesmenagatik baztertzeak ez zuen lekurik Europan garatzen ari zen antolamendu sistema berrian. Laster jabetu ziren horretaz judu komunitateak zituzten estatu askotako agintariak. Juduek emantzipatu beharra zuten, beraien erlijiotik aldenduz. Estatuko herritar bilakatu behar zuten, eta gainontzeko herritarren arau berberak bete behar zituzten. Agintariak ez zuten nahi juduek, errabinoen agintea jarraitzen zuten heinean, estatu bat osatzea estatuaren barnean. Europako nazio guztietan pixkanaka-pixkanaka juduei inposatutako muga juridikoak desagertzen hasi ziren (arropa berezia janztea, ghettoetan bizitzea, judu bezala identifikatzea, kargu publikoetan lan egiteko debekua). Juduek ere gainontzeko herritarrek bezala bizi nahi zuten, eta errealitate berrira moldatzen hasi ziren.

Emantzipazioak ordea denak berdin tratatzea suposatzen zuen, eta askorentzat hori ulertezina zen. Ideia horrek kristau asko estutu zituen: “Nola desberdinu zitezkeen orain kristau onak juduetatik?”. Juduak bereizita bizi izan ziren mendeetan zehar. Baina, eliza indarra galtzen hasia zen, eta antzinako rolek ez zuten gehiago balio. Bereizketa mantentzea beraz ezinbestekoa zen kristautentzat, baina, desberdintasun ikusgarria (sinesmena, banaketa erlijiosoa) muga juridikoekin desagertuta, ikusezina zen “esentzia” judua beharrezkoa zen. “Arrazan” eta jatorrian bilatu zuten “esentzia”. Antijudaismotik antisemitismora egin zen jauzi. Bereizketaren oinarri erlijioa izatetik, “arraza” izatera pasatuz. Antijudaismoan juduak errudunak ziren beraien erlijioagatik; kristautentzat juduen erlijioa Jesusen heriotzaren errudun da. Antisemitismoak, ordea, erlijioa alde batera utzi eta juduak “beheko arraza” baten kide bihurtu zituen.

Ez da ahaztu behar antisemitismoa agertu zen garaian, XVIII. mende amaiera eta XIX. mende hasieran, Europa errotik astindu zuten gertakari ugari jazo zirela. Industri Iraultza XIX. mende hasieran, Iraultza Frantsesa 1789an, hirien hazkundera, burgesia elite berri bihurtzea, nazionalismoen agerpena... Borroka luze bat abiatu zen aldaketa nahi zutenen, eta antzinako sistema mantendu nahi zutenen artean. Europako gizartea eraldatu zuten aldaketek juduei aukera berriak eskaini zizkieten. Baita arrisku berriak ere, modernitate eta tradizioaren gerran erdian geratu baitziren. Gizarteak, defentsa mekanismoak martxan jarri zituen aldaketen aurrean. Errudunak bilatu behar ziren gertatzen ari zen guztiarentzat. Zentzu horretan XIX. mendea ezin aproposagoa bihurtu zen antisemitismoa garatu eta zabaltzeko.

II.1. Antisemitismoaren hastapenak

Antisemitismoa ia Europa osoan abiatu bazen ere, modu desberdinean garatu zen herrialde bakoitzean. Kontuan hartu behar da XIX. mendean Austriak, Poloniak edo Errusiak judu komunitate handiak zituztela. Frantziak edo Erresuma Batuak ordea oso judu gutxi zituzten, eta beste herrialde batzuetan, Espainian edo Portugalen esaterako, ez zegoen judu komunitaterik Erdi Aroko kanporaketan ostetik. Ondorioz antisemitismoak aldaera ezberdinak izan zituen herrialdeko egoera soziopolitikoaren arabera. Antisemitismoak XIX. mende erditik XX. mende erdi arte iraun zuen Europan; hain zuzen II. Mundu Gerra bukatu arte. Gerra horretan naziek juduen aurka bideratutako jazarpen sistematikoa mende luze iraun zuen antisemitismoaren azken

pausua izan zen. Horren ostean gaia tabu bihurtu zen. Hala ere, 1945ean II. Mundu Gerra bukatu zenean, Europako judu komunitate askok argi zeukaten emantzipazioak abiatutako prozesua ez zela bete, eta ondorioz Europatik emigratu behar zutela. Egoera horretan sionismoa atera zen garaile. Hori dela eta, ezinbestekoa da ulertzea sionismoa, eta antisemitismoa elkarrekin joan direla. Sionismoa antisemitismoaren ondorio izan baitzen, eta antisemitismoa sionismoak bere helburuak lortzeko aitzakia paregabea bihurtu zelako.

Edonola ere, antisemitismoak, bere azken mugara iritsi baino lehen, eboluzio luzea bizi zuen. Garapen horretan indartuz eta txertatuz joan zen gizartean. Teoria ezberdinak garatu ziren juduen izaera edo “esentziaren” inguruan. Herritar arruntez gain, agintari eta pentsalari asko ere, hezkuntza maila handiagoa eta mundu ikuskera zabalagoa izanda ere, joko berean erori ziren. Wagner, Ford, Voltaire, edo Hegel bezalakoek modu batean edo bestean antisemitismoaren teoria ezberdinak defendatu zituzten. Nagusia juduak mundu mailako konspirazio bat gidatzen zutela zen. Teoria hau aro garaikideko gertakari nagusietan ageri da: Iraultza Frantsesean, Lehen Mundu Gerran, Sobietar Iraultzan... Konspirazio teoriaren arabera juduek Europako aginte sistema tradizionala suntsitu nahi zuten, herrialdeen arteko gerrak piztuz. Nazioak suntsitzea zen beraien helburua, horrela momentu aproposa iristerakoan estatu guztiak juduen agindupean zegoen estatu bakarrean batzeko.

Konspirazio teoriak berebiziko arrakasta lortzen zuen Europaren baitan boterea kolokan jartzen zen bakoitzean. Aurretik aipatu bezala, XIX. mendea garai ezin hobea zen konspirazioa oinarri zuten teoriak garatzeko. Iraultza Frantsesaren ostean aldaketa ugari gertatu ziren Europako herrialdeetan. Elizaren boterea beherantz zihoan eta estatuak gizarte laikoago baterako bidea abiatu zuen. Industri Iraultzaren ondorioz, herrixketatik hirietara emigratu zuten askok eta askok. Migrazio mugimendu handiak gertatu ziren estatuen barnean. Landa-guneko bizi lasaia eta aldaketa gabekoa, hiriguneetako zalaparta eta bizitasunak ordezkatu zituen. Hirietan, langile mugimenduak agertu ziren, eta herritarrak antolatzen hasi ziren. Horrenbeste aldaketaren aurrean, gizartearen zati handi bat galduta sentitu zen. Ordu arte ezagutzen zutena aldatzen ari zen, eta beldurrak konplot bat bazela sinestera bultzatu zituen asko. Antisemitismoak beraz, bete-betean asmatu zuen konspirazio bat antolatzen zuen gobernu judu sekretuaren mitoarekin. Erdi Aroan sortu zen gobernu judu sekretuaren ideia modernizatu zuen, garaiko kezken neurrikoa eginez. Hori lortzeko lehen pausua juduak eta masoiak parekatzea izan zen.

Aipagarria da ordea, emantzipazioak eragindako erreakzioa juduengan. Mendetan zehar zapalduta bizi ostean, juduen adimenean gutxiagotasunaren ideia oso errotua zegoen. Berdintasuna heltzean beraz, kristauak bezala “herritar onak” izatea bihurtu zen juduen helburu nagusia. Juduek esfortzu izugarria egin zuten gainontzeko herritarren onespena lortzeko. Bi bide zeuden horretarako, dirua eta arrakasta. Hezkuntzan, zientzietan eta komertzioan nabarmendu ziren judu asko, eta denbora gutxian batzuek arrakasta izugarria lortu zuten. Arrakasta ordea, jentilen onarpena baino gehiago inbidia eta gorrotorako bide izan zen. Baita ere, urteetan ezkutuan egon ostean botere postuetara iritsi nahi zutenaren ideia indartzeko. Horrek guztiak mundua kontrolatu nahi zuen gobernu judu sekretu bat bazen ideia indartu zuen²³.

²³ POLIAKOV, *Historia del antisemitismo: La emancipación y la reacción racista*, Muchnik Editores, Bartzelona, 1986 [1977], 60. or.

II.2. Gobernu judu sekretua eta konplotaren teoria

Masoiek eta juduek, beste talde batzuekin batera, gobernu sekretu bat osatzen zuten ideiak Iraultza Frantsesa du abiapuntu. Iraultza gertatu zenean 1789an, horren aurka zeudenek uste zuten sozietate sekretuak (masoiak, filosofoak, illuminatiak...) iraultzaren sustatzaileak zirela. Ez zen denbora asko pasatu talde sekretu horiek juduekin erlazionatu zituzten arte. Iraultzaileak Jainkoaren eta egitura zaharren aurka zeudenez, juduak behar zutela izan argudiatu zuten. Iraultza bukatu eta Frantziako Lehen Errepublika ezartzean, teoriak desagertu baino gehiago indartu egin ziren. 1806an esaterako, Napoleonek Sanedrin Handia eratu zuen 1806an Parisen –juduen tribunal gorena, Antzinaroko Sanedrino edo tribunal juduari erreferentzia eginez-sozietate sekretu judu baten existitzen zen ideia indartuz. Juduek Europa konkistatzeko Napoleoni ordaintzen zioten ideia zabaldu zen.

Konspirazioaren oinarria ondorengo zen. Juduak mila urteko ametsa betetzeko prest zeuden, eta hori lortzeko Eliza, zein gobernuaren postu garrantzitsuetan infiltratuz mundu mailako konplot bat zuzentzen zuten. Hori horrela izanik, European jazotzen zen edozein gertakari (gera, altxamendu, iraultza, protesta...) juduek antolatu zutelako zen. Teoriak sinesgaitza eta gehiegizkoa badirudi ere, ezin hobeto moldatu zen garaiko egoerara. Europa Mendebaldea garai gorabeheratsu baten erdian zen. Koplaburuko bat behar zen eta Erdi Aroan Jainkoak zigortu zituen, aro berri honetan ere ezbeharren errudun bihurtu ziren. Ikuspegi politiko guztiek aurkariaren atzean zeudela aldarrikatzen zuten. Ezkerrarentzat, juduenganako gorrotoa bi arrazoitan oinarritzen zen. Erlijio judua bera (kristautasunaren oinarri zena), eta Rothschild bezalako bankari familiak. Frantzia eta Alemaniako mugimendu sozialistetan oso ohikoa zen ikuskera hau. Indarra galduz joan zen baina, XIX. mendean zehar, eta XX. mende hasierarako ia desagertuta zegoen. Eskuinarentzat ordea, juduak liberalismo eta aldaketaren arduradunak ziren. Antzinako gizartean eroso zeudenentzat mundu modernoaren eredu bihurtu ziren. Azken ikuspegi honek izan zuen benetako arrakasta²⁴.

Juduak mugimendu liberalekin lotzea logikoa zen konplotaren teoriak bere indarra altxamendu eta iraultzei esker lortzen baitzuen. Alde batetik masoiekin erlazionatzen zituzten juduak, eta hauek besteak beste erreformen aldekoak ziren, liberalak ideologikoki nolabait esanda. Bestetik altxamenduen atzean ezkerreko mugimendu liberalak zeuden, eta juduek beraien egoera zela eta, alderdi liberalen alde egiten zuten bizi-baldintzak aldatuko zitzaizkien esperantzarekin. Ondorioz herrialde batzuetan konspirazio baten teoriak indarra izatea zaila zen. Erresuma Batuan kasu, non apenas gertatu ziren mugimendu sozial iraultzaile esanguratsuak²⁵. Beste batzuetan bai izan ziren mugimendu indartsuak eta ondorioz antisemitismoaren ardatz bihurtu zen konplotaren teoria. Errusia izan zen horren adibide argiena. Hainbat juduk bat egin zuten Errusian hasten ari zen mugimendu iraultzailearekin. Romanov familiaren agintearen azken urteetan, juduak mugimendu iraultzailearen erdigunean zeuden. Errusian bizi zuten egoerak, boterearen aurka altxatzera bultzatu zituen. Arrazoi

²⁴ Are gehiago, oraindik juduak bereizgarriak ziren, “misterioitsuak” Europako gizarte gentilarantz. Hala ere joera hau behera egin zuen, eta kontserbadoreen artean modernitatearen, laikotasunaren eta askatasunaren irudi ziren ideia indartu zen. COHN, Norman: *El mito de la conspiración judía mundial. Los Protocolos de los Sabios de Sión*, Alianza Editorial, 1983 [1967], 22. or.

²⁵ Europako beste herrialde batzuekin alderatuz, Erresuma Batuko historian 1688ko Iraultza Lortuaren ostean, aldaketa politiko-sozial gehienak modu baketsuan gauzatu ziren. Beste herrialde batzuekin alderatuz biolentzia gabeko iraultzak izan ziren.

horregatik, tsarraren gobernuak segituan erlazionatu zituen juduak konplotaren teoriarekin, eta iraultzaren atzean juduak zeudela aldarrikatu²⁶.

Mugimendu iraultzailetan baina, ildo politiko guztietako juduak aurkitzen ziren. Are gehiago, 1905eko Errusiar Iraultzaren ostean esaterako, juduak banatuta zeuden boltxebike eta mentxebikeen artean²⁷. Edonola ere, XIX. mende amaierako panorama politiko errusiarrean aipatzekoak dira bi mugimendu nagusi, 1897an sortuak biak: Langileen Alderdi Judua edo *Bund*, eta sionismoa. Biak mugimendu juduak ziren, eta biek herri judu baten existentzia aldarrikatzen zuten. Biek zuten izaera sozial indartsua, baina, sionismoak bundismoaren aldean juduentzako estatu propio bat aldarrikatzen zuen. 1905eko iraultza baino lehen beraz, juduak mugimendu iraultzailearen parte garrantzitsua ziren, baina, ez nagusia antisemitismoak aldarrikatzen zuen bezala. Juduek bizi zuten egoera kaskarrak, eta beste hainbat herrialdetan bezala jentilen pare jartzeko egindako ahaleginak arlo ezberdinetan judu ugari iraultzan nabarmentzea ekarri zuen. Baina, inoiz ere ez ziren izan mugimenduaren gehiengoa. Are gehiago, jatorri juduko boltxebike asko beraien jatorrietatik aldendu ziren izaera juduari lepoa emanaz. Edonola ere, ideia indartu eta zabaldu egin zen Europa osoan zehar eta iraultza juduekin lotzen saiatzeko ahaleginak, antisemitismoak sortutako lanik esanguratsuenak ekarri zuen, *Siongo jakintsuen protokoloak*.

II.3. Siongo jakintsuen protokoloak

Antisemitismoak sortutako literatura zabala da, baina, *Siongo jakintsuen protokoloak* libeloak aparteko garrantzia du. Errusiako antisemitismoaren sorkuntza esanguratsuenak duda gabe. Europako teoria antisemitik oinarri, tsarraren polizi sekretuak sortutako lan honek etorkizunean juduak munduaren jabe izango ziren konplotaren teoria bat osatu zuen erabat zentzugabea zen argudiaketa baten bidez. *Protokoloak* izenarekin argitaratutako idatzi eta liburu guztiek oinarri berbera dute: judu komunitate nagusietako buruek antolatzen zituzten batzarretako ustezko aktak dira. 24 akta inguru dira ehun orrialde inguruko luzerakoak. Bertan hiru gai nagusi lantzen dira: liberalismoari kritika, mundua menderatzeko eman beharreko pausuak, eta etorkizunean ezarriko den estatu judu mundialaren deskripzioa. Ustezko akta horien lehen argitalpenak Errusian agertu ziren 1903 eta 1907 urteen artean.

Protokoloak ez zuten zabalkunde handirik lortu hasiera batean. 1917ko gertakarien ostean ordea, Sobietar Iraultzaren aurkako tresna nagusia bilakatu zen²⁸. Boltxebikeek iraultza hasi zuten urtean, gerra zibilaren erdian, askok juduen agintea atzeman zuten. Ondorioz, boltxebikeen aurkako propaganda gerran *Pogromschik*-en – Pogromen sustatzaileak-, alderdi ultraeskuindarren eta “Armada Zuriaren” zeregin nagusienetako bat *Protokoloen* zabalkundea izan zen. 1917-1920 artean hainbat kopia egin ziren gobernu iraultzaileari zilegitasuna kendu eta konspirazio judu bat zela

²⁶ Alexandro III.aren agindupean, Errusiako gobernuak ezkutatu nahi zuen erregimenaren aurkako oposizioan errusiarrak zeudela – gainera horietako asko pertsona jantziak-. Horretarako 1868an European zehar abiatu ziren konplotaren teoriak aprobetxatuz juduei egotzi zieten ekintza terrorista eta politiko oro. COHN, *op. cit.*, 59. or.

²⁷ 1880 aldera gehitu ziren lehen juduak Alderdi Sozialdemokratara, gerora mentxebike eta boltxebikeetan banatu baitzen. Hala ere, jatorri juduko lehen kide hauek ez ziren juduak zentzu erlijiosoan, bizi judu tradizionalarekin apurto baitzuten. COHN, *op. cit.*, 62. or.

²⁸ Gerra zibilaren erdian, Yekaterinburgeko herrian, tsarraren familia hil zuten, eta jabetza pertsonalen artean Sergei Nilusen liburu bat –lehena *Protokoloen* bilduma bat argitaratu zuena-, eta esbastika bat aurkitu zituzten. *Pogromischik*-ek laster lotu zuten tsarraren familiaren hilketa konspirazio judu-boltxebikearekin. COHN, *op. cit.*, 142. or.

egiaztatzeko. Errusian zabaldu ostean, *Protokoloak* Europa Mendebaldera pasatu zen²⁹. 1920an *Protokoloen* lehen argitalpena agertu zen Alemanian. Errusiako gerra zibilaren ostean hainbat erbesteratutako aktuen ale ezberdinak eraman zituzten Europa Mendebaldera. Urte gutxiren buruan *Protokoloek* eta antzeko idatziek fama izugarria lortu zuten. Errusian bezala gerraren porrota eta egoera ekonomiko latza azaltzeko aproposa zen juduen konspirazioaren teoria. Naziak boterera heldu aurretik *Protokoloen* milaka ale argitaratu ziren, eta hiri nagusietan *Protokoloen* inguruko eztabaida eta ikerketa taldeak sortu ziren. Gainontzeko estatu boteretsuenetan *Siongo jakintsuen protokoloak* liburu bidea egiten hasi zen. Kasu gehienetan Inperio Errusiarreko jeneral eta ofizial erbesteratutako zabaldua. Errusiar Zurien helburua tsarraren erregimena berrezartzea zen, baina, horren ordeztan *Protokoloetako* ideiak mundu osoan zabaltzea lortu zuten. Erresuma Batuan zeresan handia izan zuen XX. mende hasieran, baina, 1920an indargabe geratu zen *The Times* egunkariak frogatu zuenean *Protokoloak* Maurice Joly (1829-1878) idazle frantsesaren *Dialogue aux enfers* liburuaren plagio bat zirela.

Ordutik aurrera *Protokoloak* liburuaren eztabaida muturreko eskuinaren esparrura mugatu zen herrialde batzuetan –AEB, Frantzia, Polonia-. Nahiz eta plagio bat zela bazekiten, bertan kontatzen zena erreala zela uste baitzuten. Beste herrialde askotan argitaratzen jarraitu zen. 1930erako *Siongo jakintsuen protokoloak* hizkuntza gehienetara itzulia zen. Garai hartan, Alemanian izan zuen arrakasta handiena, bereziki sortzen ari zen alderdi naziaren politikaren parte bihurtu baitzen. Bigarren Mundu Gerraren ostean *Protokoloak* Europako hainbat herrialdetan debekatu ziren, baina, herrialde musulmanetan ordea, gorakada izugarri izan zuen. Gaur egun oraindik ere saltzen dira *Protokoloen* bertsio ezberdinak. Juduak beraien interes ezkutatuak zituzten ideiak indar handia zuen beraz XIX. mendeko Europan. Gerrak, altxamenduak eta abarrek konplot bat bazela sinetsarazi zituen herritarrek. Baina, gerra eta gatazka garaietan badira beste gai batzuk sarritan aipatzen direnak. Abertzaletasun eza, traizioa, koldarkeria... Aldaketa, ezbehar eta ezegonkortasunaren errudun ziren bezala, laster leporatu zitzaizkien juduei traizioa, edo patriotismo eza besteak beste. Herrialde bat gerran gaizki ari zenean, juduak erretagoardian ezkutatzeko zirela aldarrikatzen zuten antisemitek; gaixotasun edo kondizioaren batez baliatzen zirela frontera ez joateko. Errealitatea, ordea, bestelako zen, juduek beraien nazioek parte hartzen zuten gerra guztietan borrokatu baitzuten; unitate militar berberetan eta gainerako soldaduen betebeharrak eginez. Hori gertatu zen Alemanian Lehen Mundu Gerran. Milaka judu boluntario gisa joan ziren gudara, baina, horrek ez zituen libratu alderdi antisemiten kritiketatik. 1917tik aurrera Alemaniaren egoera frontean okertu zenean, juduen koldarkeriaren ondorio zela aldarrikatu zuten. Gerra bukatzean, Alemaniako jeneralek eta eskuineko politikariek gerra juduengatik galdu zela adierazi zuten. Soldadu juduek ez bide zutelako Alemaniagatik borrokatu nahi, eta enpresari juduen ekintzek herrialdeak porrot egitea ekarri zutelako. Ideia hori Adolf Hitlerren –soldadu bezala borrokatu zuen Lehen Mundu Gerran- pentsamenduan iltzatu zen, eta bere etorkizuneko ideologiaren erdigune bihurtu zen.

Abertzaletasun ezaren diskurtsoak funtzionatzen ez zuenean, traiziora jotzen zuten antisemitek. Horren adibide argiena Dreyfus kapitainaren kasua izan zen. 1894tik 1902 arte iraun zuen kasuak, eta Frantziako antisemitismo kasurik ezagunena bihurtu zen. Akats judizial baten ondorioz Alfred Dreyfus armada frantseseko kapitaina traizioagatik kondenatua izan zen. Akusazioa justifikatzeko bere jatorri judua erabili

²⁹ Ustez Parisen sortu baziren ere, Errusian ezagutarazi ziren *Protokoloak*. Beraz ekialdetik mendebalderako bidea egin zuten, Errusiako Armada Zuriko ofizialen eskuetan –tsarraren alde borrokatu zutenak-; lehenik Alemania, eta gero Frantzia eta Erresuma Batua. COHN, *op. cit.*, 156. or.

zuten. Dreyfus kasuak mundu mailan izan zuen eragina, eta antisemitismoak garai hartako Frantzia zuen indarraren erakusle bihurtu zen. Are gehiago, juduen emantzipazioa eta eskubide berdintasuna sustatu zituen herrialdearen baitan banaketa handia zegoela erakutsi zuen Dreyfus kasuak. Nahiz eta ez zen Alemanian edo Errusian bezain entzutetsua, ezkutuan antisemitismoak jarraitzaile asko baitzituen Frantzia. Europan antisemitismoak gora egiten zuenean, frantziar askoren jarrera antisemita azaleratu egiten zen. Hori argi geratu zen adibidez Bigarren Mundu Gerran Vichyko gobernuaren kontrolpeko eremuan. Juduak pertsegituak izan ziren, eta kasu gehienetan naziei entregatuak. (Alemaniarren kontrolpean zeuden Ekialdeko Europako herrialdetan ere berdina gertatu zen). Hala ere, Frantziako antisemitismoa ez zen Europako Erdialdekoaren eta Errusiakoaren parera iritsi. Tradizio katolikoko herrialdea izanik juduenganako bazterkeria oso presente zegoen, baina, Iraultza Frantsesaren berdintasun ideiak antisemitismoa bera ezberdin garatzea ekarri zuten. Emantzipazio zabalago bat lortu zuten, juduak baztertzeko joera leundu zen. Era berean teoria arrazistek ez zuten indar handirik lortu, ez baitziren lotu abertzaletasunarekin. Noski izan zirela kasu ugari, baina arrazismoa azaleratzen hasten zenean, intelektualek eta ezkerreko mugimenduek egoerari buelta ematea lortzen zuten. Ahaztu gabe ere Frantzia zeuden judu kopurua oso txikia zela Polonian edo Errusian zeudenekin alderatuta³⁰.

II.4. Arioak, judu alderraia eta “arrazaren” teoriak

Konplotaren teoria nagusia bazen ere, Europako hainbat herrialdeetako mugimendu abertzaleen iruditegian goi eta behe arrazen ideia garrantzi handikoa zen. Juduak zeuden herrialdeetan jentiletatik banatzeko tresna nagusia bihurtu zen. Juduak hegoaldeko etorritako “arraza” bat ziren, eta ondorioz herrialde horretako “jatorrizko” biztanleen aldean desberdin. Iparraldeko “arraza” purua zen; ona eta langilea, herritar guztien ongizatea bilatzen zuen. Hegoaldeko “arraza” ordea, ustela zen. Tranpatia, eta beraien helburua norbere burua aberastea zen. Aipatzekoa da mugimendu arrazista guztietan gertatzen den antzera, “hegoaldeko arrazaren” sailkapena aldatu egiten zen Europako herrialde bakoitzaren arabera. Herrialde bakoitzak bere interesen arabera kokatzen zuen iparralde-hegoalde muga. Teoria arrazial horien helburu bakarra beraz, harrotasun eta berezitasun nazionala indartzea zen. Judu komunitate handiak zituzten herrialdeetan – Austria, Errusia, Polonia, adibidez- sinesmenagatik jada banatu ezin ziren juduak banatzeko tresnatzat ere baliatu zen³¹.

XIX. mendean teoria arrazial nagusia arioen teoria izan zen. Gizateria ario eta semiten artean banatzen zuen teoria honek. Europako herrien jatorria Indian kokatzen zuen. Helburua kristautasunaren aurka egitea baino gehiago, kristautasunaren jatorri juduaren aurka egitea zen. Ekialde Hurbilean zegoen kristautasunaren jatorria, eta horrek nahitaez kristauak juduekin lotzen zituen. August Wilhelm von Schlegel-ek (1767-1845) eta bere anaia Friedrich Schlegel-ek (1772-1829), zein horien osteko pentsalariak Ekialde Hurbileko jatorria Indiagatik aldatu zuten. Bibliako istorio guztiak herrialde horretan kokatuz. Teoria arioak garapen eta hazkunde izugarria izan zuen XIX. mendean zehar. Batez ere, Erdialdeko Europan zabaldu zen teoria hau, *Volkstum* edo etnozentrismo germanikoak bultzatuta. Ideologia honek Alemania arkaiko bat goresten zuen, munduan nagusitzen ari zen liberalismo, industrializazio eta

³⁰ POLIAKOV, Léon: *Historia del antisemitismo: La Europa suicida 1870-1933*, Muchnik Editores, Bartzelona, 1986 [1977], 296. or.

³¹ Hegoalde-iparralde banaketa oso ohikoa zen, eta juduez aparte greziar, albaniar, eta abarretatik bereizteko ere erabili zen Europa iparraldeko herrialdeetan. POLIAKOV, *op. cit.*, 280. or.

kapitalismoaren aurrean. Juduak mundu berri horren irudi ziren, beraz, kristauak juduetatik desberdindu behar ziren. Teoria arioak bide luzea egin zuen: 1860tik aurrera zirkulu intelektualetan garatu zen, eta geroago 1873tik aurrera, egunkarien laguntzarekin gizarte osora zabaldu zen. Denboraz gain zenbait faktorek -gerra osteak, krisi ekonomikoek, Sobietar Iraultzak- eragin handia izan zuten. Ondorioz, antisemitismoaren forma hau, Erdialdeko European beste toki batzuetan ez bezala, zirkulu intelektualetatik gizartera zabaldu zen.

Antisemitismoaren baitan beste teoria esanguratsuena “Judu alderraiarena” da. Mito honek juduaren irudikapen unibertsal bat sortu zuen. Eugene Sueren (1804-1857) *Le juif errant* 1844an argitaratu zen lehen aldiz *Le Constitutionnel* egunkari frantsesean. “Judu alderraiaren” ideia Erdi Aroan agertu zen lehen aldiz European. Irudikapen honen arabera judua, Jesusen heriotzagatik kondenatuta, mundu osotik zehar harat-honat dabil, eta errudun sentitzen da egindakoagatik. XIX. mendeko irudikapen berrian judua errudun sentitzen da, eta salbatua izan nahi du, baina erruduntasun sentimendu indartsu bat du judua izatearekin lotua. Irudikapen berri honetan erruduntasuna ekintza baten ondorio izatetik arrazaren izaeraren parte izatera pasatzen da. Berezko izango du erruduntasun hori, beti izango delako judu. Eboluzioa erakusle da antijudaismo teologikotik antisemitismo arrazialera pasatu zela. Judu alderraiaren gaia etengabe landu zen XIX. mende osoan zehar. Autore ezberdinek beraien ikuspegia gehitu zioten, eta bakoitzean judua are maltzurrago, zakarrago eta zorigaiztoko ageri da³².

II.5. Faktore ekonomikoa

Lanbide askorako sarbidea mugatzeak, judu asko finantza, komertzio eta enpresa mundura bideratu zituen. Arlo horietan arrakasta handia izan zuten berrietako askok. Europako judu familia boteretsuenak bankarrienak ziren, horien artean ezagunena Rothschild dinastia izan zen. Frankfurten hasi eta Londres, Viena, Napoli eta Parisera zabaldu ziren. Europako ekonomian zeresan handia zuten, eta herrialde ezberdinetan sortu zuten sareari esker eragin handia izan zuten herrialdeen arteko aferetan. Ondorioz, antisemitismoaren helburu nagusi bihurtu ziren. Baina, bankariez gain, juduak arrakasta handiko enpresari bihurtu ziren. Nekazaritza, armada, edo zerbitzu publikoetan lan egiteko mugapenak zirela eta ekonomian agertzen ziren zirrikitu oro aprobetxatzen zuten ekonomikoki gora egiteko. Horretarako ikasketak bihurtu ziren tresna nagusia. Hain zuzen, goi mailako ikasketak baitziren bidea ordu arteko bazterketatik emantzipazio eta berdintasuna lortzeko. Ondorioz, XIX. mende amaierarako juduek proportzionalki prestakuntza oso handia zuten, eta askok goi karguak lortu zituzten sektore pribatuan. Alemanian esaterako biztanleriaren %1a izanik industriaren goi karguen %25 zuten eta herrialdeko ondarearen %7a.

Datu horiek antisemitismo ekonomikoari ireki zioten bidea. Nahiz eta bazterketa forma berri horrek erlijioan zuen oinarria, ez aberastasunean; teoria ekonomikoak banaketa teologikoa baitzuen atzean. Horren erakusle garbia da juduen aurka egin zuten arteko desberdintasunak: elizgizonak, burgesak, klase ertaina, aristokrazia eta sozialismoaren lehen pentsalariak, besteak beste. Era berean, judu gehienak hirietan bizitzeak eta XIX. mendean hiriek bizitako gorakada ekonomikoak, landa guneko gizarteak juduekin lotu zuen bizimodu berri eta misterioitsu hori³³. Laburbilduz,

³² POLIAKOV, *op. cit.*, 134 or.

³³ Arrazaren teoria bere eginez, esan daiteke Europako toki askotan tradizioaren eta modernitatearen arteko borroka, arioen eta juduen arteko borrokan bihurtu zela. SALA ROSE, Rosa: *Diccionario crítico de mitos y símbolos del nazismo*, Acantilado, Bartzelona, 2003, 240. or.

juduenganako mendeetako aurreiritzi eta beldurrek bat egin zuten industrializazioaren gorakadarekin eta juduen arrakastarekin testuinguru ekonomiko berrian. Burges kristauak –juduekin lehiatzen ari ziren enpresa-gizonak - juduen aurka egin zuten hauek inbaditzaile gisara aurkeztuz, eta horrela modan zeuden teoria arrazial eta abertzaleekin batera herriarengan eragitea lortu zuten. Aipatzekoa da gaur egun oraindik, oso errotuta dagoela mendebaldeko kulturari juduak ekonomialari eta kontulari onak diren ideia³⁴.

II.6. Antisemitismoaren ondorio politiko eta sozialak

Orokorrean ezin daiteke esan antisemitismoaren baitan forma batek edo besteak eragin handiagoa izan zuenik. Bai ordea, forma guztiek bat egin zutela juduenganako gorrotoa maila berri batera eramaten. Ondorio sozial zein politiko esanguratsuak sortarazi zituen antisemitismoak, eta ondorio batzuk zuzenean erlaziona daitezke gaur egungo Ekialde Hurbileko egoerarekin, eta ondorioz munduak juduekiko duen ikuskerarekin. Aldaketak bi multzotan sailka daitezke. Alde batetik antisemitismoak sortutako ondorioak Europako estatuen arazo politiko bihurtu ziren. Bestetik juduak jabetu ziren, XVIII. mende amaieran abiatutako emantzipazioa bete beharrean beraien aurkako jarrera azaleratu zela. Horren aurrean beraien kabuz antolatzea bihurtu zen aterabide bakarra.

Europako estatuetan XIX. mendean abiatutako antisemitismoaren ondorioak aldaketa politiko handiak sortarazi zituzten. *Judenfrage* delakoa eztabaidagai bihurtu zen estatu nagusien baitan. Juduek pairatzen zuten egoera gogorra zela eta, irtenbide bat bilatu behar zela onartzen zuten. Baina era berean, antisemitismoa indartsua zen Europan eta gizartearen zati handi batek talka egiten zuten judu komunitatearekin. Horren aurrean estatu batzuk Europatik kanpo juduentzako estatu bat sortzearen ideia begi onez ikusi zuten. XIX. mende bukaeran indarra hartzen hasia zen mugimendu sionistaren proiektua “kasu juduaren” irtenbidea izan zitekeen. Erresuma Batua izan zen horren adibide. 1922an boltxebikeek Errusiako Gerra Zibila irabazi bezain pronto Ingalaterrako prentsak eta gobernuak juduenganako jarrera erabat aldatu zuen. Ordutik aurrera agintari askok juduen alde egin zuten, eta sionismoak juduen estatua sortzeko zuen ideiarekin bat egin zuten. Lloyd George (1863-1945) lehen ministroak eta Arthur Balfour (1848-1930) eta alderdi kontserbadoreko beste kide batzuek juduenganako jarrera baikorra erakutsi zuten eta proiektu politiko bat abiatzeko prest agertu ziren. Britainiarrek sionistei Uganda Britainiarra (gaur egungo Kenia) eskaini zieten estatu judu bat ezartzeko.

Europa Erdialdean zein Ekialdean, ez zen proiektu politikorik abiatu juduen “arazoari” aurre egiteko. Errusian, agintariekin, 1928an Juduen Errepublika Autonomoa sortu zuten Errusiako ekialdeko mugan. Stalinen proiektu bat izan zen, sionismoaren eta erlijio juduaren aurka egiteko. Bere helburua *yiddish*-ez hitz egiten zuen komunitate judu proletario bat eratzea zen. Proiektuak ez zuen arrakastarik izan, eta 1930ean, gehiengora iritsi zenean, 17.000 judu bizi ziren bertan, populazioaren %16a. Beraz, eremu horietako emigrazioa handia izan zen. Ondorio soziala izan zen, politikoa baino. Europako judu komunitate handienak izatetik, gutxi batzuk geratzera pasatu ziren XIX. mendeko Errusiako progromoen eta Bigarren Mundu Gerrako Holokaustoaren ondorioz. Alemania, Austria, Ekialdeko Europa eta Errusiako juduek ihes egin zuten. XIX. mende amaiera eta XX. mende hasiera artean emigrazio uholde desberdinak izan ziren, juduen aurkako gertakari ezberdinen ondorioz. Gehienak AEBetara alde egiten saiatu ziren, eta beste batzuk Europa Mendebaldeko herrialde tolerantetara –Holanda, Frantzia eta

³⁴ Faktore ekonomikoa juduen izaerarekin lotzearen arrazoia, aurrekari historikoak ezabatzea izan zen. Juduak Erdi Aroan lan egiteko jasan zituzten mugapenak ezabatzean, trukean eta mailegu lanetan aritzea berezko bihurtu zen. SALA ROSE, *op. cit.*, 227. or.

batez ere Erresuma Batua-. Baina AEBetan zein Erresuma Batuan mugak jarri zituzten immigrazio juduari. 1921ean AEBetako gobernuak *Emergency Quota Act* legea kaleratu zuen. Lege honen arabera estatu zehatz bateko immigranteen kuota, AEBetan bizi ziren estatu bereko herritarren %3koa arabera izango zela. Legearen ondorioz onartutako immigranteen kopurua erdia baino gehiago jaitsi zen, eta batez ere Ekialdeko Europatik eta Errusiatik zihoazenei eragin zien³⁵. Beraz, Ekialde Hurbilean sionismoak eskaintzen ziren aukera bihurtu zen beraien irtenbide bakarra. *Aliyah* desberdinak gertatu ziren (“igoera”, zentzu sakratuan, hebreeraz). Sionismoaren eta estatu judu baten eraikuntzaren ikuspegitik 1904 eta 1914 urteen artean gauzatu zen bigarren *aliyah* izan zen esanguratsuen³⁶. 20.000 judu ezarri ziren Palestinan, gehienak Errusiar Inperiotik joandakoak, eta helburu politiko argia zuten: juduentzako estatu baten sorrera. *Aliyah* horretako kideek sortu zuten lehen *kibbutz*-a, Deganiakoa, eta hebreera ezarri zuten hizkuntza ofizial gisa. Israelgo Estatuak ezarri aurretik beste lau *aliyah* gehiago izan ziren. Izugarri hasi zen immigrazioa 1948an aurreko urteetan, nahiz eta 1936tik aurrera Mandatu Britainiarrek, arabiarren altxamenduaren ostean, Palestinara zuzendutako immigrazio judua debekatu zuen. Ia 500.000 judu immigratu zuten 1919 eta 1948 urteen artean³⁷. Behin Israelgo Estatuak ezarri zela, immigrazioa areagotzen hasi zen. Israelgo Estatuaren sorrerarekin 1950ean ateratako Itzulera Legeari esker besteak beste. Sionismoaren proiektua indartu, eta Israelgo Estatuak sendotzen hasi zen migrazio horri esker. Alemaniak eta Europa Ekialdeko estatuak biztanlerian zati esanguratsu batek ihes egin zuen. Horietako asko elite eta lanbide liberaletako erreferente ziren (irakasle, doktore, pentsalari, idazle, bankari, abokatu...). Judu askenaziak –Europa Erdialde eta Ekialdeko juduak- Israelgo Estatuak elite berria bihurtu ziren.

Antisemitismoa beraz Europako fenomeno bat bezala abiatu zen. Kristauek Erdi Aroan abiatutako antijudaismoaren bertsio moderno bat. Garai horretan hasi zen juduenganako gorrotoa moldatu egin zen gizarte modernoko beharrezanetara. Eliza eta boterea banatu egin ziren, eta erlijioak herritarren bizitzan gero eta zeresan gutxiago zuen. Ondorioz juduek beraien sinesmenetatik jazartzea zentzugabea zen, horregatik juduenganako jazarpenak bide berriak behar zituen. XIX. mendeko Europan laster aurkitu zituen: garai gorabeheratsua, eta aldaketa ugariak. Lehen mugimendu abertzaleak azaldu ziren, langile mugimenduak, gerrak, hirien hazkundea... Ondorioz Europako mapa guztiz aldatu zen. Aldaketek gizartearen beldurra piztu zuten, eta antisemitismoak bere tokia egin zuen Europako gizartean. Juduenganako bazterkeria eta bortizkeria garatu zen herrialde bakoitzean, baina, kasu guztietan emantzipazio juduaren porrota azaleratu zuen. Horren aurrean Europako juduak bere kabuz antolatzen hasi ziren.

XIX. mende erdian, antisemitismoa Europan borborrean zela, sionismoak aukera paregabea izan zuen indartzeko. Europako giro arrazistak, juduen beldurra, batez ere emantzipazioari, eta potentzia europarren interes kolonialek, beraien helburua lortzeko bidea zabaldu zieten: estatu judu bat ezartzea Palestinan. 1897an egin zuten Basilean, Suitzan, Lehen Kongresu Sionista. Bertan, Europako herrialde ezberdinetako juduek hartu zuten parte, eta bertan zehaztu ziren sionismoaren oinarriak. Kongresu horren

³⁵ 1920ko immigrante kopurua 805.000koa izan zen, eta 1921-22 urteetakoak 309.556koa.

³⁶ 1882 eta 1903 arteko lehen *aliyah*-k lehen nekazari ezarlekuak sortu zituen. 30.000 judu inguruk hartu zuten parte, gehienak Inperio Errusiarreko biztanleak.

³⁷ Hirugarren *aliyah* 1919tik 1923ra 40.000 judu, gehienak Errusiarrek pogromo eta Urriko Iraultza boltxebiketarik ihesi. Laugarren *aliyah* 1924tik 1928ra 80.000 judu, gehienak Ekialdeko Europatik, AEBetako sarrera debekatu ostean. Bosgarren *aliyah* handiena izan zen, 1929 eta 1939 artean 300.000 judu, Europako egoera politikotik ihesi. Baita Yemen, Iraq eta ekialdeko beste herrialde batzuetatik. <http://mfa.gov.il/MFA/MFA-Archive/2002/Pages/Aliyah.aspx>



ostean zehaztu zen sionismoaren helburua Palestinan juduentzako “etxe” (*home*) bat ezartzea zela. Hori lortzeko lau bide erabaki zituzten: asentamendu juduak eratzea Palestinan, gobernuen babesa eta laguntza lortzea, juduen elkartzea sustatzea eta sentimendu eta kontzientzia judua indartzea. Mugimendu politiko bezala, bide luzea egin zuen sionismoak zehaztu aurretik, eta bidean ikuspegi desberdinak eta banaketak izan zituen. Hala ere, Basilean erabakitakoa, lehen pausua izan zen 51 urte beranduago Israelgo Estatua sortzeko.

III. Sionismoa

Sionismoa mugimendu politiko nazionalista judu bat da, estatu judu baten eraketa duena helburu. European sorturiko mugimendua da, eta ondorioz bere sorreran European garai hartan zeuden mugimendu politikoetatik edan zuen. Era berean, garai hartako egoera sozio-politikoak ere eragin zuzena izan zuen mugimenduaren sorrera, eta garapenean. Aipatzekoa da, sionismoaren hasierako ideologo nagusiak kultura germanikoaren eraginpean bazeuden –Moses Hess, Theodor Herzl, Max Nordau– ideia hauek praktikan jarri zituztenak, eta mugimenduaren oinarria osatu Ekialdeko Europako komunitate yiddishdunak edo *Yiddishland*-eko juduak izan zirela³⁸. Ekialdeko komunitateak European egoera okerreanean zeudenak ziren. Mendebaldeko Europaren aldean -Erresuma Batuan, Frantzia, Holanda- emantzipazioak ez zuen lortu juduak jentilen parean jartzea. Gainera komunitate handiagoa zen Europa Ekialdekoa, eta tradizioz Erdi Arotik ziren jazarriak. Ondorioz gazte judu askok, etorkizunerako ate guztiak itxita ikusita mugimendu sozialista, liberal eta iraultzaileetan murgildu ziren. Horren artean aipagarrienak, mugimendu juduak zirelako, *Bund*-a eta sionismoa. Bundak estatu gabeko nazio judu bat aldarrikatzen zuen, bere yiddish hizkuntza eta kultura propioarekin. Sionismoak ostera, nazionalismo europarren helburu bera jarraitzen zuen. Juduak gehiengo ziren estatu bat sortzea. Hasiera batean Bundak jarraitzaile gehiago zituen, baina, zenbait faktorek sionismoa bihurtu zuten nagusi.

Sionismoa XIX. mende bukaeran agertu zen; Basileako Lehen Kongresu Sionista 1897an burutu zen. Kontuan izan behar da, juduentzat estatu bat sortzearen ideia ordu arteko pentsamoldearen aurkakoa zela. XIX. mende amaiera arte, juduek ez zuten inolako esperantzarik Palestinan ezartzeko. Are gehiago, errabinoak –Erdi Arotik XX. mende hasiera arteko judu komunitatetako aginte nagusia- ideia horren aurka egin zuen. Judu erlijiosoentzat, bai ortodoxo zein erreformistentzat, helburua nazio berrietan integratzea zen. Sinesmen juduko frantses, aleman, britainiar bihurtzea³⁹. Gainera, juduen ustez, Jerusalem hiria sakratua zen, baina, ezin ziren bertan ezarri Jainkoak horrela esan arte. Judu gehienentzat Jerusalem eta “Lur Santuaren” existentzia fisikoa baino, espirituala zen. XIX. mendeko zenbait faktorek ordea, pentsamolde hori aldatu zuten. Pixkanaka sionismoa indartzen hasi zen, eta Palestinan ezartzearen ideia juduen betebeharrak bihurtu zen. Juduen artean etsai ugari bazituen ere, sionismoa azkenean garaile atera zen judaismo erlijiosoaren aurrean historiako zenbait gertakarien ondorioz.

Faktore horietako bat aurretik aipatutako antisemitismoa izan zen. Europako giro erasokor eta baztertzaleak judu asko bere jatorrizko herrialdeetatik ihes egitera bultzatu zituen. XIX. mendean zehar, juduen emantzipazioari erantzunez, ideia antisemita baztertzaleak ugaritu egin ziren Europako gizartean. Joera hori batez ere, judu komunitate handiak zeuden herrialdeetan gertatu zen –Austria, Polonia, Errumania, Errusia-. Erdi Aroko antijudaismoa forma berrira moldatzen zihoan heinean, erasoak areagotu egin ziren. Erdi Arotik Errusian eta Ekialdeko European indarrean zeuden ezartzeko mugapenen ondorioz, eta XIX. mende bukaerako pogromoengatik, egoera

³⁸ Polonia, Ukraina, Lituania, Errusia eta Errumanian komunitate judu oso aktiboak zeuden kultura propio bat garatu zutenak. Berezitasun horrek lagundu zuen ernaltzen sentimendu nazionalista. SAND, Shlomo: *La invención del pueblo judío*, Akal, Madril, 2011 [2008], 271. or.

³⁹ Prozesu horren bidez garapenean zeuden kultura europarretan barneratzea zuten helburu. Ordu arteko egitura judu tradizionalekin apurtuz. SAND, Shlomo: *La invención de la Tierra de Israel*, Akal, Madril, 2013[2012], 186. or.

jasanezina bihurtu zen juduentzat. Askok ihes egin zuten. Gehienek herrialde “toleranteagoetara” emigratu zuten⁴⁰ –Erresuma Batua, AEB, Kanada-, baina, XX. mende hasieran Erresuma Batuan, eta 1921etik aurrera AEBetan immigrazio legeak medio, juduen sarbidea zaildu egin zen. Gutxi batzuek Palestinara emigratu zuten⁴¹. *Aliyah* bezala ezagutu zen, Palestinara 1882tik aurrera joandakoen emigrazioa. Gainerako herrialdeetan XIX. mende amaieran antisemitismoa ikuspegi teoriko batetik egunerokotasunera igaro zen. Zenbait gertakari eta krisik –Krimeako gerra, Dreyfus kasua, Lehen Mundu Gerra- jentilen gorrotoa areagotu zuen. Juduenganako bazterkeriak presente jarraitzen zuela ikusi zuten. Forma aldatu baino ez zuela egin, garai bateko ideia erlijiosoetatik, “arraza” eta naziotasunera moldatuz. Ordurako judu gehienak jabetuak ziren, Iraultza Frantsesean abiatutako emantzipazioak bide ezberdinak hartu zituela. Europa Mendebaldean juduak gizartean barneratuta zeuden neurri batean (batez ere goi mailako juduak). Judutasuna erlijio modura ulertzen zuten mendebaldeko juduek. Juduak ziren, baina, era berean frantsesak, britainiarrak..., eta ondorioz tokian tokiko gizarteetan barneratuta zeuden. Hala ere, ideia antisemitak oraindik bizirik ziren. Ekialdean ostera judu komunitatea handiagoa zen, eta emantzipazioak ez zuen lortu gizartean berdintasunean bat egitea. Bazterkeriak tradizio handia zeukan eta ondorioz juduak komunitate itxietan bizi ziren, gizartean barneratu gabe. Bereizketa horrek ekarri zuen judutasuna nazio sentimendu batetik garatzea. Ondorioz, sionismoa baliatu zen Ekialdeko Europan juduek bizi zuten egoeraz, eta *Yiddishland*-en garatutako nazio sentimenduz.

Kontraesana dirudien arren, asimilazioaren beldurrak ere hauspotu zuen sionismoa. Emantzipazioak juduentzako eskubide berdintasuna suposatzen zuenez, emantzipatutako judu asko gizartean asimilatu ziren tradizio juduarekiko lotura guztiak apurtuz⁴². Errabinoentzat parekidetasuna beharrezkoa zen. Gizarteko berriena barneratuz, baina sinesmen eta tradizio erlijiosoak mantenduz. Are gehiago, tokian tokiko judu erlijioso gehienek aldarrikatu zuten Moisesen sinesmena jarraitzen zuten herritarrak zirela. Bizi ziren estatuko naziotasuna zutela eta ez besterik. Katolikoak edo protestanteak bezala. Ez zuten espero, ordea, asimilazioaren ondorioz tradizioak galtzeko arriskuan zirenik. Antisemitismoa indartsua zen herrialdeetan ez zen arazorik izan. Ez zegoen emantzipaziorik, beraz ez zegoen asimilaziorik. Beste herrialde batzuetan ordea, emantzipazioa erabatekoa zen, eta ondorioz juduak komunitate tradizionaletik urrundu ziren. Beraien ohiturak alboratuz, eta gizarte jentileko ohiturak bereganatuz. Prozesu horrek erakutsi zien, bi-hiru belaunalditan berezitasun judua desagertzeko arriskuan zegoela. Erlijioak ez baitzuen lehengo indarra XIX. mendeko Europan. Sionismoko pentsalariak jabetu ziren errabinoentzak ezin zituela juduak batera mantendu, eta gainerako herrietan bezala nazionalismoa izan zitekeela bidea. Judaismoaren sekularizazio horretan sionismoa zen aukera nagusia. Bund-aren aldean sionistek atzera egin zuten historian juduen heterogenian batasuna bilatzeko. Beraiek sortu zuten batasun bat, iragan bat, munduko judu guztiak biltzen zituena. Abertzaletasunaren ideia sekularrak hartu zituzten. Baita erlijioaren ohitura eta usadioak ere. Judu guztientzako iragan komun bat eraikitzea zuten helburu.

Sionismoa XIX. mendeko mugimendu politiko bat izanik, ezinbestean aipatu beharreko beste faktore bat nazionalismoa da. Azken finean, sionismoa mugimendu nazionalista da, eta Europan zehar sortu ziren nazionalismoen agerpena oso

⁴⁰1880 eta 1924 artean bi milioi eta erdi juduak emigratu zuten AEBetara eta Europa Mendebaldeko herrialdeetara. SAND, Shlomo: *La invención del pueblo judío*, Akal, Madrid, 2011 [2008], 273.or.

⁴¹ Ekialdetik emigratu zuten juduen %3a joan zen Palestinara. SAND, *op. cit.*, 273.orr

⁴² SAND, *op. cit.*, 270.or.

garrantzitsua izan zen honen eraketan. XIX. mendean zehar European mugimendu politiko berri hori indartzen hasi zen, eta judu askok bat egin zuten beraien nazio-estatuko identitate berriekin. Sionistak ere estatu propio baten aldekoak ziren. Horretarako, Europako nazionalismoen ideiak bere egin zituzten. *Ethnos* bat sortu zuten. Juduentzako jatorri komun bat nazio-estatu batean bildua. Jatorri hori Biblian bilatu zuten, eta Abrahametik aro garaikide arte etengabeko *continuum* bat osatu zuten. Hori lortzeko baina, historiako pasarte batzuk kendu, eta beste batzuk moldatu beharra zegoen. Bibliako kontakizun guztiak gertakari historiko bihurtu ziren. Juduen zabalkundea, K.a.II mendean Hasmonearren dinastiarekin hasi zena, eta Mediterraneo osoan zabaldu zena, desagertu beharra zegoen. Baita, juduak nagusi izan ziren erreinuak ere –Yemengo hego-ekialdeko Himyar Erreina, Afrika iparraldeko erreinu bereberek eta Itsaso Beltzaren eta Don ibaiaren artean aurkitzen zen Khazariako Erreina-. Herri aukeratuaren eta bakarraren ideia indartzeko, juduen berezitasuna mantendu zuten. Estatu berriaren mugak ere, Bibliaren tradizioan oinarritu zituzten. *Eretz Yisrael*: Salomon eta Daviden erreina. Baina moldaketa hori pentsamendu sekular baten barnean egin zen. Lehenago aipatu bezala sionismoa ez baitzen errabinoen mugimendu bat, nazionalista eta sekularra baino. Hor dago sionismoaren ezaugarri nagusia: mugimendu politiko modernoa da, neurri handi batean zentroko eta ezkerreko ikuspegi batetik sortu zena. Aurrerakoa arlo ugartitan, baina, tradizio eta historia komun bat eratzeko erlijioa erabili duena bere onurarako.

Azkenik sionismoa sendotu, eta estatu judu baten existentzia posible egin zuen faktore nagusietako bat, eta era berean ezezagunenetakoa, Erresuma Batuan jazo zen. Inperioaren baitan erreforma protestantetik eratorritako tradizio biblikoak, eta garai hartako amets kolonialek Palestinan juduak ezartzeko proiektuari forma eman zioten. Britainiar elitearen laguntzak, sionismoa mugimendu politiko bat izatetik, Ekialde Hurbileko lehen mailako agente bihurtzen lagundu zuen.

III.1. Inperialismo britainiarra eta sionismo kristaua

Sionismo kristaua oso ezezaguna bada ere, agente oso garrantzitsua izan zen, eta oraindik jarraitzen du izaten Israelgo Estatuaren baitan. Ingalaterrako puritanoek sortutakoa, gaur egun AEBetako eliza ebanjelikoetan du babes handiena. Sionista eta kristauen arteko lotura arrotza sumatzen bada ere, kristauek Palestinan interesak izatea ez da arraroa. Azken finean, Jerusalem eta Lur Santua hiru erlijio monoteista nagusien erdigunea da. Hori horrela, kristautasunak betidanik ikusi du Jerusalem hiri kristau eta sakratu bezala. Erdia Arotik Europak interesa izan du Palestina kontrolatzeko. Kontrol hori erromesaldien bitartez abiatu zuten. K.o. IV. mendetik aurrera hasi ziren lehen erromesaldiak Lur Santurantz. Hasiera batean zihoazen erromesen helburua Testamendu Zahar eta Berriko toki eta gertakarien kokapenak bisitatzea zen. 1099tik 1272 arte gurutzadak (bederatzi izan ziren) Palestina eta Jerusalem kristautzen saiatu ziren⁴³. Erreforma protestanteak, ordea, hori guztia aldatu zuen. Eliza Katolikoaren boterearekin apurtzeak ekarri zuen aldaketetako bat, Lur Santuarekiko jarrera izan zen. Gurutzadak eliza berriaren ideietatik kanpo geratu ziren. Horren ordez, Palestina bereganatzeko ikuspegi espiritualagoa landu zuten. Kontuan izan behar da, Eliza Katolikoaren aldean, eliza erreformistetan Bibliaren interpretazio propioa egin zezaketela, eta horrek nolabait Testamendu Zaharra Berriari gailentzea ekarri zuen. Lur Santuarekiko izandako ikuspegi ezberdin guztietatik Ingalaterrako puritanoena da aipagarriena. Bertan

⁴³ Jerusalemgo erreinu kristau erori ostean ere jarraitu zuten erromesaldiek, nahiz eta lur santua bereganatzearen ideia ahuldu egin zen Eliza Katolikoaren baitan. Protestanteek hartu zuten zeregin hori. SAND, Shlomo: *La invención de la Tierra de Israel*, Akal, Madril, 2011, 136. or.

Testamendu Berriaren aldean, eredutzat hartu ziren “Israelgo seme-alabak” eta Testamendu Zaharra. Bibliako hebrearrak heroi bihurtu ziren. Nahiz eta oraindik juduak baztertuta zeuden, puritano ingelesek Kanaaneko lurrarekin loturak bilatu zituzten. Puritanoekin batera, XVII. mendean, agertu zen “filosemitismoa”⁴⁴. Estatu Batuetako gaur egungo *Born Again Chistians* direlakoak dira haien zuzeneko ondorengoak.

Denborarekin puritanoak –elizaren erakundeen aurka Bibliaren interpretazio propioa aldarrikatzen zutenak- indartuz joan ziren Ingalaterran. Esan bezala, beraien helburuetako bat juduen emigrazioa Palestinara bultzatzea zen. Baina, ez zen juduen aldeko karitatezko proiektu bat. Arrazoi erlijioso bat zegoen babesaren atzean. Puritanoentzat gizateria salbatzeko, judu guztiek Sionera bueltatu beharra zuten. Behin hori lortuta Jerusalemgo Tenplua berreraiki ahalko zutelako, Apokalipsiari hasiera emanek eta horrek Jesusen bigarren itzulera ahalbidetuko zuen. Noski, juduak planaren protagonista nagusiak badira ere, salbatuak izan nahi badute, kristautasunera bihurtzera behartuak daude.

Shaftesbury konde eta parlamentari ingelesa (1801-1885), izan zen askorentzat, sionismo kristauaren lehen buruetako bat. Bera izan zen, bere posizioagatik politikan, Erresuma Batuko gobernuaren sionismoaren proiektura hurbildu zuena⁴⁵. 1838an Lord Palmerston Kanpo Harremanetako ministroa konbentzitu zuen Jerusalemara bidaltzeko lehen kontsul britainiarra. Juduak Palestinara bueltatzearen aldekoa zen Jainkoak horrela zioelako, eta Erresuma Batuko ekonomia eta politikarentzat onuragarria zelako. Ustez, berak esan zuen esaldi famatua: “Herri gabeko lur bat, lur gabeko herri batentzat”. Gaur egun oraindik hainbat eliza ebanjelikok- AEBetan gehienbat- ideia hori defendatzen dute. Are gehiago, AEBetan Israelen aldeko *lobby* ugari daude. Ezagunena AIPAC (American Israel Public Affairs Committee) da, eta bertako kide gehienak juduak dira. Hala ere, Israeli, eta batez ere Israelek ilegalki Zisjordanian eraikitako koloniei laguntza ekonomiko handiena ematen dieten *lobby*-etako kide asko ez dira juduak, kristauak baizik, eta hegoaldeko estatu etako eliza ebanjelikoek osatzen dituzte⁴⁶. CUF (Christians United For Israel) AEBetan dagoen Israelen aldeko *lobby* kristau handiena da gaur egun.

Hasiera batean baina, judu gehienak sionista kristauen proiektuaren aurka zeuden. Mendebaldeko Europan bizi ziren juduak esaterako eroso bizi ziren, eta ez zuten inongo interesik Ekialde Hurbilean ezartzeko. Edonola ere, 1881 eta 1890 artean Errusian gertatutako pogromoek erabat aldatu zuten juduen jarrera. Ondorioz, sionista kristauen proiektua ez zitzaien arrotz egin, eta Mendebaldeko Europako judu askok babestu egin zuten. Ez beraien emigrazioa bultzatzeko, ekialdetik ihesi zetozen juduena baino. Mendebaldeko judu asimilatuentzat beraien aurkako antisemitismoa pizteko arriskua ikusten zuten Ekialdeko Europako eta Errusiako juduen emigrazio masiboaren ondorioz⁴⁷. Erresuma Batuan XIX. mende bukaeran emigrazio oso handia izan zuten Ekialdeko Europatik. *Establishment*-eko juduek, horien buru Rothschild baroia, arazoari aurre egiteko 1897an Herzl-ek aurkeztutako plana babestu zuten.

Juduek estatu propio bat eratzeke lehen plana aurkeztu zuen Theodor Herzl-ek Basilean 1897ko Lehen Kongresu Sionistan. Hasiera batean estatu judu bat ezartzea zen helburua. Palestinaz gain ezartzea zen gehien nahia, baina, proiektu hori aurrera

⁴⁴ Filosemitismoak ez zuen esan nahi ez zituztenik baztertzen juduak. Juduen istorio biblikoak puritanoen irudikarian txertatu ziren, baina, Europan bizi ziren juduak bigarren mailako pertsonatzat zituzten. SAND, *op. cit.*, 147. or.

⁴⁵ SAND, *op. cit.*, 154. or.

⁴⁶ Gaur egun 70 miloi ebanjeliko daude AEBetan, eta horietariko askok Israelgo Estatu babesten du ekonomikoki. Juduak osteraz 13 miloi inguru dira mundu osoan.

⁴⁷ SAND, *op. cit.*, 165. or.

eramateko negoziaketak porrot egin zuen Alemaniako, Frantziako, Otomandar Inperioko eta Erresuma Batuko gobernuen ezetza jaso ostean. Ekialde Hurbila oraindik ez zegoen potentzien interesen artean. Inperio Britainiarra XIX. mendeko potentzia nagusia izanik harekin negoziatzen jarraitzen dute. Aukeren artean Zipre edo Sinai ere azaldu ziren. Chamberlain kolonietako ministroak Uganda (gaur egungo Kenia) eskaini zien sionistei. Arazoekin onartu zuen Herzl-ek, askorentzat Palestinan ezartzea baitzen bide bakarra estatu judu bat sortzeko. Herzl-entzat baina, Chamberlainen eskaintzak sionismoa mugimendu politiko bezala onartzea suposatu zuen. Baita juduen zuten lurralde baten beharrarekin bat egitea ere⁴⁸. 1902an Arthur Balfour Erresuma Batuko lehen ministro izendatu zuten, eta estatu judu baten ideia indarra hartzen hasi zen. Izan ere, Balfour estatu juduaren sorreran pertsonaia oso garrantzitsua izan zen. Bere lehen helburua immigrazio judua geratzea zen eta etorkin horiek beste norabait bideratzea zuten buruan. Are gehiago: bere immigrazio legeak, eta 1921ean AEBetan onartu zenak, juduen immigrazioa blokeatu zuen. Bi lege hauek lagundu zuten hein handi batean Israelgo Estatuaren proiektua sendotzen. Hainbat juduri mendebaldera emigratzeko aukera debekatu baitzien. Ondorioz Palestinara emigratzea, beste aukerarik ez zuten.

Modu horretan, Balfour sionismoaren defendatzaile bihurtu zen. Bere pentsamoldean juduak bereizitako arraza bat ziren, eta beraien lurralde historikora bueltatuz gero gauza handiak lortzeko gai zirela uste zuen. Ez da ahaztu behar, ordea, Balfour batez ere, kolonialista sutua zela. Sionisten proiektua babestu zuen, beti ere Inperioren interes kolonialen onerako. Ideia horrekin idatzi zuen Balfour-en deklarazioa. 1917ko azaroaren bian kaleratu zen, eta gutun horren bidez, Erresuma Batuko gobernuak Palestina “etxe” judu bat eratzea hitzematen zien juduei. Modu horretan Erresuma Batuk bere interes kolonialak aurrera eraman ahal zituen, bertan ezarriko zen esker oneko komunitate batekin. Arabiarrekin ere egin zituzten akordioak estatu arabiar bat eratzeko gerra ostean. Baina bazekiten eskualdearen kontrola lortzeko juduekin zuten akordioa zela onuragarriena. 1917an Allenby jeneral britainiarra Jerusalem sartu zen, eta britainiarrek Palestina osoaren kontrola lortu zuten. Frantsesekin eta errusiarrekin adostutako Sykes-Picot akordioa deuseztatu zen. Alde batetik, boltxebikeek Errusiako Gerra Zibila irabazi zuten, eta ondorioz Inperio Errusiarrarekin adostutako akordioa ezerezean geratu zen. Bestetik, Palestina osoa beraien kontrolpean nahi zuten britainiarrek. Kontrol hori juduen bitartez egitea zen gobernu britainiarraren helburua⁴⁹. Balfour-en deklarazioa gatazka luze baten lehen pausua izan zen. Orduetik aurrera juduek munduko potentzien onespina izan zuten lurralde propio bat izateko eskubidea burutzeko.

III.2. Balfour-en deklarazioa

Balfour-en deklarazioa, Erresuma Batuko gobernuak juduei Palestinako mandatuan “juduen etxe” bat promesten zien deklarazioa izan zen. XX. mende hasieran erabat aldatu zuen Ingalaterrako prentsak zein gobernuak juduenganako jarrera. Orduetik aurrera juduen alde egin zuten, eta sionismoak juduen estatua sortzeko zuen ideiarekin bat egin zuten. Lehen Mundu Gerran konkistatutako Palestinako Mandatua aukeratu zuten juduen estatu berriarentzako toki apropos bezala. Alde batetik, Palestinan

⁴⁸ Lehen aldiz sionismoa mugimendu minoritario izatetik, potentzien onarpena izatera pasatu zen. Juduek lurralde propio bat izateko eskubidea onartzen zuen. SAND, *op. cit.*, 168.or.

⁴⁹ Sykes-Picot akordioek ez zuten ahalbidetzen Palestinaren kontrol osoa. Frantsesen aurkaritza ekiditeko sionistez baliatu ziren britainiarrak. KHADER, Bichara: *Los Hijos de Agenor, Europa y Palestina desde las cruzadas hasta el siglo XXI*, Ediciones Bellaterra, Bartzelona, 1998, 145. or.

ezartzeko sionisten desirarekin bat egiten zuen, “juduen arazoari” irtenbidea emanez. Bestetik, Erresuma Batuak komunitate “lagun” baten bidez Ekialde Hurbila kontrolatzeko balio zion. Lloyd George lehen ministroak eta Arthur Balfour alderdi kontserbadoreko kideak bultzatu zuten deklarazioa. 1917ko azaroaren 2an gobernuak Balfour-en deklarazioa deituriko gutuna igorri zitzaion Ingalaterrako juduen komunitateko buru zen Lionel Walter Rothschildi. Arthur Balfour-ek sinatutako dokumentuan, britainiarrek Palestinan juduen etxe bat sortzeko nahia azaltzen zuten⁵⁰.

Baina, mugimendu politiko hau ulertzeko ezinbestekoa da kontuan hartzea bi ideia nagusi. Lehen, XIX. mendean oraindik Otomandar Inperioaren parte zen Palestinan izandako misio kristauak dira. 1800etik Krimeako gerra arte (1834), Europako potentzia nagusiek Palestina kontrolatu nahi zuten. Kontrola konkista bidez baino, bertako komunitate kristauen babesaren bitartez burutu nahi zuten. Horretarako misioak eta kontsulatuak ireki zituzten. Frantsesek, maroniten eta palestinar katolikoen alde egin zuten, errusiarrek greko ortodoxoen alde, eta britainiarrek anglikano eta juduen alde. Denek nolabaiteko eragina lortu bazuten ere, kasu guztien artean britainiarrena da aipagarriena. Puritanismoaren eraginez, zenbait anglikanoren ikusmoldean, juduek eta anglikanoek berek zuten azken hitza zuten Palestinaren etorkizunean. Lehenek Palestinaren gaineko eskubide “sakratua” zutelako. Bigarrenak legezko oinordekoak zirelako. Gainera, Erresuma Batuko gobernuak berak ere interes handia erakutsi zuen. Molde europarreko komunitate aliatu bat nahi zuelako Ekialde Hurbilean, bertako politikan eta ekonomian eragin ahal izateko. Bigarrena, Ingalaterrako Elizaren sektore batzuk dira. Garaiko hezkuntza protestanteak bat egiten zuten ideia sionistarekin. Juduak Lurralde Santuetara bueltatzea ezinbestekoa zen Kristoren etorrera gertatzeko. Horregatik elizak proiektu sionistak babestu zituen, nahiz eta beraien azken helburua juduak “benetako erlijiora” bihurtzea zen.

Baina aurreko bi kontzeptuen gainetik Erresuma Batuaren interes kolonialak zeuden. Lehen Mundu Gerra bukatu bezain pronto Frantziak eta Erresuma Batuak Palestina beraiantzat aldarrikatu zuten. Balfour-en deklarazioaren, eta proiektu sionistaren bidez Erresuma Batuak Inperioari lotutako aliatu bat lortzea espero zuen. Era berean, frantsesen eta belgikarren interes kolonialak gelditzea zuen helburu⁵¹. Mugimendu politiko horri esker 1917 bukaerarako estatu aliatu gehienek publikoki edo isilean Balfour-en deklarazioa onartu zuten, eta abenduaren 11n Allenby jenerala Jerusalem sartu zen. Deklarazioak interes ugari bazituen ere, publiko egin zen unetik Palestinako egoera politikoa betirako aldatu zen. Ingelesek idatzitako deklarazioa juduentzat kolonizazioaren oinarri juridiko bihurtu zen. Palestinako biztanleentzat ordea, beraien lurretatik kanporatzeko prozesuaren lehen pausua. Arthur Koestler idazle juduak horrela definitu zuen Balfour-en deklarazioa: “In this document one nation solemnly promised to a second nation the country of a third”⁵².

⁵⁰ Deklarazioa egin zen urtean sionisten aldeko jarrera oso zabala zen Erresuma Batuan. Gobernuan proiektuaren alde zegoen besteak beste George Lloyd lehen ministroa, eta gizartea hezkuntza protestantearen ondorioz juduak Palestinan ezartzearen aldekoa zen. POLIAKOV, *op. cit.*, 219. or.

⁵¹ Sykes-Picot akordioan adostutakoa aldatu nahi zuen Erresuma Batuak, Palestina eta Transjordania –gaur egungo Jordania- bere egiteko. KHADER, *op. cit.*, 89. or.

⁵² KOESTLER, Arthur: *Promise and Fulfillment, Palestine 1917-1949*, Papermac, Londres, 1983, 4. or.

III.3. Ikuspegi ezberdinak sionismoaren baitan

Aurreko faktoreak ezinbestekoak izan ziren sionismoaren garapenean, baina, mugimendu politiko bezala pertsona ezberdinen ikuspegiak eman zioten forma. Sionismoaren proiektuan ikuspegi ugari bildu ziren. Jatorri ezberdinetakoak izateaz gain, etorkizuneko estatuaren egitura, izaera, edota palestinarrekin izan beharreko harremanen inguruko ideia desberdinak zituzten, askotan kontrajarriak. Lehenengo eztabaida nagusia estatu propio baten ingurukoa izan zen, gero estatu hori non kokatu behar zen. Gero, bigarren *aliyah*-aren ostean (1904-1914), Palestinako kolonizazioa aurrera zihoala argi ikusi zenean, lana eta estatuaren egitura izan ziren eztabaida nagusia. 1948an Israelgo estatua sortu zenean, palestinarrekin eta bizilagunekiko harremanak bihurtu ziren eztabaiden erdigune. Gaur egungo Israelgo Estatu Theodor Herzl-en (1860-1904) ideietatik abiatu, eta David Ben Gurionen (1886-1977) sionismoa jarraitu du. Baina, sionismoak ertz ugari izan ditu, inoiz ez da izen pentsamolde homogeneo bat.

Hasierako banaketa nagusia sionismo politikoa eta praktikoaren artekoa zen. Lehenak Basileako Kongresuan adostutako jarraitzen du. Estatu judu baten onarpen publiko eta legala gainerako estatuen bitartez. Mugimendu honen buru ezagunenak Theodor Herzl eta Max Nordau (1849-1923) dira. Bigarrena, lurra ofizialki lortu gabe ere juduen presentzia immigrazio eta kolonien bidez ezartzearen aldekoa da. Leon Pinsker (1821-1891) eta Moshe Leib Lilienblum (1843-1910) dira adar honetako pentsalari nagusiak. Baina sionismoaren barneko banaketa ez da soilik oinarritzen estatua ezartzeko moduan. Bada ideologian oinarritutako banaketa ere. Mugimendu nagusiak ondorengoak dira: sionismo laborista, Ber Borochoy-ek (1881-1917) eta Nachman Syrkin-ek (1868-1924) gidatua; sionismo errebisionista, Zeev Jabotinskyk (1880-1940) gidatua; Ahad Haam-en (1856-1927) sionismo kulturala; eta sionismo erlijiosoa edo Mizrahien mugimendua

III.4. Herzl eta sionismo politikoa

Sionismoaren sortzailetakoa bat, eta korrante nagusiaren oinarriak ezarri zituen Theodor Herzl izan zen. XIX. mende bukaeratik bere heriotza arte proiektu sionista abiatu eta garatu zuen. 1904an hil zen, oraindik Palestinan tropelka ezartzeko aukera urrun zela. Europako gertakarien aurrean juduentzako lurralde propio baten alde borrokatu zuen. Bere ustez antisemitismoa Europako gizartearen autodefentsa mekanismo bezala, herrialde guztietan zabaldu zen; bere garapen sozio-kulturala kontuan izan gabe – Frantzia jartzen du adibide gisa; eskubide zibilen arloan munduko aitzindaria baitzen-. Errokoa zen arazoa eta egoera larritzen ari zen. Estatu judu baten ezarpena zen Juduen aurkako jazarpena ekiditeko bide bakarra. Herzl-en ustetan Europar gizartea ume baten tankerakoa zen; hezteko denbora asko behar duena, toleranteagoa bihurtu aurretik. Prozesu hori azkartzeko aukera bakarra estatu judu baten sorrera zela uste zuen, eta juduek bazituztela baliabide pertsonalak helburu hori burutzeko: “Oui, nous avons la force de former un État et même un État modèle. Nous avons tous les moyens humains et pragmatiques nécessaires à cet effet”⁵³. Estatu zer zen definitzerako orduan, Herzl-ek zehaztu zuen lur eremu zehatz bat baino pertsona multzo baten subiranotasun nahia:

Le peuple est la base personnelle de l'État; le pays, la base matérielle. Et de ces deux bases la base personnelle est la plus importante. Il y a, par exemple, une

⁵³ HERZL, Theodor: “On ne nous laissera pas tranquilles” (1896) in CHARBIT, Denis (ed.): *Sionismes. Textes fondamentaux*, Éditions Albin Michel, Paris, 1998. 51. or.

souveraineté sans base matérielle, et elle est la plus respectée: c'est la souveraineté du pape⁵⁴.

Hala ere, estatu judua lortzeko beharrezkoa zen nazioarteko zuzenbidearen oinarriak, eta juduen beharrianak asetuko dituen lur eremua: “Le premier but est, ainsi qu’il a déjà été dit, la souveraineté, assure sur la base du droit international, d’une étendue de territoire suffisante à nos légitimes besoins”⁵⁵.

Estatu judu hori non ezarri zen ordea galdera. Herzl-entzat, Palestinak izan beharko luke etorkizuneko etxe judua, nahiz eta pertsonalki beste edozein lurralde propioaren aldekoa zen. *Judenstaat* liburuan azaltzen du Argentina aukera oso ona izanik ere, Palestina dela juduek bihotzean duten lurra. Gainera adierazten du, hori lortu ezkeren Inperio Otomandarreko ekonomia hobetzen lagunduko zutela. Era berean Europako herrialdeen interesei begira, Asiako basakeriaren aurkako abangoardia lana egingo dutela gaineratzen du. Ideia hori gaur egun AEBtako Ekialde Hurbilerako kanpo politikan oso presente dago:

La Palestine est notre inoubliable patrie historique. [...] Pour l’Europe, nous constituerions là-bas un morceau de rempart contre l’Asie, nous serions la sentinelle avancée de la civilisation contre la barbarie. Nous demeurerions, comme Etat neutre, en rapports constants avec toute l’Europe, qui devrait garantir notre existence⁵⁶.

Herzl-en proiektu baina, ez zen lehen a izan. Lehenago, Errusiako eta Ekialdeko Europako pogromoen ondorioz, lehen *aliyah* gertatu zen 1882 eta 1903 urteen artean. Ez zen geroko sionismoaren pareko izan antolakuntza eta tamainan. Horren atzean *Hibbat Tzion* izeneko erakundea zegoen.

III.5. *Hibbat Tzion* eta sionismo praktikoa

Erakundeko buru Leon Pinsker-ek argi zeukan juduek herri bat osatzen zutela – pertsona multzo bat, ez nazio bat-. Pinsker hasiera batean asimilazioaren aldekoa zen; juduek erlijioa baino ez zuten mantendu beharko. XIX. mendean Errusian eta Ekialdeko Europako pogromoek eta jazarpenak ordea bere pentsamoldea aldatu zuten⁵⁷. Autoemantzipazioaren aldeko bihurtu zen; hori lortzeko lurralde propio baten beharra aldarrikatuz. Juduek nazio bat osatzeko ordea, beraien duintasuna berreskuratu behar zuten lanaren bitartez. Lurra lantzeko beraz, lurralde propioa behar zutela argi zeukan, estatu batek ez baitzituen onartuko. Oinarrian helburua Herzl-enaren antzekoa bazen ere, Pinskerren filosofian *aliyah* ez zen klase ertaineko eta asimilatutako juduentzat, “beste juduentzat” baizik; pobrezia eta jazarpenetik ihesi zihoazenak. Ondorioz *Hibbat Tzion*-en ekintzak ez zuten lortu Palestinan Herzl-en ikuskera oinarri zeukan sionismoak lortu zuen erakundetze eta antolaketa⁵⁸.

Hibbat Tzion-en ikuspegia babestu zuen beste kide bat Ahad Haam izan zen. 1880ko hamarkadan Errusian bizi zela, sionismo praktikora hurbildu zen Pinsker-ek erakarrita. Hasieratik, Herzl-en proiektuaren aurka agertu zen; bere ustetan juduen etxea

⁵⁴ HERZL, Theodor: “Le gestor des Juifs” (1896) in CHARBIT, *op. cit.*, 141. or.

⁵⁵ HERZL, Theodor: “Terre ancienne, terre nouvelle” (1902) in CHARBIT, *op. cit.*, 144. or.

⁵⁶ HERZL, Theodor: “Palestine ou Argentine?” (1896) in CHARBIT, *op. cit.*, 310.or.

⁵⁷ Pinsker-ek ikusten zuen mendeetako jazarpenak erantzun bat behar zuela. Gainera argi zuen lurrik gabeko jendeak lurra behar duela, bestela ahaztutako herria bihurtu daitezke. PINSKER, Leon: “La fatalite de notre histoire” (1882) in CHARBIT, *op. cit.*, 29. or.

⁵⁸ KHADER, *op.cit.*, 108. or.

gune espiritual bat izan behar zen, ez proiektu politiko soil bat. Are gutxiago, proiektu horrek Mendebaldeko Europako ikuspegi politikoak bazituen oinarritzat. Bere ustetan Palestinan eratutako kolonia judu batek soilik mantendu lezakeen kultura juduaren batasuna. Proiektu sionistak “juduen estatu” bat eratuko zuela uste zuen, ez “estatu judu” bat. Hori dela eta immigrazio masiboa kritikatu zuen eta geroko Israelgo Estatuaren aurka azaldu zen. Gainera hasieratik argi zeukan Palestina ez zela basamortu huts bat, alegia jendea bizi zela bertan. Ondorioz, bertako lurak bereganatzea zaila izango zela eta horrela ekin ezkererako arazoak izango zituztela bertako herritarrekin:

Nous avons l'habitude de croire, à l'étranger, que la Palestine est une terre presque entièrement désolée, un désert non cultivé [...] sur toute cette terre il est difficile de trouver un champ de terre arable non semée [...] C'est pourquoi on ne trouve pas facilement de bonnes terres à acquérir. Ni les paysans ni même les propriétaires ne sont prêts à vendre de bon cœur une parcelle sans défauts⁵⁹.

1902an ideia horretatik Mizrahien mugimendua sortu zen⁶⁰. Mugimendu hau, 1902an sortua, erlijiosoa zen, eta sionismo sekularraren aldean fedearen ezagutzan oinarritzen ziren beraien ideiak defendatzeko⁶¹.

III.6. Mizrahiak eta sionismo erlijiosoa

Mizrahientzat Torah-k izan beharko luke sionismoaren ardatza, eta nazionalismo judua helburu erlijiosoak lortzeko tresna bezala ikusten dute. Israelgo Estatu sortu zenean lehen alderdi politiko erlijiosoa sortu zuten. 1956an Alderdi Mizrahia, *Hapoel HaMizrachi* alderdiarekin batu zen, Fronte Nazional Erlijiosoa sortzeko –gaur egungo *HaBayit HaYehudi* edo Etxe Judua alderdiaren aurrekaria-. Urte berean *Knesset*-eko hauteskundeetan hirugarren indarra izatea lortu zuten, eta gobernuko koalizioko kide. Orduetik aurrera, giltzarri izan zen alderdia Gai Erlijiosoen Ministerioaren sorreran, eta hainbat arau erlijioso ezarri zituen gizarte israeldarrean: *sabbath*-etako jaieguna eta janariaren inguruko arautegia. Herzl-en sionismoaren ikuspegi aurkakoak dira, honek ez baitu jartzen Jainkoa sionismoaren lehentasunen artean. *Eretz Yisrael*-en aldekoak dira. Erbestean egon osteko erredentzio bezala baizik. *Eretz Yisrael* lur garbi, santu eta purua da, erbestea ostera iluna eta bekataria⁶². Gaur egun ordea, nazioaren ikuspegi fisikoagoa dute, eta besteak beste Zisjordania eta Ekialdeko Jerusalemgo kokalekuen aldekoak dira. Judu mizrahiak, politikoki *Etxe Judua* alderdiaren baitan daude bilduta. Alderdia nazionalistagoa bihurtu da urteen poderioz, eta *Eretz Yisrael*-en ideiarri jarraituz, Palestina osoa bereganatzea eskatzen dute.

Mugimendu honen pentsalari nagusia Abraham Yitzhak Kook izan zen. Askenazien lehen errabino burua. 1904tik Lehen Mundu Gerra arte Palestinan bizi zen. Ostean Europara aldegin zuen, baina gai erlijiosoen inguruan idazten jarraitu zuen. 1924an sortu zuen *Merkaz HaRav Kook*, Israelgo *yeshiva* nagusia –*Torah*-aren eta

⁵⁹ HAAM, Ahad: “Nous allons vers une guerre difficile...” (1891) in CHARBIT, *op. cit.*, 394. or.

⁶⁰ Haam-ek ezinezko ikusten zuen munduko judu guztiak estatu batean batzea, gehienak diasporan bizitzea nahiago dutelako. Ostera sionismoaren helburua kolonizazioa bada, ez du ikusten irtenbide bezala Hibbat Tzionen kultura nazionala mantentzea du helburu, sionismoa ostera kolonialismoa ezartzeko propaganda da. HAAM, Ahad: “L'Etat Juif et le probleme juif” (1897) in CHARBIT, *op. cit.*, 200-203. or.

⁶¹ SAND, *op.cit.*, 202. or.

⁶² KOOK, Avraham Yitzhak: “Les lumières de la renaissance” (1920) in CHARBIT, *op. cit.*, 492. or.

Talmudaren ikastegia-. Herzl-ek lehenik, eta Ben Gurionek gero jarraitu zuten sionismoaren aurka bazegoen ere, beti saiatu zen Israelgo ikuspegi desberdinen arteko zubi lana egiten; batez ere, ezkerreko sionista laikoen eta muturreko ortodoxo artean. Kookentzat erlijioa zen estatuaren erdigunea, eta ezinezkoa zen erlijioa eta naziotasuna bi gauza desberdintzat izatea:

Les deux causes ainsi séparées ne seraient que mystification, car la pensée, la sensibilité, l'idéalisme propres à la nation d'Israël constituent une unité indivisible, et c'est tout cet ensemble qui lui donne cette forme singulière. Les mêmes, qui font l'erreur de chercher à distinguer entre ces parties inséparables, aggravent leur cas en feignant de croire que la division est possible, et que la partie peut l'emporter sur le tout⁶³.

Berak lortu zuen muturreko erlijiosoak mugimendu sionistara gehitzea –*haredi*-ak izan ezik-. Era berean, juduen salbazioa *Eretz Yisrael*-eko lurrarekin lotu zuen. Horren ondorioz, sionismo erlijiosoaren zati batek muturrerako joera hartu zuen. Horren eredu garbiena, kokalekuetako muturreko judu erlijiosoak dira.

III.7. Kolonien eraketa eta sionismo politikoaren ahalduntzea

Herzl-en sionismo politikoa nagusi bazen ere, nazioarteko eragileen onarpenaz gain, Palestinako lurraren kolonizazioa ere bere planen barruan zegoen. Palestinako kolonietarako elkarte ingelesaren eredu erabili zuen. Hau da, estatuaren araututako elkarte judu bat Palestina kolonizatuko zuena. Horretarako alegiazko elkarte bat irudikatu zuen *Der Judenstaat* liburuan. Elkarte hori *Society of Jews* deitu zuen, ingelesez. Herzl-ek sortutako eruditik jaio ziren gerora, bai sionismoa eta Israelgo kolonizazioan erdigune izan ziren *Agentzia Judua* eta *Munduko Erakunde Sionista*. Lehena 1923an sortu zen, bere helburua Palestinako populazio judua ordezkatzeko zen, eta *de facto*-ko gobernu bilakatu zen 1948 arte. Israelgo Estatuaren eratu zenean, bere zeregin nagusia *aliyah* berriak antolatu eta kudeatzea izan zen. Bigarrena, 1897an eratu zen Basileako lehen kongresu sionistan. Bere helburua, mundu osoko juduak Israelen ezartzeko bitarteko guztiak erabiltzea da –juduen batasuna sustatu, nazioarteko gobernuaren onarpena lortu-. Gaur egun, hainbat elkarte, sindikatu eta federakunde sionista biltzen ditu bere baitan. Elkarte hauen lana, estatuaren sorrerarako prozesua abiaraztea eta gidatzea zen. Bi erakundeek lotura oso estua da; David Ben Gurion esaterako bi erakundetako buru izan zen. Era berean, erakunde hauetako bi buru – David Ben Gurion eta Chaim Weizmann- Israelgo lehen ministro eta presidente izan ziren. Herzl-en hitzetan juduentzako elkarteek, Moises berri bat izan behar zuen. Eta hala izan zen, erakunde sionistetako buruak eta goi karguak Israelgo Estatuaren aginte postuetan kokatu baitziren:

La Society of Jews est le nouveau Moïse des Juifs. L'entreprise du grand vieux gestor des Juifs est à la nôtre ce qu'est un superbe vieil opéra à un drame lyrique moderne⁶⁴.

Baina, elkartearen txosten, ikerketa, eta abar ez ziren nahiko. Potentzien oniritzi eta babesa ezinbestekoa zuten sionistek beraien helburua lortzeko. Horretarako mendebaldeko juduek ekialdeko juduen emigrazioak sortutako beldurra aprobetxatu zuen. 1897ko abuztuaren 29an bere proiektua aurkeztu zuen Basilean mundu guztitik joandako 204 ordezkariaren aurrean. Ondorengo egiaztapenak egin zituen; ez da nazioaz

⁶³ *Id.*, 479. or.

⁶⁴ HERZL, Theodor: “Le gestor des Juifs” (1897) in CHARBIT, *op. cit.*, 143. or.

hitz egiten, herri eta etxe juduaz baizik.. Tratatu baten bidez Otomandar Inperioko sultanarena onarpena beharrezko ikusi dute. Palestinan ezartzeko baimena lortzeko beraz, neurri batzuk plazaratu ditu: Palestinaren kolonizazio sistematikoa; nekazari, artisau eta langile juduen bitartez. Sionismoaren antolakuntza elkarte eta federazioen bitartez. Sentimendu judu eta kontzientzia nazional baten sendotzea. Azkenik estatu nagusien onespina. Helburu horiek lortzeko Herzl potentzia nagusietako buruekin bildu zen. Otomandarrekin lehenik, alemanekin gero. Hauen ezezkua jaso ostean Erresuma Batuko agintariek saiatu zen. Ugandako proiektua lortu bazuen ere, ez zuen Palestinan ezartzeko onespina lortu. Gero italiarrekin, errusiarrekin eta Egoitza Santuarekin ere bildu zen. 1904an hil zen Palestinan ezartzeko baimena lortu gabe. Edonola ere, berari esker sionismoa proiektu politiko sendoa bihurtu zen, eta urte gutxian Erresuma Batuak aukera ikusi zuen sionismoa bere proiektu koloniala burutzeko. Oraingoan bai Palestina eskaini zieten sionistei Balfour-en deklarazioaren bitartez. Herzl-ek hasitako lana beste sionista batzuek jarraitu zuten, bakoitzak bere ikuspegitik.

III.8. Sionismo sozialista

Sionismo sozialista bihurtu zen, Herzl-en sionismo politikoaren ondorengoa, eta 60ko hamarkada arte sionismoaren baitan adar nagusia izan zen. Moses Hess-etik (1812-1875) hasita, ezkerreko sionistek estatu sozialista bat eratu nahi zuten. Herzl-en ideien aurka, beraien helburua nekazari komunitateak ezartzea zen, “lurra lanaz luditze”, eta ez Israelgo Estatuaren onarpena nazioarteko eragileen bitartez lortzea. Hori dela eta, sionismoaren baitan sionismo-sozialista deiturikoa garatu zen XIX. mende amaieratik aurrera. Moses Hessek 1862an *Rom und Jerusalem, die Letzte Nationalitätsfrage* liburua argitaratu zuen, Palestinako lurrera bueltatzeko lurra lanaz luditze behar zela argudiatuz, horretarako sistema sozialista bat ezarriz, eta gizarte judua nekazari bihurtuz. 1909an lehen *kibbutz*-a sortu zuten, Deganiakoa, eta 1930erako sionismoaren baitan korronte nagusia bihurtu zen. Bi pentsalari nagusi izan zituen Hessez gain, Ber Borokhov eta Naham Syrkin. Hauen ustez ekonomia judu berri bat ezarri behar zen. Klase gabezia eta burujabetza ziren arazo judua konpontzeko giltzak. Borokhoven ustetan langileria judua egoera txarrean aurkitzen zen juduen egitura sozial tradizionalagatik, eta ondorioz azpigaratutako herrialde batean ezarri beharra zuten. Horrela ez zuten kompetentziarik aurkituko eta benetako langile borroka posiblea izango zen. Laburbilduz, langile juduaren alde egin behar zuten; *Kibush avodah*, “lanaren konkista”; lan guztia juduei eman. Modu horretan juduak produkzioaren fase guztietan aritu zitezkeen. Ez soilik merkatari gisa ordu arte European aritu ziren bezala. Hortik sortu zen *kibbutz*-en ideia. Izan ere, sionismoaren baitan koloniak ezartzea ez zen nahikoa izan. Rothschild baroiaren kontrolpean zeuden lehen *aliyah*-ko (1882-1903) kolonietan baieztatu zuten bezala, askotan langile palestinarrek erabiltzen ziren juduak baino eskaera gutxiago egiten baitzituzten. Borokhovek prozesu honen ostean palestinarrek gizarte berrian “asimilatu” egingo zirela uste zuen. Ideologia hau asko indartu zen bigarren *aliyah*-n (1904-1914)⁶⁵. David Ben Gurion izan zen bigarren *aliyah* horren parte. Ordutik aurrera palestinarrek ez zuten berriz lanik izan “juduen ekonomian”. Sionisten jarreraren lehen erakusle izan zen erabaki hori. Palestinako biztanleen egoera juduek behar zutenaren arabera erabakiko zen.

Israelgo Estatuaren aitatzat dute David Ben Gourion. Borokhoven *Poalei Zion* alderdi sionista-laboristako kidea, honen heriotzaren ostean joera nazionalistagoa eta zentristagoa hartu zuen. Gaur egun ezagutzen dugun Israelgo Estatu bere lanaren

⁶⁵ *Aliyah* horretako kide gehienak Polonia eta Errusiatik ihes egin zuten. 40.000 inguru izan ziren, eta lehen *kibbutz*-ak –nekazari komunak- sortu zituzten. SAND, *op. cit.*, 121.or.

ondorio da neurri handia batean. Sionismo sozialistaren bidetik estatu berriaren egitura osatu zuen. Independentziaren aurretik *Agentzia Juduaren* burua zen, eta ondorioz Palestinako juduen *de facto*-ko liderra. Independentzia prozesua eta 1948ko gerra gidatu zituen, Israelgo armada eratu zuen eta independentziaren ostean lehen ministro izendatu zuten. Bere lehen agintaldian etorkizuneko Israelgo Estatuaren erakundeak eraikitzen lagundu zuen. Bigarren aldiz lortu zuen lehen ministro kargua 1955ean. Pertsona oso azkarra zen, baina, pentsalaria baino gehiago politikaria zen. Bere egiteko eraren eredu, britainiarrenganako eta arabiarrenganako jarrera ezberdina izan zen. Lehenekin harreman ona mantentzen saiatu zen. Juduen immigrazioa eta lurren salerosketa mugatzen zuen *Liburu zuria*-ren aurka agertu zen, baina, Bigarren Mundu Gerran juduei armada britainiarrean boluntario bezala aurkezteko eskatu zien. Modu horretan boluntario horiekin armada propio baten muina osatu ahalko zuten etorkizunean palestinarrekin izango zuten gerrarako.

Arabiarrekin harremana bestelakoa izan zen. Onartzen zuen Palestina ez zegoela hutsik eta bertan bazela jende bat. Hala ere horiekin zituzten harremanak, baldintzatuta zeuden juduen biziraupen eta existentzia eskubidera. Hasiera batean, Ben Zvirekin batera Palestinako *fellahim*-en teoria garatu zuen. Horren arabera, Palestinan bizi ziren nekazariak juduen ondorengoak ziren eta beraz Israelgo Estatuaren parte. Britainiarren eta sionisten aurkako 1936ko altxamendu arabiarrek ideia hori baztertzera eramanean. Orduetik aurrera palestinarrek ez zituen herritzat kontuan hartu. Ben Gurionentzat denak ziren arabiarrek, eta ondorioz bazuten lurralde bat, Europa baino handiagoa zena. Beraz, Palestinan ez zegoenez entitate finkorik estatu judu baten sorrera ez zen inolako mehatxua arabiarren biziraupenerako: “L’existence d’une nation juive de plusieurs millions d’habitants en Palestine n’est pas un danger pour la nation arabe, sa culture, son indépendance ni son existence”⁶⁶. Hizkuntza ugari zekizkien, -hebreera, yiddisha, turkiera, ingelesa, errusiera, frantsesa, alemana, espainola eta greziera-, hauetako asko politikoki balio handikoak, baina ironikoa bada ere, ez zuen arabieraz ikasi, eta, oso berandu arte, ez zuen zuzenean hartu emanik izan agintari arabiarrekin. Bere helburua mendebaldeko potentziekin, batez ere Erresuma Batuarekin, Israelgo Estatuaren sorrera eta gerora babesa lortzea zen.

Lanarekin ere antzera jokatu zuen. Juduek lan egiteko eskubidea dutela aldarrikatzen zuen. Hori zela garrantzitsuena eta denaren aurretik zegoela; jabeen irabazi eta interesen aurretik ere. Baina, ideia honen atzean beste zerbait ezkututzen da. Ben Gurionen ustetan judu guztiek lana dutenean etorriko dira gainerakoak. Politika horrek arabiarrek –gaur egun Israelgo herritarrek direnak barne- lan merkatuan bigarren mailan jarri zituen lehen koloniak ezarri zirenetik. Ber Borokhoven *kibush avodah* ideiarekin jarraipena.

Pragmatikotasunaren eredu ere izan zen judu erlijiosoen babesa bilatzerako orduan. Israelgo Estatuaren sortze prozesua abiatu zenean, bazekien Mizrahi eta muturreko ortodoxoen babesa beharko zuela. Horregatik 1947an akordio batera iritsi zen: Horren arabera, estatua sekularra izango zen, erlijio askatasunarekin, baina, *shabbat*-a ezarriko zen atsedean egun bezala, eta jurisdikzio propioa izango zuen erlijio bakoitzak famili gaiak arautzeko. Gaur egun juduak, juduak ez direnekin ezin ezkontzea da horren adibide argiena. Izan ere Ben Gurion ez zen sinestuna, eta askok zioten erlijiosoak zirela gehien gorrotatzen zituenak. Hala ere, Herzl eta beste hainbat ezkerreko sionistak bezala, sinbologia eta erreferentzia erlijiosoak behin eta berriz

⁶⁶ BEN-GOURION, David: “Un peuple comme tous les autres peuples” (1933) in CHARBIT, *op. cit.*, 559.or.

erabili zituen Israelgo Estatuaren sorrera justifikatu eta kontzientzia nazional bat eratzeko.

Une chose est claire: le pays sortira bientôt de son actuelle désolation. Dans un an ou deux, Eretz Israël sera rattachée à l’Egypte; le grand désert, où nos pères ont marché quarante ans durant, se traverse aujourd’hui en sept heures; et le long du pays des Philistins, les soldats du Régiment hébreu montent la garde et font reflourir le désert⁶⁷.

Ben Gurionen ikuskera praktiko bera zuen beste sionista Chaim Weizmann (1874-1952) zen. Munduko Erakunde Sionistako burua eta Israelgo lehen presidentea izan zen. Ben Gurionekin batera Israelgo Estatu ezartzeko negoziaketa nagusietan parte hartu zuen. Hala ere, kritikoa agertu zen erakundearekin. Bere ustetan, bi mundu gerren artean abiatu behar zuten juduen immigrazio masiboa, oraindik Palestina Mandatu Britainiarraren parte zela. Era horretan *Peel Komisioak* adostutako banaketa saihestu ahal izango zuten, Palestina osoa juduen kontrolpean jarritz. *Peel Komisioa*, ofizialki Palestinarako Komisio Errealak, Erresuma Batuak eratu zuen 1936ko altxamendu arabiarren ostean. Bere helburua altxamendua piztu zuten arrazoiak bilatzea, eta irtenbide bat proposatzea zen. Komisioak ondorioztatu zuen Palestinako egoera jasanezina zela, eta lurraldearen banaketa judu eta arabiarren artean beharrezkoa zela.

Sionismo sintetikoaren sortzaile ere izan zen Weizmann. Sionismo mota hau sionismo politikoa eta praktikoa uztartzearen aldekoa zen. Hau da, juduen presentzia Palestinan politikaren eta akordioaren bitartez zein kolonien eta imigrazioaren bidez ziurtatzea. Weizmannen eragin politikoa ordea, txikia izan zen behin Israelgo Estatu sortu zenean.

III.9. Sionismo errebisionista

Peel Komisioaren banaketaren aurka azaldu zen beste buru bat Zeev Jabotinsky (1880-1940) izan zen. Sionismo errebisionistaren burua, akordioaren ostean harremanak hautsi zituen Ben Gurionek gidatzen zuen erresistentzia mugimenduekin (*Haganah*). Sionismo errebisionista eskuineko mugimendu sekularra zen, tradizionalki ezkerreko sionismoaren aurkaria; gaur egungo *Likud* eskuineko alderdiaren aurrekaria. Jabotinsky izan zen mugimenduaren sortzaile eta buru nagusia. Haren ustez, Ben Gurionen eta Weizmannen sionismo praktikoaren errebisioa eskatzen zuen. Sionismo errebisionistaren helburu nagusia –eta desberdintasun nagusia sionismo sozialistarekiko– Israelgo Estatuaren mugak dira. Errebisionistak *Eretz Yisraelen* aldarrikapena egiten dute, estatu judua Jordan ibaiatz bi aldeetan kokatuz, eta gaur egungo Jordaniako estatu barruan hartuz. Sionismo sozialistak ideia hori deuseztatu zuen –arrazoi praktikoengatik–, nahiz eta Israelgo Estatu sortu aurretik Ben Gurionek zein Ben Zvik *Eretz Yisraelen* ikuspegi bera zuten⁶⁸. Errebisionistentzat lurrarekiko eskubidea betierekoa da, eta ondorioz berdin jarraitzen du Bibliako garaietatik, eta berdin jarraituko du etorkizunean; ez dute behar bestelako justifikazio edo arrazoirik *Eretz Yisrael* guztia aldarrikatzeko. Menachem Begin (1913-1992) mugimendu

⁶⁷ BEN-GOURION, David: “Il nous faut faire vite!” (1919) in CHARBIT, *op. cit.*, 606.or.

⁶⁸ Bi sionistentzat Bibliako Eretz Yisrael zabalegia zen (Mesopotamiatik Egiptora) Talmudekoa, ordea, txikiegia. Gaur egungo Palestina eta Jordaniak osatzen duten eremua ikusten zuten etorkizuneko estatuarentzako zabalera egokia, “baldintza fisiko, ekonomiko, sozial eta kulturalak” aintzat hartuz. 1936ko altxamendu arabiarrek, eta *Shoah*-k munduko judu populazioan izandako eraginak, jarrera pragmatikoagoa hartzera bultzatu zituen. SAND, *op. cit.*, 218. or.

errebisionistako buruzagi berriak argi azaldu zuen israeldarren eskubidea: “Nosotros regresamos a la Tierra de Israel no en virtud del poder sino en virtud del derecho, y gracias a Dios tenemos el poder para realizar el derecho”⁶⁹. Ezkerreko sionismoari ordea, arazo gehiago sortu dizkio lurraren gaineko eskubidearen kontzeptuak, eta oraindik konpontzeko dagoen arazo bat dela uste dute. Horregatik beti bilatu dute bestelako arrazoiak, hala nola lurrarekiko afinitatea⁷⁰.

Errebisionistek duten estatuaren ikuspegia dela eta, banaketa plan guztien aurka agertu dira; baita 1947ko ONUren banaketa planaren, eta 1949ko armistizioaren aurka ere. Orokorrean jarrera erasokorragoa zuten bai arabiar zein britainiarren aurka. 60ko hamarkadatik aurrera, Menachem Beginek mugimenduaren gidaritza hartu zuenean, mugekiko jarrera leundu zuen sionismo errebisionistak. Jada Jordan ibaiak ekialdeko ibarra beraien proiektuetatik kanpo zegoen. Baina, 1967ko gerraren ostean Israelek Zisjordania okupatu zuenean, errebisionisten plana lurralde berriak okupatzea bihurtu zen. Era berean, Israelgo gizartean errebisionisten ideiak onartzen hasi ziren, eta lehenaldiz sionismoaren baitan nagusi zen ezkerreko sionismoa gaintitu zuen Jabotinskyk sortutako adarrak. 1967 gerraren osteko batasun nazionaleko gobernuko kide bihurtu zen lehen aldiz sionismo errebisionistako alderdi bat, Gahal eskuineko koalizioa. 1977ko hautsekundeak Menachem Beginen Likud alderdiak irabazi zituen; lehen aldia izan zen alderdi laboristak, sionismo sozialistatik sortutako alderdiak, irabazten ez zuena.

Nazioartearekin bezala, errebisionisten jarrera arabiarrekiko oso erasokorra izan zen. Zeev Jabotinskyk onartzen bazuen arabiarrek kanporatzea ezinezko zela, eta Palestina bi herrik osatzen zutela, ezinezko ikusten zuen bi aldeen arteko akordio bat. Bere esanetan historian izandako kolonizazio kasu guztietan bertakoek beti borrokatu dituzte kanpotik etorritakoak. Bere ustetan ez bertakoek lurra galtzeko beldur direlako, berezkoa dutelako kanpotik datorrena borrokatzea; Ameriketako kolonizazioa jarriz adibidetzat:

Tout lecteur a quelque notion de l’histoire des autres pays d’immigration. C’est pourquoi je lui suggère de se souvenir de tous les exemples qui lui sont connus et d’essayer d’y trouver un seul cas de pays où cette immigration se soit faite avec l’accord de la population autochtone⁷¹.

Zentzu horretan, errebisionistak beti egon dira bi estatuko akordioaren aurka – nahiz eta gaur egun, batez ere kanpora begira, eskuineko alderdiek beraien diskurtsoa aldatu-. Beraien helburua *Eretz Yisrael* izanik ere, hau da Palestina historiko osoa estatu judu batean biltzea, arabiarren borondate eza da Jabotinskyren esanetan akordioa ez lortzeko arrazoa. Zentzu horretan sionista moderatuen jarrera kritikatzin du, oraindik akordioa eta banaketa posible dela uste dutenena:

C’est pourquoi ceux pour qui un accord avec les Arabes est une condition *sine qua non* de la politique sioniste peuvent se dire, dès aujourd’hui, qu’il est définitivement hors de question de l’obtenir et qu’il ne reste plus qu’à renoncer au projet sioniste⁷².

⁶⁹ Menachem Begin: *The Right that created the Power*, in SAND, Shlomo: *La invención de la Tierra de Israel*, Akal, Madril, 2011, 213. or.

⁷⁰ SAND, *op. cit.*, 213. or.

⁷¹ JABOTINSKY, Zeev: “La Muraille de fer (Les Arabes et nous)” (1933) in CHARBIT, *op. cit.*, 538. or.

⁷² *Id.*, 541. or.

Jabotinskyk “burdinazko harresiaren” ideia defendatzen zuen: presentzia militar bat bi herriak banatuta mantenduko zituena. Ez zituen aintzat hartzen palestinarrak herri bezala, eta Ben Gurionen antzera arabiartzat ditu. Ondorioz, Jabotinskyrentzat Europa baino zabalagoa den lurralde bateko biztanleak dira, eta Palestina juduei uztea “justizia ekintza” bat litzateke⁷³. Hala ere, Jabotinskyrentzat sionismoa kolonialismo modu bat da, eta beraz beharrazkoa dute armada bat beraien helburuak betetzeko. “Le sionisme est un acte de colonisation et c’est pourquoi son destin dépend d’une force armée”⁷⁴.

Gaur egungo munduan dimentsio moral gabe ia ezinezkoa da praktika politikoak justifikatzea. Sionismoak argi izan zuen ideia hori hasiera batetik. Sionismoak, lehen egunetik, justifikazio etiko eta legalak bilatu zituen⁷⁵. Sionismoaren eta kolonialismo europarraren akats nagusiak, Palestinako biztanleak kontuan ez hartzea izan zen. Ez ziren agertu ezta eztabaida diplomatikoetan, ez eta sionisten proiektu nagusietan ere. Ikusi daiteke beraz, sionismoaren baitan desberdintasunak ugariak eta sakonak direla. Guztien helburua zen ordea juduentzako estatu bat eraikitzea Palestinan. Bakoitzak bere ikuspegitik, justifikazio eta arrazoi ezberdinak erabili zituen. Baina, sionismoak abiatutako bidea hobekien definitzen duen ezaugarria pragmatikotasuna da. Herzl-ek “Ugandan” ezartzearen aukeraren alde egin zuen bezala, ondorengo agintari sionistek unean uneko eskaintzez baliatu dira beraien azken helburura iristeko, juduentzako estatu bat. Kenia ez zen sionista gehienek nahi zutena, baina Herzl-ek bazekien onartuz gero nazioarteko botereen aurrean sionismoa legitimatuko zela. Bere ondorengoek ere bide berari jarraituz, bazekiten edozein aukera aprobetxatu eta onartu behar zutela, nahiz eta jakin sionismoaren azken helburua zeharo desberdina izango zela. Horren adibide argiena Mandatu Britainiarraren agindupean, Israelgo Estatu sortu aurreko urteak izan ziren.

⁷³ JABOTINSKY, Zeev: “La morale de la ‘muraille de fer’ ” (1933) in CHARBIT, *op. cit.*, 545. or.

⁷⁴ JABOTINSKY, Zeev: “Apprendre à tirer” (1933) in CHARBIT, *op. cit.*, 587. or.

⁷⁵ SAND, *op. cit.*, 203. or.

IV. Mandatu Britainiarretik Israelgo Estatuaren sorrerara

Sionismoak abiatutako prozesua Palestinan, estatu judu bat ezartzeko, 1917 eta 1948 urteen artean zehaztu zen. 30 urte horietan, sionismoaren proiektu politikoak forma hartu zuen, eta ahaldundu egin zen lehen kokaleku, eta *kibbutz*-ei esker. Mandatu Britainiarrak iraun zuen urteetan, sionistek beraien proiektua sendotu zuten, eta etorkizunean arabiarrekin zein britainiarrekin izango zuten gatazkarako prestatu ziren. Mandatu Britainiarraren ezarpenari, eta Balfour-en deklarazioari esker, sionistek aukera paregabea izan zuten lehen aldiz Palestinan sistematikoki ezartzeko.

1917ko abenduaren 9an, Allenby jeneral britainiarrak Jerusalem okupatu zuen, eta hasiera eman zion Palestinako Mandatu Britainiarrari. Orduetik, 1919 arte, Britainiarrak Palestinako mugak definitu, eta gobernu kolonial bat eratu zuten. 1920rako Allenby jeneralaren gobernu militarra, gobernu zibil baten bidez ordezkatu zen. Ordurako, Palestina gaur egun ezagutzen dugun unitate politikoa bihurtu zen; lehenago Otomandar Inperioko Siriako eskualde lauso parte baitzen. Garai hartan Palestinan 800.000 biztanle zeuden: 650.000 musulman, 80.000 judu eta 60.000 kristau. Gobernu berria oso mugatuta zegoen herrialde berria antolatzerako orduan Balfour-en deklarazioa zela eta: bazekiten Londresen helburua eskualdea komunitate aliatu baten bidez kontrolatzea, eta Europako “arazo juduari” irtenbidea ematea zela. Zentzu horretan gobernu kolonialaren lehen helburuak bi ziren. Alde batetik, Lehen Mundu Gerrako txikizioaren ostean Palestinako ekonomia eta azpiegiturak berreraiki, eta hobetzea. Egoera oso kaskarrean zeuden landa gune zein hiriak Gerra Handiko borroken ondorioz: ospitaleetan, komunikabideetan eta hezkuntzan inbertitu zuten batez ere. Bestetik, mandatu arabiar-judu bat ezartzea zen beraien helburua, goi-mandatar britainiar baten menpean egongo zena. 1919rako izan ere, lehen arazoak azaleratu ziren arabiar nekazarien eta sionisten artean, azken hauen lurren erosketengatik⁷⁶.

Hurrengo urteetan sionistak eta arabiarrek politikoki antolatzen saiatu ziren oraindik finkatu gabe zegoen Mandatu Britainiarrean. Beraien helburua, etorkizunean ahalik eta eremu handiena aldarrikatzea zen, baita nazioarteko eragileengan eragina izatea ere. Hala ere, desberdintasun handia zegoen bi aldeetan. Palestinarren agintea eliteek zuten, eta nahiz eta botere handia izan, ez zuten lortu gidaritza bateratu bat ezartzea. Izan ere, batzuk britainiarren aldekoak ziren, eta beste batzuk Feisal Husseinen Siriako estatu arabiarren parte izan nahi zuten. Horrek mugatu egin zien lerro politiko bakarra izatea, eta ondorioz palestinarren herri mugimendu eraginkor bat osatzea⁷⁷. Sionistak bestalde, XX. mendeko lehen hamarkadan familia gutxi batzuk izatetik, 1914tik aurrera erakunde antolatu eta eraginkor bat izatera pasatu ziren. Une oro, Erakunde Sionistaren bidez, aginte bateratu eta lerro politiko bera mantendu zuten. Beraien helburua estatu judu bat ezartzea zen, eta horrek gidatzen zituen sionisten erabaki guztiak.

1920an San Remoko negoziaketak hasi ziren nazioarteko potentzien artean Ekialde Hurbileko mugak definitzeko⁷⁸. Palestinaren kasuan, alde bakoitzak bere interesak defenditu zituen, baina palestinarrak negoziatzeko interes gutxi azaldu zuten.

⁷⁶ PAPPE, Ilan: *Historia de la Palestina moderna*, Akal, Madril, 2007 [2004], 120.or.

⁷⁷ Batasun falta bazegoen ere, 1919 eta 1928 artean zazpi biltzar antolatu zituzten independentziaren, eta sionismoaren inguruan eztabaidatzeko. Ez zuten lortu erantzun bateraturik. KHADER, *op. cit.*, 179. or.

⁷⁸ Nazioen Elkarteko 22. artikulua Balfour-en deklarazioa eta britainiarren agintea Palestinan berretsi zituen. Urte bereko abuztuaren 10ean Sevresko akordioak aurrekoa berretsi eta juduentzako “etxe nazional” bat ezartzea aurreikusi zuen. KHADER, *op. cit.* 167.or.

Izan ere, Palestinako %90 baziren ere, herrialdearen biztanleen erdia bezala tratatu zituzten. Gainera, britainiarrek Balfour-en deklarazioko konpromisoa mantendu zuten, nahiz eta Palestina independente baten alde ere egin zuten. Kontradikzio hori gatazkarako lehen pausua izan zen. Britainiarrek beraien momentuko interes kolonialak mantentze aldera gatazka ekiditea zuten helburu. Horretarako, bai sionistak zein arabiarrek lasaitu behar zituzten. San Remon erabakitakoa gatazkaren hasiera izan zen, Inperio Otomandarraren zatiketa ofizialki baieztatu baitzen. Palestina britainiarren menpe geratu zen, eta ondorioz sionismoaren proiektuak aurrera jarraitu zuen Balfour-en deklarazioak babestuta. Berehala piztu ziren lehen borrokak Palestinan. Arabiarrek abiatutako protesten ondorioz britainiarrek gatazka bideratzeko bideo orri bezala, lehen *Liburu zuria* aurkeztu zuten. Hurrengo bietan egingo zuten bezala, jarrera anbigua hartu zuen gobernu britainiarrak: estatu judu baten ezarpena ezeztatzen zuen, baina juduak Palestinan eskubide osoz aurkitzen zirela adierazten zuen⁷⁹. 1922an, Palestinaren behin betiko mugak ezarri ziren, eta Transjordania –gaur egungo Jordania- Palestinatik banatuta geratu zen. Hor sortu zen sionisten baitan lehen banaketa; Zeev Jabotinsky eta errebisionistek mugimendu sionista utzi zuten protesta gisa⁸⁰. Beraien helburua, *Eretz Yisrael* osoa estatu judu bihurtzea zen, eta horrek Jordan ibaiaren bi ibarrak hartzen zituen, Transjordania barne.

Palestinarrak egoera berrirako aginte politiko bat osatzen saiatzen ziren bitartean, sionistak etengabe aritu ziren lanean etorkizuneko estatua ahalbidetuko zuen komunitate bat eratzen. Sionistek, Palestinako biztanleen aldean, talde homogenea osatzen zuten; gehienak bigarren *aliyah*-n Ekialdeko Europatik joandako juduak ziren, eta *aliyah* horretako kide asko etorkizuneko Israelgo Estatuako elite politikoa bihurtu ziren. Sionisten lorpen handienetako bat hezkuntza, osasun eta justizia sisteman irabazitako burujabetza izan zen. Horrek, Israelgo Estatuaren ikuspegi propioa eta komuna garatzen lagundu zien. Hezkuntza sistema propioa, doktrinamendu tresna bihurtu zen sionistentzat, bai hebreera irakasteko, baita nazioaren historia berria ezartzeko ere. Hori guztia erakunde zentralizatu batek kontrolatzen zuen, Agentzia Juduak. Bertako agintariak juduen bizitza gidatu zuten Israelgo Estatu sortu zen arte. Baita immigranteen etorria kontrolatu ere. Gero, Israelgo agintari bihurtuko ziren horietako asko; David Ben Gurion eta Chaim Weizmann, esaterako. Azken finean, independentea izan nahi zuen estatu baten barruan zegoen beste estatu bat bihurtu zen Agentzia Judua⁸¹. Palestinarrak bestalde, britainiarren sistemaren barnean zeuden, edo beste barik ez zuten inolako hezkuntza edo osasun sistematik.

Agentzia Juduaren lanaren ondorioz, juduen presentzia gero eta handiagoa zen hogeigarren hamarkada bukaeran, eta tentsioak gora egin zuen. Immigrazioak, eta sionisten politika baztertzailak egoera gaiztotu zuten. Martin Buber filosofo juduak sionisten politika kritikatu zuen: “En Palestina no vivimos con los árabes, sino al lado de los árabes. Pero la coexistencia de dos pueblos en el mismo territorio, si no se abre una colaboración, degenera en antagonismo”⁸². Sionistentzat palestinarrak ez ziren existitzen beraien etorkizuneko estatuaren eraikuntzan: “There is no such thing as a Palestinian people... It is not as if we came and threw them out and took their country. They didn't exist”⁸³. Ondorioz, behin Palestinan ezarrita sionisten politika baztertzailak

⁷⁹ KHADER, *op. cit.*, 171. or.

⁸⁰ PAPPE, *op. cit.*, 128.or.

⁸¹ Agentzia Juduarekin batera, beste hainbat erakunde sortu zituzten kolonizazioan laguntzeko: Banku Anglo-Palestinarra, *Histadrut* (langile juduen sindikatua) eta kontseilu nazionala. KHADER, *op. cit.*, 193.or.

⁸² Martin Buber: *Der Jude und seib Judentum*, in KHADER, *op. cit.*, 183.or.

⁸³ Golda Meir, *The Sunday Times*, 1969ko ekainaren 15ean.

bi komunitateen arteko mesfidantza areagotu zuen. Lehen gatazka handia 1929an gertatu zen. Jerusalemgo Meskiten Zelaigunean abiatutako istiluak herrialde osora zabaldu zirenean. 600 hildako egon ziren, 300 judu eta adina arabiar.

Liskarren ondorioz, egoeraren larritasunaz jabetu ziren britainiarrak. Bigarren *Liburu zuri* bat kaleratu zuten bi komunitateenganako konpromisoak berretsiz, eta immigrazio juduari mugak jarritz. Sionistek horri erantzunez, politika erradikalagoa abiatu zuten: *Haganah* eratu zuten -autodefentsarako unitate paramilitarra, etorkizuneko Israelgo armada bihurtuko zena-, eta lurren erosketa areagotu zuten⁸⁴. Lurren erosketa zen garai horretako helburu nagusia sionistentzat⁸⁵. Hori lortzeko biderik errazena Palestinan bizi ez ziren lur-jabeei erostea zen -Palestinako lurren %20 baino gehiago zuten Palestinatik kanpo bizi zirenek-. Ordu arte baina, britainiarrekiko menpekotasun ekonomikoak arazoak sortu zizkien lurak erosterako orduan. 1929tik aurrera ordea, britainiarrek juduenganako deszentralizazio politikekin jarraituz, sistema ekonomiko propio bat izatea ahalbidetu zieten sionistei. Horrek mesede egin zien sionistei, beraien ekonomiak gora egin zuelako, eta arabiarrena ostera, maila berean geratu zelako. Gainera *kibush avodah*, lan juduaren ideia, eta protekzionismoa areagotu zuten. Juduen industria eta nekazal guneetan soilik juduek egin zezaketen lan.

The setter hereby undertakes that the will during the continuance of any of the said advances, reside upon the said agricultural holding and do all his farm works by himself or with the aid of his family, and that, if and whenever he may be obliged to hire help, he will hire Jewish workmen only⁸⁶.

Egoera horrek, polarizatu egin zuen gizartea judu eta palestinarren artean, eta palestinarren bizi kalitatean eragin zuzena izan zuen. Landa guneko biztanle gehienak pobrezian bizi ziren, eta 1930eko hamarkadan lurretik ezin bizirik hauek saldu ostean hirietara emigratu behar izan zuten. Aditu britainiar asko jabetu ziren ordurako lurren galera izango zela gatazkaren gakoa. Hain zuzen, 1936an arabiarren altxamendua gertatu zen, agerian utziz Palestinako gizartearen polarizazioa.

IV.1. 1936ko altxamendua eta *Liburu zuria*

Urte horretan, lehen aldiz, Arabiarren Goi Mandatuak -Palestinaren aginte bateratua-batasuneko ekintza bat agindu zuen sionisten zabalkundearen aurka. Greba orokorrera deitu zuten, eta manifestazioak antolatu zituzten. Asteak pasatu ahala, protestak bortitzago bilakatu ziren, eta gobernu britainiarrak komisio bat bidali zuen. Peel Komisiao deiturikoak gomendatu zuen herrialdea bi zatitan banatzea; Kostaldea eta Galilea juduentzat, eta Negev eta Samaria palestinarrentzat utziz. Hiri nagusiak, eta Jerusalem kostaldearekin lotzen zuen korridore bat ostera, Mandatuaren kontrolpean geratuko zen. Arabiarrek uko egin zioten planari, baina David Ben Gurionek, *yishuv*-eko buruak, onartu egin zuen. Historia sionistako beste hainbat alditan bezala, Ben Gurionek ulertu zuen sionismoa oraindik ez zela indartsua azken helburua lortzeko, eta eskaintzen zieten guztia onartu behar zutela, betiere azken helburua lortzeko pauso bat bazen. Peel Komisoaren porrotaren ostean, beste bat antolatu zuten britainiarrek, eta horrek ere porrot egitean protestak areagotu egin ziren. Zenbait lider palestinarrek

⁸⁴ Nazismoaren gorakadak European, sionismoaren jarrera gogortzea ekarri zuen. Immigrazioak gorakada handia izan zuen bosgarren aliyah-rekin; 1929-1939 artean 250000 judu iritsi ziren Palestinara. PAPPE, *op. cit.*, 139.or.

⁸⁵ 1930erako agentzi juduaren gastuen %40 lurren erosketak ziren, eta inbertsioen %75 lur horren egokitzapenean gastatzen zuten. PAPPE, *op. cit.*, 142. or

⁸⁶ Jews Agency For Israel statutes. D paragrafoa, 3. Artikulua.

altxamenduak antolatu zituzten, baina Bigarren Mundu Gerraren atarian, britainiarrek gogor zapaldu zituzten, eta palestinarren buru guztiak erbestera ihes egin behar izan zuten. Azken saiakera egoerari buelta emateko 1939ko *Liburu zuria* izan zen.

Urte horretako *Liburu zuriak*, aurrekoen ildo bera jarraitzen zuen. Oraingoan baina, hamar urtetan Palestinaren independentzia gauzatuko zela adierazten zuen, eta immigrazio juduari, eta lurren salmentari muga zorrotzagoak jartzen zizkion. Berandu zen baina, akordio baterako. Palestinarrentzat, britainiarrek ez zituzten promesak bete, eta argi eta garbi sionismoaren proiektuaren alde zebiltzan. Sionistak bestalde indartuta atara ziren 1936ko altxamendutik, eta botere militarra handitzeari ekin zioten. Talde paramilitar ezberdinak sortu zituzten: *Palmach*, *Haganah*-ren baitan, *Irgun* errebisionistena, eta horien eszio erradikal bat, Stern taldea. 1941ean 700 kidek baino ez zuten osatzen *Haganah*, baina 1948rako entrenatutako 7.000 soldadu ziren. Bigarren Mundu Gerrak aukera paregabe eskaini zien prestaketa militarra areagotzeko. Mandatu Britainiarraren aurka borrokan bazeuden independentzia lortzeko, britainiarren alde borrokatu zuten Bigarren Mundu Gerran-. Ben Gurion-ek adierazi zuen bezala, “We must support the army as though there were no White Paper, and fight the White Paper as though there were no war”⁸⁷.

Hala ere, Bigarren Mundu Gerran zehar, sionisten ekintza nagusia immigrazioaren kudeaketa izan zen. Kontuan izan behar da 1939ko *Liburu zuria*-k mugak jarri zizkiola juduen immigrazioari Mandatura. Gainera, lehen aldiz juduek Europan bizi zuten egoera zela eta, immigrazioa asko handitu zen. Horretarako Agentzia Juduak legez kanpoko immigrazio programa bat jarri zuen martxan⁸⁸. *Aliyah Bet* izenez ezagunak 1934tik 1948 arte iraun zuen, eta 70.000 judu eraman zituen Palestinara. Bi zatitan banatu zen, lehena 1934tik 1942ra nazien jazarpenetik ihes egiteko, eta bigarrena 1945tik 1948ra Holokaustotik bizirik ateratakoak Palestinara eramateko. 120 itsasontzik hartu zuten pate 142 bidaiatan. Itsasontzien erdiak Armada Britainiarrak geldiarazi, eta bertan zihoazenak atxiloteta zentroetara eraman zituen. Beste *aliyah*-ekin alderatuz ez zen arrakastatsua izan, baina Holokaustoaren eta Palestinarako immigrazioaren arteko lotura sortzeko balio izan zien agintari sionistei. *Shoah*-tik bizirik ateratako gehienak AEBetara joan baziren ere, agintari sionistek Europatik ihesi zihoazen juduen babesleku bezala aurkeztu zuten Israel.

IV.2. Britainiarraren azken urteak eta Nazio Batuen Misioa Palestinan

Gerra bukatuta, Palestinako arazoa lehen lerroan paratu zen beste behin. Baina, egoera zeharo desberdina zen 1945ean: 608.000 judu zeuden Palestinan, militarki ondo antolatuta, eta britainiarren aurka borrokatzeko prest. Palestinarrak, bestalde, milioi bat inguru ziren, eta Irak, Siria eta Egipto bezala independenteak izan nahi zuten. Gerra bukatu, eta hurrengo urteetan gobernu britainiarrak akordio ezberdinak aurkeztu zituen. Gehienek, Palestinaren banaketa, eta britainiarren kontrola zuten irtenbide bezala. Azken akordioa 1947ko urtarrilean aurkeztu zuen Ernest Bevin Erresuma Batuko atzerri gaietarako ministroak⁸⁹. Bi aldeen oposizioaren aurrean, otsailean Erresuma Batuek

⁸⁷ David Ben Gurion (12 September 1939) in TEVETH, Shabtai: *Ben-Gurion: The Burning Ground, 1886–1948*, Houghton Mifflin, 1987, p. 717.

⁸⁸ Europako egoera larria bazen ere, ihes egin zuten 3 miloi juduetik soilik %10 ezarri zen Palestinan. Gainontzekoek AEBetara joatea aukeratu zuten. PAPPE, *op. cit.*, 172. or.

⁸⁹ Bevinen proposamenak aurrekoen ildo bera jarraitzen zuen: Israelera sartu zitekeen immigrante juduen kopurua handitzea, eta britainiarren kontrolpean egongo ziren kantonamendu arabiar eta juduak sortzea. Estatu Batuei esku hartzea eskatzen zien. PAPPE, *op. cit.*, 175.or.

amore eman zuen, eta Mandatuaren kontrola Nazio Batuen esku utzi zuen. Momentu horretan, Erresuma Batuak Indian baino soldadu gehiago zituen Palestinan, eta talde paramilitar juduen atentatuek, hainbat hildako eragin zizkioten armadari. Sionisten atentatuen kanpainaren une aipagarriena 1946an britainiarren egoitza zen King David hotelaren aurkako atentatua izan zen. Bestalde, Erresuma Batua krisian aurkitzen zen Bigarren Mundu Gerraren ondoren, eta ezinezkoa zuen Palestinan indar militar bat eta erakunde kolonialak mantentzea. Ofizialki 1947ko otsailean hartu zuten Mandatuaren kontrola Nazio Batuek. Ordurako Arabiar Ligak palestinarren aldeko jarrera hartu zuen, eta sekretupean Jordaniako errege familiak sionistekin negoziatu zuen Palestinaren banaketa⁹⁰.

Nazio Batuek esku hartu zuten lehen gatazka garrantzitsua Palestinakoa izan zen. UNSCOPen -Nazio Batuen Misioa Palestinan- misioa herrialdearen etorkizunaren inguruan erabakitzea zen. 1947ko otsailetik azarora arte horretan aritu ziren, alde desberdinen proposamenak jasoz⁹¹. Sionistek lan handia egin zuten, eta hasieratik banaketa plan bat aurkeztu zieten ordezkariari. Palestinarrek, ostera, ez zuten proposamenik aurkeztu. Izan ere, beraietzat onartezina zen Palestina bitan zatitzea, herrialdean gehiengo izanik; Aljeria kolono frantsesen eta aljeriarren artean banatzea bezala ikusten zuten. Hori dela eta, palestinarren jarrera desabantailan zegoen Nazio Batuko ordezkarien aurrean; ordezkari gehienak banaketaren alde baitzeuden Errusia eta AEBen presioagatik, eta Holokaustoan gertatutakoagatik. 1947ko azaroaren 29an UNSCOP-en gehiengoak bere gomendioa aurkeztu zuen: batasun ekonomikoa zuten bi estatutan banatzea Palestina. Kostaldea, Galileako mendebaldea eta Negeveko desertua juduentzat (Palestinaren %56) eta gainontzekoa palestinarrentzat (%43,35). Jerusalem Nazio Batuen kontrolpeko "nazioarteko eremu" bihurtuko zen (%0,65)⁹². UNSCOP-eko gutxiengoaren gomendioak printzipio demokratikoetan oinarritutako estatu baten alde egin zuen. Sionistek, AEBtako *lobby* juduen presioa, eta AEB eta Errusiako gobernuaren babes baliatu zuten banaketaren plana aurrera ateratzeko. Palestinarrek bestalde ezer gutxi egin zuten ordezeko plan bat sustatzeko.

Azkenean 181. Ebazpena onartu zen, herrialde bitan zatituz. Hurrengo egunean lehen liskarrak piztu ziren Palestinan juduen eta palestinarren artean. Egunak aurrera joan ahala, egoera okertu egin zen, eta palestinarren lehen kanporaketak hasi ziren juduen partetik. 1948ko urtarrilean esaterako, kokaleku baten aurkako erasoagatik, sionistek palestinarren herrixka bat suntsitu zuten. Gertakari hori, martxotik aurrera abiatuko zen palestinarren aurkako garbiketa etnikoaren lehen adibidea bihurtu zen. Bitartean bi aldeak gerrarako prestatzen hasi ziren. Aldea ordea handia zen. Sionistek ongi entrenatutako armada zuten, esperientzia handikoa eta aginte bateratua. Palestinarrek bestalde entrenamendu gutxi zuten, eta klanetan banatuta zeuden. Beste herrialde batzuen babes izan zuten, Arabiar Ligak, Salbazioko Armada Arabiarra bidali zuten, eta Jordaniak Legio Arabiarra, baina legioak Jordaniako errege familiak sionistekin negoziatutako lur eremua kontrolatzea zuen helburu⁹³.

⁹⁰ PAPPE, *op. cit.*, 176. or.

⁹¹ Proposamen bat ere ez zen onargarria alde guztientzat: sionistak binazionalitatearen eta estatu bakarraren aurka zeuden, palestinarrek banaketaren eta estatu sionista baten aurka, eta bai sionistak zein palestinarrek nazioarteko gidaritzaren aurka zeuden. KHADER, *op. cit.*, 237.or.

⁹² KHADER, *op. cit.*, 249. or.

⁹³ Jordaniako Abdullah erregeak, britainiarren babesarekin, Agentzia Juduarekin akordio bat hitzartu zuen. Jordaniako Legio Arabiarrak Palestinako Ekialdea arazo gabe konkistatuko zuen, eta horren ordezkari bere partehartzea gerran mugatua izango zen. PAPPE, *op. cit.*, 180 or.

IV.3. 1948ko gerra: *Nakbah* eta independentziaren artean

1948ko martxoan hasi zen kanpaina militarra. Sionistek, D plana jarri zuten martxan. Beraien helburua ordu arte palestinarren aurka egindako kontrolik gabeko erasoak antolatzea zen. Gainera, eraginkortasun gehiago behar zutela ikusi zuten, izan ere nazioartean, batez ere AEBetan, banaketaren inguruko ideiak aldatzen hasi ziren, eta horren ordez bost urteko nazioarteko aginte bat ezartzearen alde agertu ziren. Ondorioz, sionistek berehalako garaipena behar zuten. D planak bi helburu zituen. Lehena, britainiarren instalazio zibil eta militarrek bereganatzea zen. Bigarrena, palestinarrek kanporatzea. Frontean ohiko gerra gertatzen zen bitartean, sionisten erretaguardian beste prozesu bat zegoen martxan. *Haganah*-ren *-yishuv*-en armada- brigada bakoitzari kanporatu beharreko herrixka palestinarren zerrenda eman zieten. Herrixka hauek askotan nekazaritzarako zuten balioagatik zeuden sailkatuak; baliotsuenak suntsitu egiten zituzten, eta besteetan bertan jarraitzen usten zieten palestinarrei. Haifa, Jafa, Safad edo Tiberias bezalako hirietan ere kanporaketak egon ziren. *Haganah*-k sistema bat ezarri zuen beraien kontrolpeko eremuetan zeuden herri palestinarrek husteko. Armadak herriak hiru aldetik inguratzen zituen, eta mehatxuen bitartez ihes egitera bultzatzen zituen palestinarrek⁹⁴. Behin ihes eginda ez zuten euren jabetzak aldarrikatzeko eskubiderik: errefuxiatu bihurtu ziren. Palestinarren kopuru handi bat euren kontrolpeko eremuetara edo beste herrialdeetara ihes egin behar izan zuten. Gaur egun oraindik, gatazkako arazo nagusietakoa da. Izan ere, bi estatuko akordioaren bitartez ez dute euren jatorrizko herrira bueltatzeko aukerarik izango. Eredu horiek sionistek gerran irabazitakoak izanik, Israelgo Estatuaren kontrolpeko eremuan geratuko direlako.

1949an armistizioa sinatu zenean, Nazio Batuek adostutako estatu juduaren barnean egon beharko ziren 850.000 arabiarretik soilik 160.000 geratu ziren, Israelgo Estatuan gutxiengo bilakatuz. Israelek konkistatu berri zituen herrixka eta kokaguneei hebreerazko izena jarri zieten, Israelgo Estatu berriaren judaizazioa burutuz⁹⁵. Kanporaketekin batera, hilketak ere izan ziren, batez ere hiri mistoetan. Ezagunena Dir Yassinen gertatu zen, Jerusalem inguruan; apirilaren 9an *Irgun* eta Stern taldeetako paramilitarrek 107 palestinar hil zituzten. Palestinarrek ahaleginak egiten erantzuten, baina aginte bateraturik ez izatean eraso gehienak porrot egin zuten. Palestinarren unitate militarrek ez ziren izan gai herrixka palestinarrek babesteko, eta zenbait bidegurutze eta instalazio militarrek hartu bazituzten ere, sionisten erasoak hasi zenean ihes egin behar izan zuten:

Jewish villages were built in the place of Arab villages. You do not even know the names of these Arab villages, and I do not blame you because geography books no longer exist. Not only do the books not exist, the Arab villages are not there either. Nahlal arose in the place of Mahlul; Kibbutz Gvat in the place of Jibta; Kibbutz Sarid in the place of Huneifis; and Kefar Yehushua in the place of Tal al-Shuman. There is not a single place built in this country that did not have a former Arab population⁹⁶.

⁹⁴ Sarraski eta hilketa ugari egin zituzten *Haganah*-k eta talde paramilitarrek juduen kontrolpeko herri palestinarretan. Batzuetan eraso palestinarren osteko errepresaliak ziren, baina beste askotan ekintza sistematikoak ziren, palestinarrek ihes egitea helburu zutenak. PAPPE, *op. cit.*, 186. or.

⁹⁵ Komite batek asentamendu berriei izen originalaren hebreerazko bertsioa jarri zien. Adibidez Luby Lavi bihurtu zen, eta Artuf, Hartuv. PAPPE, *op. cit.*, 197 or.

⁹⁶ Moshe Dayan, April 1969, *Ha'aretz*, in SAID, Edward: *Zionism from the Standpoint of Its Victims*, Social Text, Volume 1, 1979, 7-58. or.

Azken britainiarrek 1948ko maiatzean egin zuten alde. Ordurako arabiarren heren bat beraien etxeetatik kanporatu zituzten, eta 70.000 arabiarrek, gehien bat elite eta goi mailako pertsonak, herrialdetik ihes egin zuten. Britainiarrek alde egin zutenean lehen fasea bukatu zen, eta ordutik aurrera herrialde arabiarretako armadak sartu ziren gerran. Bigarren fasean ere, sionistek mugimendu politiko bezala ekiteari utzi, eta pauso erabakigarria eman zuten; Maiatzaren 14ean Israelgo Estatu aldarrikatu zuten. Segituan AEBen aitortpena jaso zuten, eta egun bat beranduago Sobietar Batasunarena. Hurrengo egunetan beste estatu batzuen onarpena heldu zen. Maiatzaren 15ean independentzia aldarrikapenari erantzunez, eta britainiarrak alde eginak zirela ikusita Egiptoko, Libanoko, Irakeko eta Jordaniako armadek muga zeharkatu eta Palestinan sartu ziren. Ordutik aurrera, lubaki gerra bat bilakatu zen, eta irabazitakoa mantentzea zuten helburu sionistek, eta ahalik eta lurralde gehien anexionatzea arabiarrek.

Gerrak 1948ko maiatzetik 1949ko urtarrila arte iraun zuen. Bi su-eten hitzartu ziren, eta 1949tik aurrera herrialde arabiar gehienek armistizioa sinatu zuten sortu berri zen Israelgo Estatuarekin. Bi armadak tamainaz antzekoak ziren, eta gerraren unerik gogorrenetan 100.000 soldadu izatera iritsi ziren. Arazoak izan zituzten armak lortzeko hasiera batean Nazio Batuek ezarritako enbargoa zela eta. Gerraren lehen faseetan armada arabiarrek zenbait garaipen lortu zituzten, baina laster atzera egin behar izan zuten hobeto entrenatuta eta hobeto zuzenduta zegoen *Haganah*-ren aurrean. Ekainaren 10ean lehen su-eten hitzartu zuten. Jordaniako gobernua ados zegoen, Zisjordania bere kontrolpean zuelako. Gainontzeko aldeek, ordea, gerrarekin jarraitu nahi zuten. Uztailaren 8an hasi ziren berriro borrokak. Oraingoan Israelek, su-etenean eskuratutako armei esker, Zisjordania, Gaza eta Ekialdeko Jerusalem izan ezik, gainontzeko Palestinaren kontrola lortu zuten. Bigarren su-eten bat ezarri zen hamar egun beranduago, eta Nazio Batuek negoziazio talde bat bidali zuten Bernadotte kondea buru zuela⁹⁷.

Bernadotten planaren arabera Israelek konkistatutako eremuak mantenduko zituen, baina Negeveko desertua Jordaniari bueltatu behar zion. Ben Gurion Negev Jordaniari bueltatzearen aurka agertu zen eta muturreko judu batzuek irailean Bernadotte kondea hil zutenean, Palestinako hegoaldearen konkista abiatu zuen. Nazio Batuek zigorrak ezarri zizkion Israeli, baina azkenean AEBen eta Erresuma Batuen mehatxua izan zen su-eten onartzera bultzatu zuena Israel. Herrialde arabiarrek bestalde, ezer gutxi egin zezaketen israeldarren garaipenen aurrean, eta Nazio Batuen armistizio plana onartu zuten. Akordioak 1967 arte iraun zuen Siria, Jordania, eta Egiptoren kasuan, eta 1978 arte Libanoren kasuan. Irakek ez zuen sinatu ez zuelako mugarik Israelekin. Armistizioak baina, ez zuen lortu beste gerra bat eragozte, eta istiluak ohikoak izan ziren mugaldeen⁹⁸. Gerra bukatzean Palestina hiru entitatetan banatu zen: Israelgo Estatu, Jordaniaren menpeko Zisjordania (Ekialdeko Jerusalem barne) eta Egiptoren menpeko Gaza. Gerra, sionistentzat, arabiarren eta britainiarren aurkako askapen mugimenduaren garaipena izan zen. Estatu berria, *Shoah*-ren ostean, mundu osoko juduen etxea bihurtu zen. Palestinarentzat gerra *Nakbah* bezala gogoratzen da, hondamendia. Herrialde arabiarren ezintasuna proiektu sionista

⁹⁷ Bigarren su-eten sionisten proposamena izan zen. Ez zuten nahi nazioarteak beraien aurkakoa izan zitekeen irtenbide bat aurkeztea. Nazio Batuen bitartekoa zen Bernadotte kondeak armistiziorako bi proposamen aurkeztu zituen. Bi proposamenek banaketa aurreikusten zuten, baina zatiketaren desberdintasunak zeuden. PAPPE, *op. cit.*, 191 or.

⁹⁸ Akordioak porrot egin bazuen ere urte batzuk beranduago 1967ko Sei Eguneko Gerran, momentuan borrokak gelditu zituen eta Palestinako arazoaren irtenbidetzat ikusi zuten askok. Akordioaren egileari, Ralph Bunch, Bakearen Nobel saria eman zioten. PAPPE, *op. cit.*, 193 or.

geratzeko, eta nazioarteko potentzien jarrerak palestinarrak lurrik gabe geratzea suposatu zuen. Beraien independentzia galtzeaz gain 711.000 palestinarrak beraien etxeak utzi eta errefuxiatu bihurtu ziren. Gainontzeko palestinarrak Jordania eta Egiptoren menpe geratu ziren.

1948ko maiatzaren 14ean bukatu zen Mandatu Britainiarra, eta hurrengo egunean Israelgo Estatu sortu zen. Mandatuaren lehen urteetan Palestinako biztanleen %94 musulmanak ziren eta juduak %6. 1948an juduak %33 ziren, baina oraindik Palestinako lurren %6,6 gaineko kontrola zeukan. Hala ere, gerran garaile atera ziren, eta independentzia aldarrikatu zuenean maiatzaren 14ean, Palestinaren %78 kontrolatzen zuten. Gerra bukatzean ordea Palestinaren %78 Israelgo Estatuaren parte bilakatu zen. Hogeita hamar urteko tartean, sionistek Palestinako biztanleen gutxiengoa izanik une oro, kasik Mandatu osoa bereganatzea lortu zuten. Unean uneko eskaintzak aprobetxatuz, eta kanporaketa sistema bat ezarri lortu zuten arrakasta, eta konkista ez zen erabatekoa izan palestinarren kopuru handiagatik, eta izan ahalko zuten nazioarteko presioengatik.

3.AMAIERA/ONDORIOAK

Judenfrage-tik Israelgo Estatuaren sorrerara izeneko gradu amaierako lan honen helburua, Ekialde Hurbileko gatazka luzeenaren jatorria eta arrazoiak bilatzea da. Zeregin hori gehienbat juduen ikuspegitik landu dut, eta alde bakarrean arreta jartzea baliagarria suertatu zait, arabiar eta israeldarren gatazkan sionismoak izan duen garrantziaz jabetzeko. Ikerketa honen ostean ondorioztatu dezaket, sionismoa dela Israelgo Estatua existitzearen arduraduna, eta ondorioz bere garapena mugimendu politiko gisa da gaur egungo arabiar eta israeldarren arteko liskarren arrazoi nagusia. Izan ere, Israelgo Estatua nola eratu zen aztertu ezker, argi ikusten da prozesu horretan hartutako erabakiak eta sortutako ideologia gatazkarako bide izan zirela.

Izan ere, sionismoa mugimendu politiko nazionalista da. Bere helburua beti izan da juduentzako estatu bat eratzea. Estatu horretan, juduak izango dira gehiengoa, eta juduen erakundeek aginduko dute gizarteko arlo guztietan. Hori horrela izatearen arrazoi nagusia juduek, Erdi Arotik XX. mende erdi arte, Europan bizitako jazarpena berriz ez errepikatzea izan zen. Horregatik, sionismoa eratu zenean juduak beste guztiaren gainetik egon behar zirela argi izan zuten. Modu horretan, beraien jatorriagatik jazarpen bai soziala zein instituzionala ekidin ahal izateko. Normala denez, ideia horrekin sortutako ideologia politikoak gatazkarako bidea zabaldu zuen, bere izaera mugatzaile eta baztertzaila zela eta. Juduentzako estatu hori, ez baitzen sortu inor bizi ez zen lur eremu batean, Palestinan baizik. Israelgo Estatua nonbait sortu behar zen, eta argi zegoen Europan ezinezkoa izango zela. Juduekiko lotura historiko eta erlijiosoengatik Palestina izan zen hautatua. Beste aukera batzuk izan baziren ere (Argentina, “Uganda”...) azken hauek izaera praktikoagoa zuten; estatu bat sortzeko arazo politiko gutxiago suposatzen zuten. Palestinak ordea, lotura historiko oso estua zuen komunitate juduarekin, eta sionistek osatu zuten historia nazionalerako soilik Palestina zen baliagarria. Hala ere, bertan bizi zen populazioa ez zen kontuan hartu.

Sionismoak modu horretan jokatzeko mugimendua sortu zen garaiarekin lotura estua du. Sionismo politikoa 1897an sortu zen Basileako Lehen Kongresu Sionistan, beraz, kolonialismoa puri-purian zegoen garaian. Garai hartan nagusi ziren ideiek eman zioten forma sionismoak Ekialde Hurbilaz zuen ikuspegiari. Sionistak, Europako juduak ziren heinean, Europatik kanpo zeuden lurak “atzeratutako” herriek osatzen zituzten ideia zuten; mendebaldeko aurrerapenen beharra, kultura landuago batena... “basatiak” ziren. Ikuspegi horrek, eta Palestinan ezartzeko aurre-prestaketa eta lan teoriko guztia Europatik egin izanak eragin zuen Palestinako jatorrizko biztanleak kontuan ez hartzea. Ez sionistek, ez eta Europako potentziek ere. Baina, sionisten proiektua, beste kolonialismo mota bat zen. Sionisten helburua ez zen herrialdeko lehengai eta aberastasunak bereganatzea, edota bertako biztanleei kultura eta bizimodu bat inposatzea. Alderantziz, sionistek munduko juduentzako “etxe” bat nahi zuten, eta ez zuten inolako interesik palestinarrei euren kultura eta erlijioa ezartzeko; ezta bizimodu horren parte izateko. Prozesuak, beraz, kolonialismoaren egiteko era asko ditu, baina, oinarrian mugimendu nazionalista batek aurrera eramandakoa izan zen. Sionisten helburua nazio berri bat eraikitzea zen, ez metropolia aberastuko zuen lurralde bat kontrolatzea. Ez hori bakarrik, kolonien aldean, Israelgo Estatua desagertzekotan, bertako juduek ez lukete izango bueltatzeko jatorrizko herrialde bat. Edonola ere, sionismoa kolonialismoaren garaian garatu izana lagungarria izan zen bi arrazoiengatik. Alde batetik, Europako estatu ezberdinek kolonietan erabilitako sistema moldatu eta beraien probetxurako lan egingo zuen sare bat eratzen lagundu zirelako –Agentzia Judua, Munduko Erakunde Sionista-. Bestetik, kolonialismoaren lasterketan, Europako estatu

boteretsuenen interesekin jokatu zutelako sionismoaren onarpena, eta aldarrikapenak eskuratzeko.

Sionisten erakundetzea, beraz, palestinarren anabasaren aurrean, Israelgo Estatu sortzeko gakoetako bat izan zen. Agentzia Judua, Munduko Erakunde Sionista edota *Haganah* (sionisten erakunde armatu nagusia) horren erakusle izan ziren. Hala ere, sionismoak ez zuen ez indarririk, ez eta babes zabalik bere lehen urteetan komunitate juduaren baitan ere. Askotan ikusi da sionismoa Europako juduen ekinbide komun bat bezala, eta ondorioz Palestinan ezartzeko plana, urte luzez Europako juduek aurreikusitako ekintza bat. Baina, XIX. mende amaieran ordu arte bezala, errabinoak zen Europako komunitate juduen aginte nagusia, eta ez zegoen sionisten proiektuaren alde. Errabinoen helburua garai hartan, juduak bizi ziren estatuko herritar bihurtzea zen –judu sinesmeneko frantses, aleman, britainiar-, eta ez Europatik kanpoko estatu batean estatu bat hustetik sortzea. Are gehiago, estatu hori Palestinan egotearen erabat kontra zeuden. Horren aurrean, sionismoa Europako juduak bereganatzen hasi zen bi bideren bitartez. Lehena, euren proiektua justifikatuko zuen historiografia bat eratzea izan zen. Bigarrena ostera, ez zen sionismoaren ekinbide bat izan, kanpoko faktore indartsu bat baino, antisemitismoa. Hala ere, antisemitismoa bihurtu zen sionismoak baliatu zuen arrazoi nagusia.

Sionismoak osatutako historiografiaren helburu nagusia, Palestinan estatu judu bat ezartzeko proiektua justifikatzea zen. Esan bezala, Palestina aukeratzea eta ez beste lurralde bat berebiziko garrantzia izan zuen. Erlijio juduaren jatorri izanik, eta bere historian zehar garrantzi handia izan duen eremu bat, juduen eta Palestinaren arteko lotura bat bazen. Lotura hori proiektua erakargarri, eta era berean Palestinarako immigrazioa itzulera bat bezala irudikatuz. Horretarako etenik gabeko kontakizun bat osatu zuten antzinarotik XIX. mende arte, non juduak bereizi gabeko herri bat bezala ageri diren. Ekialde Hurbiletik ihes egin behar izan zutenak eta hara itzultzeko zain daudenak. Historian erreparatuz gero, egia da judu sinesmena zuen komunitate handi bat bizi zela Palestinan. Hala ere, historiografia sionistak bere kontakizun propioa eraiki zuen etorkizunean lurraren jabetza eta eskubide historikoak aldarrikatzeko. Aldarrikapen horiek bi ideia okerretan oinarritzen dira. Lehena, juduak herri aukeratu bezala iritsi zirela Kanaanera –gaur egungo Palestina-, eta bigarrena bertatik indarrez kanporatuak izan zirela. Laburbilduz, Palestinatik kanporatua izan zen herri bereizi baten historia osatu behar izan zuten sionistek, bertakoak albo batera utzi, eta Palestina soilik beraienez aldarrikatu ahal izateko.

Historiografiak hortaz, oinarri eta justifikazioa bat eman zien sionistek, baina, antisemitismoak bultzatu zituen asko Palestinara joatera. Izan ere, antisemitismoak erakutsi zien juduei ez zirela inoiz egongo European jentilen parera. Beraienganako, bazterkeria eta gorrotoa indartsua zela, nahiz eta erlijioak indarra galdu gizarte europarrean. Ondorioz, Europako giro erasokor eta baztertzaleak bultzatuta, judu asko bere jatorrizko herrialdeetatik ihes egin behar izan zuten. Erdi Aroan hasi zen juduenganako jazarpena. Antijudaismo bezala ezagutzen zena, eta sinesmen judua zuen bereizketaren oinarri. Ordutik aurrera, Europako juduak baztertuta bizi ziren; ghettoetan bakartuak, eta euren jabetza edo lanbideak mugatzen zituzten arauekin. XVIII. mende amaieratik aurrera, erlijioa indarra galtzen hasi zen European, eta gizartean aldaketa ugari gertatu ziren. Garai berrietara egokitzeko asmoz, saiakerak egin ziren juduak asimilatzeke; jentilen eskubide berberak emateko. Saiakerak, arrakasta izan beharrean, bazterkeria eta jazarpen modu berri baterako bidea ireki zuten, antisemitismoa. Erlijioaren justifikazioak indarra galduta, juduak herri bihurtu zituzten. Erlijioak ez zituen bereizi egiten, orain “arrazoia” judua zen desberdintzen zituena. Horrek, Erdi Aroan hasitako jazarpenak jarraitzea suposatu zuen, eta kasu askotan juduenganako gorrotoa

areagotu egin zen. Pogromoak Errusian eta Ekialdeko Europan, Dreyfus kasua, konplotaren teoriak, Holokaustoa... Nahiz eta aldeak zeuden herrialde batetik bestera orokorrean Europan, Bigarren Mundu Gerra bukaera arte, bizimodu zaila izan zuten juduek. Hala ere, egoera lazgarri horren aurrean sionismoak ez zuen lortu Palestina juduen azken portu bihurtzea. Horren ordean, AEB edota Europa Mendebaldeko zenbait herrialde aukeratu zituzten. Gehienek herrialde “toleranteagoetara” emigratu zuten – Erresuma Batua, AEB, Kanada-, baina, XX. mende hasieran Erresuma Batuan, eta 1921etik aurrera AEBetan emigrazio legeak medio, juduen sarbidea zaildu egin zen. Orduan, bihurtu zen *aliyah* –Palestinara emigratzea- aukera bakarra juduentzat, eta horrekin batera sionismoa bihurtu zen juduek segurtasuna lortzeko bidea.

Joera hori batez ere, judu komunitate handiak zeuden herrialdetan gertatu zen, alde handiak baziren hala ere, herrialde batetik bestera. Europa Mendebaldean juduak gizartean barneratuta zeuden neurri batean (batez ere goi mailako juduak), eta ondorioz immigratzeko beharrian gutxiago zuten, euren egoera hobetuz zelako. Hala ere, ideia antisemitik oraindik bizirik ziren. Ekialdean ostera judu komunitatea handiagoa zen, eta emantzipazioak ez zuen lortu gizartean berdintasunean bat egitea. Bazterkeriak tradizio handia zeukan, eta ondorioz juduak komunitate itxietan bizi ziren, gizartean barneratu gabe. Ez hori bakarrik, ekialdean bizi zuten bereizkeria horrek ekarri zuen judutasuna nazio sentimendu batetik garatzea. Ondorioz, sionismoa baliatu egin zen Ekialdeko Europan juduek bizi zuten egoeraz, eta *Yiddishland*-en garatutako nazio sentimenduz. Era berean, sionismoak egoera aprobetxatuz beraien ideologian txertatuta dagoen ideia nagusia aldarrikatu zuen: juduek gehiengoa diren estatu bat behar dute jazarpenetik libratzeko. Beraz, XIX. mende bukaeran eta XX. mendearen hasieran jazo zen gertakaria izan zen emigrazio judua, eta ez Bigarren Mundu Gerrako *Shoah*-ren osteko zerbait soilik. Ez hori bakarrik, hasierako immigrante judu gehienak errusiarrak ziren, tsarraren eta Errusiako gizartearen jazarpen eta bazterkeriatik ihesi. Alabaina, 1948 ostean ere, nahiz eta Israelgo Estatu errealitate bat zen, aukeran, judu gehienek AEBetara joatea erabaki zuten.

Komunitate juduaren zati handi batengan eragitea garrantzitsua bazen, nazioarteko potentziak konbentzitzea bihurtu zen sionismoaren beste helburua. Hala ere, sionismoaren baitan denak ez ziren nazioarteko onarpen baten aldekoak. Estatu judu baten egikaritzea burutzeko sionismoaren baitan bi ikuspegi zeuden: beste nazioen onarpenaren bidez estatu bat lortzean oinarritzen zena, eta kolonia eta kokaguneen bitartez estatu judua eratzea helburu zuena. Azkenean, kolonien eraketa lurraldea bereganatzeko bidea izan bazen ere, potentzien babesaren aldeko apustua egin zuten. Potentzia baten babesa ezinbestekoa zuten, izan ere XIX. mende amaieran kolonialismoaren garaian herrialde nagusien oniritzia beharrezkoa zuten lurralde batean ezartzeko. Are garrantzitsuagoa bihurtu zen estatu boteretsuen laguntza Palestinaren kasuan. Izan ere, Lehen Mundu Gerra bukatuta, Otomandar Inperioa desagertu egin zen, eta herrialde asko ziren inperioaren zati ezberdinak bereganatu nahi zituztenak. Lasterketa kolonialean sionistek euren interesak lortzen lagunduko zien potentzia bat bilatu nahi zuten, baita estatu horrek beraiengan interesa izatea ere. Guztiekin saiatu ziren, eta ez zuten itxi aterik, baina azkenean Erresuma Batuen eta sionisten arteko elkarlana izan zen Israelgo estatuaren sorreraren giltza.

Erresuma Batua izatea ez zen kasualitatea izan. Garai hartan munduko potentzia kolonial nagusia zen, eta presentzia handia zuen Ekialde Hurbilean. Palestina lortzeko ordea arazoak zituen, besteak beste Frantziarekin. Sionistek Palestinan ezartzeko proiektua aurkeztu zutenean, agintari britainiarrek, eskualdea kontrolatzeko bide bezala ikusi zuten Erresuma Batuen laguntza izango zuen kolonia judu bati laguntzea. Sionistak ere horren jabe ziren eta euren proiektua aurkezterakoan, Erresuma Batuen

aliatu eta mendebaldeko pentsamoldearen defendatzaile bezala aurkeztu ziren. Baina, hortik aparte ezer gutxi egin zuten batera. Alde bakoitzak bere planak zituen, eta azken helburua Palestina bere osotasunean kontrolatzea zen. Ez da ahaztu behar, guztiaren gainetik alde bakoitzak bere helburu propioak zituela. Elkarlana bazegoen, baina azken portura heltzeko erdibide bezala. Britainiarrek, ohiko kolonia gisa, metropolia aberasteko tresna gisa, eta sionistek juduentzako estatu independente bat bihurtzeko. Britainiarrek arabiarrekin ere egin zituzten akordioak estatu arabiar bat eratzeko gerra ostean, baina bazekiten eskualdearen kontrola lortzeko juduekin zuten akordioa zela onuragarriena. Akordio hori sendotzeko Palestinaren etorkizunean eragin handiena izan duen dokumentua kaleratu zuten: Balfour-en deklarazioa. Horren bidez, Erresuma Batuko gobernuak juduei Palestinako mandatuan “juduen etxe” bat promesten zien. Deklarazioaren bidez, gobernu britainiarrak Palestinan ezartzeko sionisten desira baliatzen zuen, eta Europan “juduen arazoari” irtenbidea ematen zion. 1917ko azaroaren 2an gobernuak deklarazioa igorri zion Ingalaterrako juduen komunitateko buru zen Lionel Walter Rothschildi.

Baina, bi aldeen arteko hartu eman hori posible izateko, interes kolonial hutsetatik haratago, beste faktore oso garrantzitsu bat bazen Erresuma Batuan: puritanismo filosemitaren eragina. Puritanoek Bibliaren irakurketa propioa aldarrikatzen dute, Testamentu Zaharrari garrantzi handiagoa emanez. Puritanoen helburuetako bat juduen emigrazioa Palestinara bultzatzea zen. Baina, ez zen juduen aldeko karitatezko proiektu bat. Arrazoi erlijioso bat zegoen babesaren atzean. Puritanoentzat gizateria salbatzeko, judu guztiak Sionera bueltatu beharra zuten. Behin hori lortuta Jerusalemgo Tenplua berreraiki ahalko zutelako, Apokalipsiari hasiera emanez eta horrek Jesusen bigarren itzulera ahalbidetuko zuen. Noski, horrek Ingalaterran Europako beste estatu batzuen aldean juduekiko jarrera abegikorragoa izatea suposatu zuen. Beraz, Frantzia edo Alemania bezalako herrialdeetan ez bezala Erresuma Batuan sionismoaren aldeko sektore ugari zeuden, bakoitza bere helburu propioekin. Batzuentzat helburu kolonial soilak zeuden, besteentzat zentzu erlijioso bat zegoen guztiaren atzean. Edonola ere, sionismoarekiko babesa zabalagoa zen, eta prentsan eta literaturan horrela ikusi zitekeen, eta gobernuak juduak Palestinan ezartzea begi onez ikusten zuten. Gaur egun, Estatu Batuetako ebanjelikoak puritanoen oinordekoak dira sionismo kristauaren aldeko apustuan.

Modu horretan sionismoak, proiektuaren arrakastarako osagai guztiak zituen. Antisemitismoaren ondorioz jazarpenetik ihes egiteko irtenbide bakarra zen behin juduen immigrazioari trabak jartzen hasi zirenean. Gizarte modernoaren asimilazioaren aurrean, kultura eta bizimodu judua defendatzen zituen. Azkenik, garai hartako potentzia nagusiaren promesa zuen estatu judu bat eraikitzeke. Aldeko faktore horiekin, 1897 eta 1917 artean, sionismoa komunitate juduan gutxiengoan zegoen mugimendu bat izatetik, indartsuena izatera pasatu zen. Hurrengo urteetan are gehiago indartu zen, antisemitismoaren gorakada zela eta. XX. mende hasieran sionisten presentzia errealitate bat zen Palestinan. Arazo bat zegoen ordea, eta sionistak Palestinan ezarri ziren lehen momentutik gatazkarako arrazoi bihurtu zen. Prozesu guztian zehar, Palestinako biztanleak ez ziren kontuan hartu. Ez sionismoaren helburuak finkatzerakoan, ez etorkizuneko estatu judua Palestinan ezartzerakoan, ez eta potentziarekin negoziatzerako orduan ere. Hor abiatu zen gatazkarako bidea. Palestinarrak alde batera uzten zituen proiektu sionista praktikan jarri zen unean.

Sionismoaren teoria politiko guztiak, izan ezkerrekoa zein eskuineko, erlijioso edo laiko, palestinarren presentzia eta eskubideak baztertzen zituzten. *Fellahim*-en teoria izan zen bakarra Palestinako jatorrizko biztanleak kontuan izan zituena. Betiere, biztanle hauek antzinaroko juduen ondorengo bezala ikusten zituelako. Sionismoaren

pentsalari nagusiek –Herzl-, Pinsker, Kook, Jabotinsky, Ben Gurion- juduen aurkako jazarpenaz hitz egiten zuten. Etorkizuneko estatuaren egitura, gizarte antolaketa, lana, erlijioa... gai ugari landu zituzten, baina inoiz ez ziren aipatzen palestinarrak. Sionistentzat, Palestina, desertu huts bat zen juduen etorreraren zain zegoena. Baina, Palestina ez zegoen hutsik, are gehiago, inguruko eskualdeekin alderatuta dentsitate handia zeukan Palestinak. Hortaz, estatu berria eraiki eta forma eman behar zioten teoria horiek guztiek, paperetik praktikara eramatean, gizarte polarizatu bat sortu zuen: juduak eta palestinarrak. Gatazkarako bidea ireki zen, eta britainiarrek –une horretan Palestinako aginte koloniala- ezer gutxi egin zuten irtenbide bat bilatzeko. Balfour-en deklarazioagatik eta interes kolonialengatik ez zuten neurrik hartu nahi. Nolabait eskuak lotuta zituzten. Bitartean, immigrazio judua gorantz zihoan, eta sionismoak indartzen segitzen zuen. 1930etik aurrera lehen liskarrak hasi zirenean, palestinarrak eta juduen artean, berandu zen egoerari buelta emateko. Sionismoaren proiektua aurrera zihoan eta gatazka saihestezina zen.

Gatazka ofizialki 1948an hasi eta 1949ko armistizioarekin bukatu zen. Nahiz eta, 1930eko hamarkadan liskar ugari egon ziren bai palestinarrak eta juduen artean, eta baita Mandatu Palestinarreko gobernuarekin ere. 1948ko gerratik Israelgo Estatu atera zen garaile nagusi, Israelgo Estatu aldarrikatu zuen, eta Palestinaren %78 kontrolatzea lortu zuen. Galtzaileak palestinarrak izan ziren, estatu gabe geratu ziren, euretako asko kanporatuak, eta beste asko estatu berrien agindupean; batzuk Israelen kontrolpean, eta beste asko Jordania eta Egiptorenean. Beste behin, sionismoa, eta batez ere helburuak lortzeko batera ekiteko duen gaitasuna, dira arrakastaren gakoa. Basileako Kongresutik gerra arte, mugimendu politiko bezala trinkotu egin zen sionismoa, eta nahiz eta desberdintasun ideologikoak oso nabariak izan, gerran zehar bat eginda aritu ziren. Batasun horren ondorioz, erraz gailendu zitzaizkien, lehenik palestinarrak eta ondoren gerran sartu ziren estatuei. Sionismoak estatu bezala funtzionatu zuen Mandatu Britainiarrean zehar, eta ondorioz erraz egin zion aurre egoerari britainiarrek alde egin zutenean. Sionismoa eta sionismoak sortutako egitura instituzional eta militarra izan zen beraz, Israelgo Estatu sortzearen arrazoia. Gerra horretan ordea, arabiar eta israeldarren arteko liskarrak betikotu dituen azken gertakari nagusia jazo zen. Lurren erosketak, lanaren banaketa, eta bestelako politikek gerra piztu bazuten, gatazka horretan sistematikoki *Haganah*-k milaka palestinarrak kanporatu eta euren jabetzak bereganatzeak, gatazka errotu zuen.

Hau guztia ikusita, ondoriozta dezaket sionismoa izan zela Israelgo Estatu sortzeko arrazoi nagusia, eta ondorioz bi aldean arteko liskarrena ere. Ez zuen gehiengoaren babesa sortu zenean, eta gaur egun ere ez du ordezkatzeko munduko judu gehienek ikuspegia. Hala ere, babes zabala lortu zuen faktore ezberdinen ondorioz eta gaur egun mantentzen du babes hori. Komunitate juduaren barruko mugimendurik indartsuenetako bat da duda gabe, eta gaur egun Israelgo Estatuarekiko elkartasuna da horren erakusle. Baina, sionismoa Israelgo Estatuaren sorreraren arrazoi den bezala, arabiar eta israeldarren arteko liskarren arrazoi ere bada. Mugimendu politiko bezala garatutako ideia baztertzailerik eta kolonialak palestinarrakiko, eta hauen aurkako borrokan hartutako erabakiek zehaztu zuten gaur egun oraindik jarraitzen duen gatazka. Are gehiago, gatazka hori ez da soilik arabiar eta israeldarretara mugatu. Azken urteetan Israelgo gizartearen baitan banaketa areagotu egin da. Ikerketa honek hartzen duen denbora tartean, sionismoaren ikuspegi ezberdinak garatu ziren, eta ikerketan ageri dira euren arteko alde nabariak, baina estatu sendotu zuten arte ikuspegi guztiak nolabait elkarrekin aritu dira. Gaur egun ordea, sionismoaren sorreran sortutako adar ezberdinek talka egin dute. Arrazoiak ugariak dira: gizarte antolaketaren ikuspegi ezberdinak, inoiz modu argian zehaztu ez den nazio baten mugak, erlijioaren eta estatuaren arteko botere



banaketa... Ondorioz, mugimendu erlijiosoek eta eskuindarrek gora egin dute. Ikuspegi politikoa inoiz baino zatikatuago dago, eta ondorioz palestinarrekin duten gatazkarekiko jarrera muturrera eramán dituzte. Estatu sortu ostean, eta batez ere 1967tik gaur egun arte sionismoak jasandako eboluzioak beste ikerketa zabalago bat beharko luke. Baina, argi dago sionismoak bere proiektu politikoa proposatzeko era, hau praktikara eramateko moduak eta estatua sortu aurretik hartutako bideak arabiar eta israeldarren arteko gatazka sortu, errotu, eta betikotu egin duela.

BIBLIOGRAFIA

BEN-GOURION, David: “Une loi pour tous” (1912) in CHARBIT, Denis (ed.): *Sionismes. Textes fondamentaux*, Éditions Albin Michel, Paris, 1998, 399-403 or.

_____ “Le don du pays” (1915) in CHARBIT, *op. cit.*, 180-183 or.

_____ “Il nous faut faire vite!” (1919) in CHARBIT, *op. cit.*, 605-607 or.

_____ “La relève de la garde” (1929) in CHARBIT, *op. cit.*, 443-447 or.

_____ “Un peuple comme tous les autres peuples” (1933) in CHARBIT, *op. cit.*, 556-559.or.

BOROKHOV, Ber: “Sionisme et territoire” (1903) in CHARBIT, *op. cit.*, 319-330. or.

_____ “Les désillusions du progrès” (1905) in CHARBIT, *op. cit.*, 71-78. or.

_____ “La démarche petite-bourgeoise du Bund” (1906) in CHARBIT, *op. cit.*, 105-109. or.

COHN, Norman: *El mito de la conspiración judía mundial-Los Protocolos de los Sabios de Sión*, Alianza Editorial, 1983 [1967].

DE LANGE, Nicholas: *El pueblo judío*, Folio, Bartzelona, 2011 [2008].

EPSTEIN, Barret: “Benzion Netanyahu’s History” in *Tablet Magazine*, 2010eko uztailearen 6a.

FINKELSTEIN, Israel eta SILBERMAN, Neil Asher: *La Biblia desenterrada*, Siglo XXI, Madril, 2003 [2001].

HAAM, Ahad: “Servitude dans la liberté” (1891) in CHARBIT, *op. cit.*, 61-72. or.

HAAM, Ahad: “Nous allons vers une guerre difficile...” (1891) in CHARBIT, *op. cit.*, 393-396. or.

_____ “L’Etat Juif et le probleme juif” (1897) in CHARBIT, *op. cit.*, 199-204. or.

_____ “Degrés de la conscience nationale” (1898) in CHARBIT, *op. cit.*, 118-126. or.

_____ “Une conscience nationale “affranchie” de son passé juif est une absurdité” (1911) in CHARBIT, *op. cit.*, 227-233. or.

_____ “La véritable signification de la Déclaration Balfour” (1920) in CHARBIT, *op. cit.*, 610-615. or.

HERZL, Theodor: “On ne nous laissera pas tranquilles” (1896) in CHARBIT, *op. cit.*, 46-51 or.

_____ “Le gestor des Juifs” (1896) in CHARBIT, *op. cit.*, 141-144 or.

_____ “Palestine ou Argentine?” (1896) in CHARBIT, *op. cit.*, 310. or.

_____ “Terre ancienne, terre nouvelle” (1902) in CHARBIT, *op. cit.*, 144-155. or.

JABOTINSKY, Zeev: “Une éducation hébreue” (1903) in CHARBIT, *op. cit.*, 283-289 or.

_____ “Colonisation et politique de colonisation” (1915) in CHARBIT, *op. cit.*, 183-185 or.

_____ “L’Orient” (1926) in CHARBIT, *op. cit.*, 373-379 or.

_____ “La Muraille de fer (Les Arabes et nous)” (1933) in CHARBIT, *op. cit.*, 537-542 or.

_____ “La morale de la ‘muraille de fer’” (1933) in CHARBIT, *op. cit.*, 543-545 or.

_____ “Apprendre à tirer” (1933) in CHARBIT, *op. cit.*, 584-587 or.

_____ “Rompre avec la politique de retenue” (1938) in CHARBIT, *op. cit.*, 588-593 or.

KHADER, Bichara: *Los Hijos de Agenor, Europa y Palestina desde las cruzadas hasta el siglo XXI*, Ediciones Bellaterra, Bartzelona, 1998.

KOESTLER, Arthur: *Promise and Fulfillment, Palestine 1917-1949*, Papermac, Londres, 1983.

KOOK, Avraham Yitzhak: “Les lumières de la renaissance” (1920) in CHARBIT, *op. cit.*, 477-498 . or

PAPPE, Ilan: *Historia de la Palestina moderna*, Akal, Madril, 2007 [2004].

PINSKER, Léon: “Devenir une nation” (1882) in CHARBIT, *op. cit.*, 198-199. or.

_____ “La fatalite de notre histoire” (1882) in CHARBIT, *op. cit.*, 27-30. or.

_____ “Les Juifs, peuple élu de la haine universelle” (1882) in CHARBIT, *op. cit.*, 41-46. or.

POLIAKOV, Léon: *Historia del antisemitismo: La emancipación y la reacción racista*, Muchnik Editores, Bartzelona, 1985 [1977]

_____ *Historia del antisemitismo: La Europa suicida 1870-1933*, Muchnik Editores, Bartzelona, 1986 [1977].

SAID, Edward: *Zionism from the Standpoint of Its Victims*, Social Text, Volume 1, 1979.

SALA ROSE, Rosa: *Diccionario crítico de mitos y símbolos del nazismo*, Acantilado, Bartzelona, 2003.

SAND, Shlomo: *La invención del pueblo judío*, Akal, Madril, 2011 [2008]

_____ *La invención de la Tierra de Israel*, Akal, Madril, 2013[2012].

TEVETH, Shabtai: *Ben-Gurion: The Burning Ground, 1886–1948*, Houghton Mifflin, Boston, 1987.